


Zu hemen zaude. goiena



PRESIDENTE IZANDAKOEI OMENALDIA

75 urteotan klubeko presidente izandakoei aitortza egingo die Aretxabaletako UDA elkarteak igandean / 18

Jabier San Miguel, Jokin Antxia eta Adrian Merino –UDAko presidente ohiak– eta Agurtzane Elkoro –gaur egungo presidentea–, Ibarra futbol zelaietan, martitzenean. XABIER URZELAI



Ainhoa Salillas
bergararra, ligako
txapeldun Txuri-Urdin
izotz-hockey
taldearekin / 38



Bailarako
okin-maisuen
labeetan zehar

Andoni Izagirre
ikerlariari
elkarrizketa

**Teknologia
informatikoaren
alorreko emakumeak
behar direla
ohartarazi du MUK / 6**

**Moda desfilea egingo
du Arrasateko Ibai-
arte elkarteak bihar,
zapatua, Amaia Udal
Antzokian / 12**

**Kalean da 'Arrola 50
urte mendiz mendi'
liburua; Antzuolako
mendi elkartearen
historia batzen du / 30**

SINADURAK



GOTZON
IPARRAGIRRE / 8



ARANTZAZU
UGARTE / 35



ITSASO
ERRETOLATZA / 12



MIKEL
BIANA / 48

Varilux.
PROGRESIBOEN
2. PAREA
OPARI



Kontsultatu optikan kanpainaren esagarriak.

Otalora Lizenziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multioplicas.com

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

Buru osasuna, gatazken erdian

Ukrainatik, Afrikatik eta Latinoamerikatik datozen pertsonen ongizatea lehenetsi nahi dute Debagoieneko boluntarioek eta baita Irungo Harrera Sareko kideek ere



Etxabe, Lugarizaristi eta Ruiz, Arrasateko Caritaseko egoitzaren atarian. U.I.L

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Jokin Ruiz Kortabarria arrasatearrak badarama denbora bat askotariko jatorrietatik datozen migratzaileei arreta psikologikoa ematen. Boluntario jardun izan du -Zehar eta SOS Arrazakeria gobernuz kanpoko erakundeetan-, eta orain, Ukrainatik ihesi datozen pertsonekin egoteko hautua egin du; bai orain arte egindakoarekin jarraitzeko eta baita gatazka gertu sentitzen duelako ere -bere izeba ukrainarra baita-.

Bide berri horretan, bikotekide Irene Vasquez Correa du lagun -psikologoa bera ere-, eta baita Victoriano Etxabe Arrasateko parrokoa eta Leire Lugarizaristi Deba eskualdeko Caritaseko gizarte langilea ere. Guztien artean "sarea ehuntzen" dihardute, arreta psikologikoa behar duen pertsona oro artatu ahal izateko.

Ruizen arabera, gatazketatik datozen pertsonen ongizatea bermatzeko bi alor hartu behar dira kontuan: lehenengoa da pertsona horiei janaria, arropa eta bizitzeko oinarrizkoak diren elementuak ematea -baita bizileku bat ere-; eta bigarrena, alderdi psi-

kologikoa lantzea: "Aldaketak asimilatzea lan handia da, eta, are gehiago, gerraren testuinguruan badira. Familia eta herria atzean uztea beti da zaila, baina gerra batez ari gara. Min asko dago". Azken alderdi horri orain arte ez zaiola "baliorik eman" esan du Ruizek, eta bat egin du Caritaseko gizarte langile Lugarizaristik ere: "Egoera zaurgarrian dauden pertsonak artatzerakoan, oro har, ez da kontuan hartu horien buru osasuna. Baina, apurka-apurka, ari gara horri erreparatzen".

Lehenengo urratsak egiten

Korridore humanitarioek erraztu egin dute errefuxiatuak Debagoienara iristea, eta azken bi asteetan harrera familia askok lortu dute haur, gazte eta heldu ukrainarrak etxean hartzea. Horietako hainbatekin du hurremana Caritasek -bai Victoriano Etxabe parrokoaren bitartez eta bai Leire Lugarizaristi eskualdeko gizarte langilearen bitartez-.

Momentu honetan, psikologikoki artatuak izateko premia duten pertsonak identifikatzen

ari da Caritas, Jokin Ruiz eta Irene Vasquezekin harremanetan jartzeko. "Kontaktuak egiten ari gara; hori da lehenengo pausoa. Ondoren, norbaitek laguntza behar badu, gu hor egongo gara; bidea egiten lagunduko diogu", azaldu du Ruizek.

Alor guztietako boluntarioak

Leire Lugarizaristik eta Jokin Ruizek aste honetan bertan eza-gutu dute elkar, Arrasateko Caritasen egoitzan. Biek dute argi -baita Vitoriano Etxabek ere- alor askotariko profesiona-

lak batuz gero arreta hobe eskainiko dietela egoera zaurgarrian daudenei. "Sarea ehundu behar dugu, eta asko eskertzen da boluntarioen laguntza", adierazi du gizarte langileak. Horri gehitu dio psikologoen lana "oso garrantzitsua" dela: "Gu saiatzen gara bidelagun izaten, baina, sarri, ez dugu erremintarik. Benetan eskertzen dugu Ruiz eta Vasquez bezalako profesionalak hor egotea".

Bestetik, herritarrek egindako ahalegina eta ekarpena ere eskertu nahi izan du Caritasek. Ukrainarrei bideratutako kanpaina abiatu zuen hilabete hasieran, eta emaitzarekin "harrituta" eta "oso pozik" dago Etxabe: "Arrasaten 20.000 euro batu dira ukrainarrei laguntzeko. Ikaragarria da". Bestetik, Gipuzkoa osoan egin den kanpaina, hamar egunean 100.000 euro batu dira asmo berarekin.

Laguntzeko bideak irekita jarraitzen dute, eta Caritasek baditu hainbat aukera: baliabide materialak eskaintzea (*errefuxiatuak@euskadi.eus*), ukrainarrak etxean hartzea (945 22 22 22), ekarpen ekonomikoak egitea (E38 3035 0001 5500 1010

Migrazio doluaren inguruko tailerra

Migratzaileen "ongizate emozionala" hobetzeko helburuarekin, hamabi saioko tailerra antolatu du Aretxabaletako Udalak. Apiriletik ekainera bitartean egingo da, eta egitasmoa gidatuko duena Jokin Ruiz psikologo arrasatearra izango da. Ekimenak helburu ugari ditu: migrazio doluari buruzko kontzientzia hartzea erraztea;

emozioak lasaitzeko gune bat eskaintzea; antsietate eta depresio mailak murriztea; orainaldia beste era batera doitzeko; eta laguntza sare bat sortzea. Lan-saio horietan parte hartu ahal izateko, hainbat baldintza bete beharko dituzte migratzaileek: gutxienez, sei hilabete egotea harrerako herrialde edo probintzian; gaztelania

menperatzea; 16 urte baino gehiago izatea; eta saioetan parte hartzeko konpromisoa hartzea. Taldeak itxiak izango dira -14 eta 16 lagun artekoak- eta zapatu arratsaldeetan elkartuko dira -16:00etatik 18:00etara bitartean-, Ibarra kiroldegian. Izena emateko epea dagoeneko zabaldu dute; mezua bidali behar da helbide elektronikoa honetara: *myriam@aretxabaleta.eus*

LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA DEBAGOIENEAN ATE IREKIAK

Etorkizuna zure esku

Fp ikasLAN Gipuzkoa

ARETXABALETAN:

Maiatzaren 4an, 18:00etan

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, 2/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA
☎ 943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489
la@aretxabaleta.com
www.ale-aretxabaleta.eus

BERGARAN:

Apirilaren 5ean eta 28an,
10:30ean, 12:30ean, 16:00etan eta 18:00etan

Miguel Altuna LHII Bergara
Agimibidea, 2 • 20570 BERGARA
☎ 943 899 270 / 943 899 271
info@maltuna.eus
www.maltuna.eus

OÑATIN:

Maiatzaren 10ean, 18:00etan
Maiatzaren 14an, 11:00etan

Onati Institutua
Lamaña auzoa, 16 • 20560 OÑATI
☎ 943 899 300
info@onati.net
www.onati.net

2022 - 2023 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA AURKI

3614) eta beste hainbat zereginetan laguntzea (943 44 07 44).

Irungo errealitatea, Oñatira

Aurrez esan bezala, askotariko jatorrietatik datozen migratzaileekin egin dute lan bailarako boluntarioek; bai norbanakoek eta baita eragileek eta elkarteek ere. Caritas da horietako bat eta Hotz Oñati beste bat. Martxoan "kontzientzia hartzeko kampanan" murgildu dira oñatiarrak, eta itxiera emateko hitzaldia egingo dute gaur. Irungo Harrera Sareko Ion Aranguren kidea gonbidatu dute. 19:00etan izango da saioa, Zinema aretoan.

Harrera Sarean, Arangurenekin batera, 50 boluntario inguru ari dira lanean. Migratzaileek bategi ere, Afrikatik datozenak Lapurdira igarotzeko bideak itxita dituzte. Frantziako Polizia dago mugetan eta migratzaileak Irunen pilatzen dira. Bertan bizi eta egiten dutena kontatuko du gaur Aranguren Oñatin.

Aurreratu duenez, boluntarioek hiru arlotan banatzen dute egunerokoa: gauean, 22:00etatik aurrera, talde bat *-Gautxori taldea-* geltokira joaten da, iris-

ten diren pertsonak aterpetxera bideratzeko; beste talde batek, goizetan, Irungo plazan informazio-gunea jartzen du; eta hirugarren taldea arropak emateaz arduratzen da.

Migratzaileek egoera "gordina" bizi dutela dio Aranguren: "Aterpetxeari dagokionez, gehien-goak bertan sartzeko aukera izaten du, baina batzuk kalean geratzen dira -lekua egon arren-. Espainian urte bat baino gehiago egon badira edo asiloa beste herrialde baten eskatu badute, ez dute sartzeko eskubiderik". Hala, boluntarioaren arabera, gauero geratzen da pertsonaren bat kalean. "Miserablea iruditzen zaigu", gehitu du.

Bestetik, gogora ekarri du muga zeharkatzerakoan zortzi pertsona hil direla dagoeneko. "Bidasoa ibaian lau pertsona hil ziren iaz: batek bere buruaz beste egin

IRUNGO HARRERA SAREKO JON ARANGURENEK HITZALDIA EGINGO DU GAUR OÑATIN



Jon Aranguren, Irungo Harrera Sareko kidea. J.A.

zuen eta beste hiru itota hil ziren. Aurtengo urtean, duela hiru aste, gizon senegaldar bat hil zen. Beste hiru trenak harrapatu zituen", azaldu du.

Boluntarioei "kontrola"

"Migratzaileei egiten zaien jarraipena" salatu dute boluntarioek, eta baita laguntzaileei egiten zaiena ere: "Poliziak kontrolatu egiten gaitu, baina, orokorrean, hemen ez dugu arazo handirik; azken finean, ez gaudela legala ez den ezer egiten". Halere, zehaztu du Iparraldean

bestelakoa dela egoera: "Hendaian, Ziburun eta Urruñan ere badago jendea laguntzen. Migratzaileek muga igarotzen dutenean, Baionara hurbiltzen dituzte. Eta hor bai, Frantziako Polizia bestelako jarraipena egiten ari da; kriminalizazio saioa, hobeto esan".

Egoera gehiago zorrotzuko dela uste du Aranguren; besteak beste, hauteskundeak direlako laster Frantzian: "Momentu honetan, Polizia egunero eta 24 orduz dago mugan, baina, itxura guztien arabera, kontro-

la gehiago gogortuko da. Herri-tarrei egoera kontrolatzen duela erakutsi nahi die Frantziak; hori da erabiltzen duen propaganda". Aurreko hauteskundeetan Hendaia 200 agente iritsi zirela azaldu du Harrera Sareko kidea: "Gauza bera gerta daiteke orain, eta horrek sufrimendua areagotuko du".

Migratzaileen arteko aldea

Aranguren esanetan, muga zeharkatzea "ez da zaila" azal zuria izanez gero: "Poliziak pertsona beltzak edo itxura arabiarra dutenak geratzen ditu Irun eta Hendaia arteko zubian. Zuriak behin eta berriz pasa gaitzke. Kontrol arrazista da".

Horren harira, Ion Aranguren Europar jarri du begirada: "Begien bistan dugu nola egin behar diren gauzak. Ikusi besterik ez dago nolako erantzuna ematen ari diren Europako herrialdeak ukrainar errefuxiatuak hartzeko. Posible da gauzak ondo egitea". Testuinguru horretan, galdera egin du Aranguren: "Zergatik ukrainarrekin bai eta afrikarrekin ez?" Bere buruari erantzun dio: "Beltzak direlako".

 **Neinor** HOMES

Bizi nahi dugun **etorkizuna**

Gimnasioa
Gourmet aretoa
Terraza zabalak

SAN ANDRES HOMES • ARRASATE

ERAIKITZEN



900 11 00 22 • neinorhomes.com

"Itsas energiak aprobetxatzeko teknologia bat dugu garatzeko"

IÑIGO ANSOLA EEE-KO ZUZENDARIA

Energiaren Euskal Erakundearen buruak dio, egungo gain, teknologia berriak beharko ditugula trantsizio energetikorako. Epe motzean, garestitzeari aurre egiteko neurriak al bait bizkorren hartu beharra nabarmentzen du

Julen Iriondo M. de Zuazo ELGETA
Elgetan izan zen Ansola eguaztenean, bertako EAJk gonbidatuta, hitzaldia ematen. "Errusiak Ukraina inbaditu izanak" eragindako "krisi energetiko gogorra" izan zuen hizpide –"krisi humanitarioa" ahaztu gabe–: "Oso dependentzia handia dugu Euskal Herrian: energia kontsumo handia dugu, eta menpekotasun itzela, kanpotik datozkigun askotariko energia iturriekiko".

Egoera hori izanda, zer egin deza-kegu aurre egiteko?

Larrialdi klimatikoan gaudela adierazi zuen Eusko Jaurlaritzak 2019an. Erregai fosilekiko menpekotasun itzela dugu, eta argi duguna da, nahiz eta bide malakartsua izan eta sekulako lana aurretik eduki, gure mix energetikoak, teknologia desberdinek osatzen duten pastel horrek, energia berriztagarrietarantz jo behar duela. Eta hor, hasi erakunde publikoetatik, segi pribatuekin, eta norbanakoetaraino iritsi arte, denok dugu zeregin handi bat. Denon artean gero eta energiaren erabilera jasangarriago bat izango dugula pentsatzen dut, gero eta eraginkorragoak izango garela, eta erabiliko dugun energiak gero eta garbiagoa beharko luke.



Iñigo Ansola, Elgetan, eguaztenean. J.I.

Baditugu jauzi hori egiteko behar diren baliabideak –teknologikoak eta abar–?

Berriztagarrien arloan asko da garatu dena; hemen, Euskal Herrian, zalantzarik gabe. Bai Euskadin eta bai Nafarroan industria kate oso garrantzitsua dugu sektore eolikoan, aerosorgailuen sektorean. Sektore fotoboltaikoarena ere oso landuta eta oso garatuta dagoen teknologia bat da. Baina, zure galderari erantzunez, iturri horiek oso garrantzitsuak dira, baina, zalantzarik gabe, etorkizunera

begira teknologia berriak garatzen joan behar dugu. Euskal Herrian, itsas energiak aprobetxatzeko teknologia bat garatzeko dago; pauso asko eman dira, baina uste dugu, oraindik ere, hortik ere energia asko etor dakigukeela, eta zeregin handia daukagula.

Horrelako krisi bat iritsi zaigu orain eta, larregi itxaron dugu gai honetan beste martxa bat sartzeko?

Aspalditik gentozen esaten menpekotasun energetiko itzela dugula, eta, ez bakarrik berriztagarrietan, beste iturri batzue-

tan ere aztertu beharra genuela. Zeren hain dependentzia handia edukita eta, gainera, oso urruti dauden eta egoera politiko nahiko kaskarra duten herrialdeekiko –ikusten ari gara, gaur egun, Aljeria edo Errusia, ezta?–, bagenekien ezegonkortasuna sortu zezakeela; eta orain zurrunbilo baten barruan sartuta gaude, ez euskaldunok bakarrik, europar denok baino.

Kontua izango da aipatutako aldaketa egin bitartean martxan jarraitu behar dela, eta hor ere egon daiteke zailtasuna.

Bai, hori da. Eta menpekotasun energetiko hori izatearekin batera, oraingo eztabaida da nola lor genezaken otsailaren 24an inbasioa hasi zenetik –esango nukeen arren aurretik ere bazetorrela garestitze gogorra– eztanda egin duen garestitzeari aurre egitea, emergentziak ze neurri har ditzakegun argindarraren eta gasaren prezioak jaisteko, eta baita petrolioarena ere, zeren ikusi besterik ez dago gure garraio sisteman nolako eragina izaten ari den. Hartu behar diren neurriak al bait bizkorren hartu behar dira, gure ekonomia sistemak aurrera egin ahal izateko.

Neurri batzuk hartu dira; Espainiako Gobernuak negoziazio batzuk

egin ditu European. Nola baloratzen dituzue?

Ikusi behar da argindarrarengan eragina izango duten ze neurri proposatuko dituzten, oraindik ez baitituzte proposatu. Sistema hain da konplexua, fitxa bat mugitzen denean, beste asko mugitzen dira.

Prezioa gorabehera, gas hornikuntza –eta argindarra sortzeko ere erabiltzen da gasa– ziurtatuta dago?

Ez genuke arazorik izan beharko. Euskadin kontsumitzen duguna baino gas gehiago iristen zaigu Bahía Bizkaia Gasera. Itsasontziz ekartzen dute gas natural likidotua, eta gas egoerara bueltatu eta sarean sartzen da han; esportatzen ere ari gara. Beraz, Errusiaz gain gasa ekoizten duten beste leku batzuk dauden, likidotzeko gaitasuna duten eta, oso garrantzitsua, guk hori ordaintzeko adina diru dugun bitartean, ez da gas hornidurarekin arazorik izango –eta, ondorioz, ezta argindarra sortzeko ere; ziklo konbinatuko hiru azpiegitura ditugu–. Baina, esandakoa, kostako zaigunaren arabera izango da guztia. Beste alde batetik, Aljeriatik hodi bidez datorren gasa dugu, merkeagoa dena; ikusi beharko da nola amaitzen den Sanchez presidenteak Marokorekiko akordioarekin sortu duen nahaspila; ikuspegi energetikotik, justu une honetan mugimendu hori, ez da ulertzen. Aljeriako gasa kolokan jartzen duzu gasa hain garesti dagoen garaiotan?

"ALJERIAKO GASA KOLOKAN JARTZEN DUZU GASA HAIN GARESTI DAGOEN GARAIOTAN?"

Euskara arloan egindako lana saritu izana eskertu du Fagorrek

J.I. ARRASATE

Egubakoitzean jaso zuen kooperatiba taldeak Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen Anton Abbadia saria. Fagor Taldeko lehendakari Joxean Alustizak zorionak eta eskerrak eman zizkien kooperatibetako langile eta bazkide guztiei, baita euskararen normalizazio bidean bidelagun izan dituzten erakun-

de eta eragileei ere, eta adierazi zuen, esaterako, gaur egun "%40tik gorakoa" dela taldeko kooperatibetako euskararen ahozko erabilera.

Markel Olanok goraiatu zuen sarituek erakutsi izana euskararen normalizazioa eta "mundu eleanitzean eta nazioarteko merkatuaren zorrotasunean lehia- kor izatea" bateragarri direla.



Olano oroigarria ematen Alustizari.



Fagor Taldeko kooperatibetako ordezkariak, sariarekin. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



Bergaran egindako manifestazioa. UXUE IGARZA

Zazpi ikastetxetan eskolak eten, eta balantze ona egin du Ikamak

"Hezkuntza sistema aldatzeko" deituriko geldialdia zenbait eskolak baimendu ez izana salatu dute

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA Eskolak etenda, Bergaran batu ziren martitzenean dozenaka ikasle, manifestazioan. Ikamak aditzera eman zuenez, bestalde, Oñatiko Txantxiku ikastolako eta Bergarako Mariaren Lagun-

diko ikasleek ez zuten greba deitzeko aukerarik izan: "Lehenengo kasuan, arrazoi antzekoengatik hil berean bi greba deitu ezin direla argudiatuta, eta bigarreanean, paroa deitzeko aukera zuzendaritzak hasieratik

baztertu duelako". Eskualdeko Ikamak "bi kasuak salatu eta greba egitea eskubidea dela aldarrikatu" du.

Aurretik zetorren "hezkuntza-ren prekarizazioa" pandemiak "bortizki azeleratu" duela dio Ikamak, eta "hezkuntza, gizarteko beste esparru batzuk bezala, krisian dagoela". Salatu dituzte "kontrolerako mekanismoak", eta "pandemiaren ondorioz" sortutako "gaitz psikologikoen aurrean inolako neurririk" hartu ez dela ere bai.

81 kutsatu berrirekin, egonkortu egin da egoera epidemiologikoa

Apenas aldatu dira intzidentzia-tasa (249) eta ospitaleratutako herritar kopurua (227) azken astean

Jon Irizar Aranguren DEBAGOIENA Azken bi asteetan kutsatu berriak %42 hazi diren arren, hutsala izan da iragan astetik izan den aldaketa. Hala adierazten zuten, bederen, aste hasierako balioek, edizio hau ixterako Osasun Sailak eguneratu gabe baitzuten eguenetan argitaratu ohi dituen datuak.

Egonkortze orokorra

Hainbat adierazletan atzeman liteke egoera epidemiologikoaren egonkortzea. 81 kasu hauteman ziren iragan astean Debagoiengan

-55 astelehenetik eguaztenera-; 79 izan ziren aurrekoan. 212an zegoen intzidentzia martxoaren 20an; 249an, aldiz, 27an. Eta adierazgarriena, akaso, Hego Euskal Herriko erietxeetako egoera da: martxoaren 15etik, 220 herritarren bueltan kokatu da ospitaleratu kopurua -227 domekan-. Arrasateko Ospitalean, esaterako, pertsona bakarra zegoen ospitaleratu atzo -bi ziren joan den egunean-. ZIUetan, eta pixkanaka bada ere, beherantz doaz datuak: 20 herritar zeuden domekan.

Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	27	34	8.647	%39,54	276
Oñati	17	9	4.584	%40,11	226
Bergara	16	23	5.473	%37,53	259
Eskoriatza	11	1	1.568	%37,96	292
Aretxabaleta	5	6	2.616	%36,80	155
Aramaio	3	3	561	%38,53	405
Antzuola	1	3	832	%39,98	183
Elgeta	1	0	305	%26,73	88
Gatzaga	0	0	73	%34,60	0
DEBAGOIENA	81	79	24.659	%38,53	249

OHARRA: ASTELEHENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA



Zure iritzia gurea zureguz te-escuchamos **944 943 444** eroski.es/te-escuchamos

Produktu hauetarako gurek XIX. mendetik aurrera dituztenak hemen...

Aurreko EROSKI aplikazioarekin

Jarduera berria

Esanik ezazu berrikidagaitz eta gure beste baliabideekin laguntzen dituzten berrikidagaitz.

supermercado.eroski.es
electrohogar.eroski.es

Deskargatu bertan

Konkurtu erabiltzailearen datuak eta beste datuak.

LIBURUKKA HONETAKO PRODUKTU, ZERBITZU ETA SUSTAPEN GUZTIAK DENDA BAKOITZAREN BALDINTZEN MENDE DAUDE.

2022
2022

Esaintza baloduna EROSKI hipermerkatuetan

EROSKI ARRASATE

Musaketa ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30


Teknologia berrien olatuan emakumezkoak behar-beharrezkoak dira

Asko dira etorkizuna teknologia informatikoan dagoela diotenak; hala ere, emakumezkoen presentzia oso txikia da alor horretan. MUn, esaterako, emakumezkoen %14k egin dute aurten Ingeniaritza Informatikoaren aldeko hautua

Maidar Arregi ARRASATE

Teknologia informatikoez sus-tatuta, gizartea etengabeko aldaketetan murgilduta dago. Gaur-gaurkoz, ordea, erreali-tatea da Ingeniaritza Informa-tikoaren aldeko hautua gizo-nezkoek egiten dutela, nagusi-ki. Mondragon Unibertsitateko software eta sistema ingeniari ikerketa taldeko ikerlari Osane Lizarraldeko emakumezkoen %14k soilik dihardutela Inge-niaritza Informatikoa ikasten, gaur-gaurkoz: "Gizarteak Inge-niaritza Informatikoaren ingu-ruko pertzepzioa distortsiona-tua dauka. Zinemak, publizita-teak eta hedabideek eragina izan dute. Hori dela eta, infor-matika ogibidearen inguruko errealitatea ez da horiek islatzen duten modukoa. Eta honek, noski, eragin zuzena izan du emakumeengan". Espainiako datuek ere emakume falta is-latzen dute Ingeniaritza Infor-matikaren alorrean, eta datua bera da: %14.

Era berean, gaineratu du ogi-bideari balio erantsia ematen dietela eta talentua oso handia dela emakumezkoen artean: "Enpresek pertsona proaktiboak eta askotariko egoeretara ego-kitzeko ahalmena dutenak nahi dituzte. Ilusioz taldean lan egi-teko gaitasuna dutenak, alegia. Informatikaria ez da programak eta makinak buruan dituen *friki*-a. Areago, informatikariak arazoei irtenbide errealek ematen dizkie, eta horretarako, komunikazio eta sorkuntza gaitasun handia behar izaten dute. Informatikariaren lana talde-lana da, eta ez bakarkako lana. Horixe da, hain zuzen ere, gure graduen hezkuntza eredua: arazoa ulertu, irtenbidea disei-natu, talde-lanean jardun eta



Miriam Moreno informatikari bergararra, gaur egun, Orona enpresan lanean. M.U.

ahozko nahiz idatzizko komu-nikazio efektiboa garatzea".

Geratzeko etorri da

Digitalizazioa geratzeko etorri dela nabarmendu du Mondragon Unibertsitateko irakasle eta in-formatikariak: "Teknologia infor-matikaren alorreko profesio-nalak behar dira eta beharko dira. Etikaz eta gizatasunez jokatzuz, arazo konplexuei era partekatuan aurre egiteko gai diren informatikariak dira ezin-besteak, hain zuzen ere".


Eta, zer esanik ez, bizi izan-dako osasun pandemiaren on-dorioz, teknologia horrek jasan duen bilakaera ikaragarria kon-tuan hartzen badugu. Asko dira etorkizuna teknologia infor-matikoa dagoela diotenak. Sare sozialak, eskuko telefonoak, *big data*, lainoa, metabertsoa, ziber-segurtasuna, enpresa prozesuen

ANIZTASUNA GAKOA IZANIK EZINBESTEKOA DA EMAKUMEZKOEN IKUSPEGIA PROIEKTUETAN

automatizazioa... Horrek guztiak iraultza digitala dakar.

"Hori dela eta, gizarteko espa-rru askotan, erakunde zein in-dustrian, esaterako, erabat murgildurik gaude eraldaketa digitalean. Eskaera hazi egin da, eta unibertsitateak ezin dio eskaerari guztiz erantzun. Jada errealitatea da, eta gazteak mo-tibatu behar ditugu, bereziki emakumezkoak. Kontziente izan behar gara guztion artean aurre egin behar diogula erroka honi". Epe motzera, ordea, informatikak munduko helburu jasangarrien eraldaketarekin bat egiten la-gundu behar duela dio: "Aniz-tasuna garrantzitsua izanik, emakumezkoak gako izango dira, horien ikuspegia proiektu-etan ezinbestekoa zaigu. Pen-tsa dezagun zabalean: zer egin dezakegu pertsona nagusien osasuna eta ongizatea hobetzeko? Ekoizpen eta kontsumo ardura-tsuak sustatzeko? Hezkuntza kalitatea hobetzeko? Eta berdin-tasuna areagotzeko? Informati-ka oinarritzakoa eta zeharkakoa da, eta gure esku dago non jarri dezakegun gure talentua eta indarra".

Zer eskaintzen dizu informatikak?



OIHANE LAMERINHAS
INFORMATIKA IKASLEA

"Informatikari esker, egungo teknologia ezagutzen ditut; horiek ulertzen eta erabiltzen ikasten nabil, eta benetan baliagarria zait. Ikasgaien artean Zibersegurtasuna eta Adimen Artifiziala nabarmenduko nituzke. Lan aukera aberasgarriak eskainiko dizkidala uste dut".



MIRIAM MORENO
INFORMATIKARIA

"Lan esparruan informatikak hainbat prozesu sinplifikatzeko eta errazteko daukan ahalmena aipatuko nahiko nuke. Baita barrera geografikoak apurtzeko daukan gaitasuna ere; aukera zabala eskaintzen du lankideekin eta bezeroekin kontaktu zuzena izateko".



ANA REGALADO
INFORMATIKA IKASLEA

"Informatika egiten dugun guztiaren parte da, eta inguratzen gaituen mundua modu positiboan aldatzea ahalbidetu dezakeela uste dut. Gainera, informatikaren etorkizuneko aukerak ez dute mugarik. Lankidetzak-lana bultzatzen du, baina baita esfortzu indibiduala ere".



LOREDI ALTZIBAR
INFORMATIKA IKASLEA

"Betidanik sentitu dut teknologia berriekiko jakin-mina; egunero egiteko dugun bizimoduan gertu dabilkigun gaia da-eta, gainera. Sortu daitezkeen hainbat arazori irtenbidea edo soluzioak diseinatzeak asko asetzen nau. Azkenean, programazioak magia egitea ahalbidetzen du".



AINHIZE URIBESALGO
INFORMATIKA IKASLEA

"Betidanik gustatu izan zait informatikaren alorra; argi nuen zer ikasi nahi nuen hasiera-hasieratik. Ordenagailuen eta programen atzeko prozesua zein zen ikasteko jakin-mina izan dut eta horiek ulertzea etorkizunean sortzeko ahalmena eskainiko dit".



GARAZI URKIA
INFORMATIKA IKASLEA

"Gratu eskaintzen informazioa bila nabilela, ingenieritza informatikoak arretea deitu zidan; izan ere, gradu erabat praktikoa eta erabilgarria iruditu zitzaidalako. Gaur egun informatika edonon dago eta teknologia arloan egiten diren aurrerapenak ulertzeko nahitazkoa dela iruditzen zait.

MODA DESFILEA

apirilak

02 zapatua
19:00
Amaia antzokia



ARRASATE
EROSTE
BERTIQUIDA
GOZO
AGOA!



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



ZABALIK

GOTZON IPARRAGIRRE

Aitaren erlojua

Errealitatea eta fikzioa lausotutako laino fin batek bereizi izan ditu. Segun ze haizek jotzen duen, errealitateak fikzio trazak hartzen ditu, edo azken honek, errealitate itxura. Horrexegatik, ez nago ziur noiz izan zen, baina esango nuke neuronatik neuronarako bidea aldrebesten hasi eta nahasmena agertzean izan zela. Orduantxe, aitaren erlojua geratu egin zen, ordu bata eta bi minututan geratu ere. Aurrerago etorriko zen erabateko geratzearen bihozakada balitz eran. Gehiago ez zen martxan jarri.

Hala ere, dutxatu eta guapo-guapo prestatzen zintugunean, atontzeak erlojua eskuturrean jartzearekin amaitzen ziren. Ustez baliorik ez duten objektuak, jada hondatuta daudenak, sortuak izan ziren helburua ez den beste bat beteaz zentzu berri bat hartzea pasatzen dira. Horixe zen guretzat zure erlojua, zu zeu izatearen atal bat gehiago.

Geldi egon arren, nola Focaulten pendulua muturretarrantz bidean erditik bi aldiz pasatzen den, hala aitaren erlojuak egunean bi alditan ematen zuen ordu zuzena, errealitateari eutsi nahian emaniko azken eztenkadak balira bezala. Egurdikoak, nola ez, bazkaltzeko ordua adierazten zizun... Nola disfrutatzen zenuen, gustua zen ikuste.

Goizeko ordu bata eta bi minutu erakusten zituenean, ametsetan irudikatzen zintudan. Ez dakit nola egiten duen gauetz amets egunez amets egiteko gai ez denak, baina pentsatu nahi dut amaz eta lau seme-alabez disfrutatzen zenuen garaiaik presente izaten zirela amets horietan, Goizperreko sorreran zerbait handia egiten ari zinetenekoak, edo mendian egiten zenituen ibilaldi luze horietako baten bazina bezalako garaiaik, baina batek daki... Hori berori egunez amets egitea da!

Goizeko lehen orduan atsedean hartuta topatu zintugun, pentsakor bazeunde eran. Nik neuk nahiago dut pentsatu orduko garaiekin ametsetan alde zenuela hegan, nahasmenetik argirantz bidean, bide guztiek bat egiten duten argian.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Kontraesanak edo zerbait gehiago?

ISA EGIGUREN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Errusia Eurovision-etik kanporatu dute.

Israelek, aldiz, lehiaketa honetan kantuan jarraituko du Palestinako herria egunez egun suntsitzen duen bitartean.

Eta urteak daramatza horretan.

Europak Ukrainara armak bidali ditu, Errusia zigortu, baina egunean 600 milioi euroko gasa erosten jarraitzen du.

FIFAk Errusia Qatarko munduko txapelketatik kanporatu du.

Qatarren 6.500 migratzaile baino gehiago hil dira, txapelketarako azpiegituren eraikuntzan.

Hamasei orduko lanaldiak dauzkate, festa egunik ez, eta 50 gradurainoko tenperaturarekin lan egin dute.

Europar Batasunak akordio historikoa lortu du errefuxiatu ukrainarrak hartzeko.

Eta albiste bikaina da.

Bitartean, Turkiari eta Libiari milioiak ordaintzen jarraitzen dugu, beste gerra eta gosetik ihesi doazenak atxiki ditzaten.

Afganistango krisi bortitzaren eta herrialdetik

ihes egin nahian herritarren irudi izugarrien ondoren, Greziak 40 kilometroko harresia eraiki zuen Turkiako mugan...
... Poloniak 130 kilometrokoa Bielorrusiako mugan...

... eta Lituania 50 kilometroko bat eraikitzen ari da.

Mediterraneoak gero eta emakume, haur eta gizon gehiago ezkututzen ditu bere uretan, eta Espainian legez kanpo kanporatzen ditugu erabateko kalteberatasun-egoeran dauden adingabeak.

Kontraesanak baino zerbait gehiago, ezta?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administratzaile zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Edurne Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Maia familiako hogeita bi hizkuntzetako bat da kitxeera"

GLADYS AIDEE GARCIA YAC KITXEA ETA HIBIL IKASTALDIKO PARTAIDEA

Larraitz Zeberio ARETXABALETA
Garabidek antolatutako Hizkuntza Gutxituak Biziberritzeko Lankidetzak ikastaldia egin du Garciak (1966, Guatemala) hilabetez. Hamabi komunitate linguistikotako hogeita lagunek osatu dute taldea. Kitxeeraz berba egiten du, eta laster itzuliko da komunitatera. Guatemalako Quetzaltenango Departamentuko Hezkuntza Ministerioaren zuzendariordetzan dihardu. **Zenbat hitzun ditu gaur egun kitxeerak?**

Maia familien hizkuntzetako bat da. Batez ere, Guatemalan hitz egiten da. Maia hizkuntzek, gaur egun, 900.000 hitzun inguru dauzkate. Guatemalan biztanleen %7 da kitxea.

Ze erabilera du zuen hizkuntzak? Kitxeak elebidunak gara, eta gure artean erabiltzen dugu, baina, batez ere, ahozotasunean; izan ere, oso gutxi gara kitxeeraz idazten dugunok. Ez dugu ikasteko



Gladys Aidee Garcia Yac. L.Z.L.

aukerarik izan. Nire gurasoek, esaterako, kitxeeraz hitz egiten zuten beti elkarren artean, baina niri beti gaztelaraz egiten zidaten. Gutxietsia izan zen belaunaldi batekoak ziren, eta etena

gertatu da transmisioan. Nik amonari esker ikasi dut. Baita ere eskolan zein unibertsitatean hizkuntzarekiko kezka zuten irakasleekin egin nuelako topo. Zorte handia izan nuen.

Transmisioan etena gertatu dela diozu. Gaur egungo gazteek hitz egiten dute kitxeeraz?

Gutxiak. Eskoletan irakasle askok ez dakite, eta, formakuntzak eskaintzen badizkiegu ere, gehienez ere astean hiru bat saio egiten dituzte ikasleekin. Lan handia dugu aurretik hizkuntzaren garrantziaz jabetu daitezen. Antzerako zerbait gertatzen da familiekin: ez diote garrantzirik ematen, eta presio egiten dute seme-alabek eskolan gaztelaraz ikas dezaten. Mentalitatean gaztelara da aukeren hizkuntza.

Hilabeteko egonaldia egin duzu Euskal Herrian. Zer ikusi eta ikasi duzu?

Zuen herriarekin maiteminduta nago. Ideia argi batekin itzuliko naiz nire komunitatera: hizkuntza odolean daramagun zerbait da. Mundua ikusteko eta ulertzeko modu bat da. Ikusi dut ze garrantzi ematen zaion euskarari etxean, eskolan, komunitatean... Gurean hori da bilatu behar duguna hizkuntza indartzeko. Gauza pilo bat ikasita noa bueltan, eta nire poltsan eramango dut hemen jasotako hazia. Erein egingo dut loratu dadin. **Hamabi komunitate linguistikotako hogeita lagun batu**

zarete Garabideren ikastaldian. Aberasgarria izango zen.

Zalantzarik gabe. Beste hizkuntza askoren errealitatea ezagutu dut, eta oso aberasgarria izan da. Ikusi eta ulertu dugu gure hizkuntzak gutxituak izan direla. Kasu batzuetan, legeak daude horien babeserako; beste batzuetan, ez; beste batzuetan, legeak badaude, baina paperean besterik ez... Egonaldi honetan izan dugun elkarbizitzak lagundu digu gauza asko ulertzen eta saretzen. Egunero bizpahiru hizkuntza desagertzen dira munduan. Gure agintariak jabetu egin behar dute. **Hiztun komunitatea handitzen edo txikitzen ari da zuen kasuan?** Esango nuke gorabehera handiak ditugula. Orain ari gara hizkuntza ikasteko materiala sortzen. Hori da nire lanetako bat. Sortzen den materiala errebisatzen dut oniritzia eman aurretik. Aurreko urtean, esaterako, audio-hiztegi bat lantzea izan zen nire egiteko nagusia. Berrehun bat hitz dituen hiztegia da, eta eskuragarri dago Interneten. Bagoaz, poliki-poliki, bidea egiten, baina zeregin handiena kontzientzietan eragitea da. Hor egin behar dugu indarra, batez ere.

ITURRI ONETIK

Debagoieneko Trikiti Eguna Eskoriatzan maiatzaren 14an

Maiatzaren 14an ospatuko da, Eskoriatzan, aurtengo Debagoieneko Trikiti Eguna. 2020an ez zen egin eta egoerara moldatutakoa egin zuten joan den urtean, Aramaion. Aurten, Eskoriatzan izango da; itxura batean, ohiko formatua berreskuratuta. Hantxe izango dira Oñatiko, Angiozarko, Bergarako, Arrasateko, Antzuolako, Aretxabaleta eta Aramaioko trikiti eskoletako ikasleak eta irakasleak, herriko kaleak eta plazak musikaz girotzen.

ALBISTE IZAN ZEN

2006-03-29

Autogintzak Metagra saritu zuen

PSA Citroen enpresak Bergarako Metagra enpresa saritu zuen, bere produkzio onagatik. Autoendako finkagailuak egiten dituzte Metgran, eta horien kalitate ona saritu zuen PSA enpresak, Poissyn egindako ekitaldian. Munduko hornitzaile onenaren saria eman zioten, hain justu ere. Luis Mari Soto kalitate zuzendariak -argazkian, ezkerrean- jaso zuen saria. Metagraren produkzioaren zati handiena automobilen industriarako da.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Will Smith eta Oscar sariak izan dira hizpide

Aktoreak zaplasteko bat eman zion Oscar sarietan Chris Rock umoristari:

@inigosuspe: "Will Smithek benetan jo du aurkezlea edo antzezlanaren izena?"

@amaiauribe: "Chris Rock Jada Pinketten itxurarekin sartu da. Will Smith aulkitik altxatu da, muturreko bat eman dio..."

@eiderabl: "Will Smithek ez, bere emazteak soltatu behartzion sopapoa".

@gasteiztar1: "Chris Rocken txantxa ere eraso da. Txantxak txantxa izateari uzten diote besteen gaixotasuna edo mina erabiltzen den unetik".

Legarra plazan *Erdi Aroko Hiria* egingo dute. ARRASATEKO UDALAUribe plazan, *Kaleidoskopioaren* alde egin dute herritarrek. ARRASATEKO UDALA

'Erdi Aroko Hiria' batean; 'Kaleidoskopioa' bestean

Dagoeneko erabakita dago Uribe auzoko eta Legarra plazako jolasparkeek ze itxura edukiko duten urte amaieran; izan ere, 2.306 botorekin, herritarrek bi proposamen gustukoena aukeratu dituzte; ondo bidean, irailean hasiko dituzte berrikuntza lanak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Uribe auzoko eta Legarra plazako jolasparkeak berriro egingo dituzte eta parte-hartze prozesuan herritarrek gehien bozkatu dituzten aukerak izango dira Udala Gobernuak gauzatuko dituenak. Legarra plazan, *Erdi Aroko Hiria*-ren aldeko aukera egin dute, 364 botorekin; eta Uriben, berriz, *Kaleidoskopioa* nagusitu da, 352 boto eskuratuta. 154 boto balio-gabeak izan dira.

Bi parkeek hamabost urtetik gora dituzte dagoeneko eta berriroko beharra ere badute, Maria Ubarretxena alkatearen

esanetan. Hori dela eta, martxo hasieran parte-hartze prozesu bat abiatu zuten. Hala, hilabete osoan zehar, 16 urte edo gehiago dituzten arrasatear guztiak bozkatu ahal izan dute, era presentzian zein online, eta 27 proposamen izan dituzte aukeran: hamahiru Uribeko parkearentzat eta hamalau Legarrakoarentzat.

Ikastetxeen lana, "eskertzekoa"

Ubarretxena eta Victoriano Fuentes Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako zinegotzia "oso eskertuta" azaldu dira izandako parte-hartzeagatik. Izan ere, 2.306

boto jaso dituzte, "oso kopuru polita", eta alkateak ikastetxeen lana nabarmendu du. "Parte-hartze zabala izan da, eta, batez ere, eskerrak eman nahi dizkiegu ikastetxeei, bai Arrasate Herri Eskolari eta baita Arizmendi Ikastolari ere. Ikasleek parte hartu ahal izan dute eta esfortzu

AURREIKUSPENA DA BERRIKUNTZA LANAK IRAILEAN HASTE ETA URTE AMAIERARAKO BUKATZEA

Eskaintza berezia apirilko oporrez gozatzeko

Arrasateko udal ludotekek eta gazte txokoek haur eta nerabeendako egitarau berezia antolatuko dute apirilaren 19tik 24ra. Ludoteketako ekintzetan parte hartzeko izen-ematea gaur, egubakoitza, bukatuko da eta gazte txokoetako ekintzetan, berriz, apirilaren 11ra arte eman daiteke izena. *Goiena.eus*-en dago egitaraua osorik.

handia egin da hor, irakasleek ikasgeletan ondo landu baitute gaia. Lehen aldia izan da horrelako ekimen bat martxan jarri duguna ikastetxeekin elkarlanean. Oso emaitza ona utzi du, eta, beraz, oso eskertuta gaude".

Fuentesek gaineratu du horrelako ekimen gehiago daudenean elkarlanean aritzeko aukera zabaldu dela. "Ikastetxeekin egindako elkarlana oso modu positiboan baloratzen dugu eta ikusi dugu aproposa izan daitekeela aurrera begira ere haiekin elkarlanean jarraitzea, orain arte egin dugun moduan".

Urte amaierarako eginda

Gobernuak 120.000 euroko aurrekontua du bi parkeak berriroko; 40.000 euro Uriberako eta 80.000 Legarrarako. Fuentesek adierazi duenez, orain lehiaketa publikora aterako dituzte bi proiektuak eta enpresei exijituko diete aukeraturako diseinuak oinarri hartzeko. "Baditugu parkea osatuko duten elementuen tamainak eta ezaugarriak, eta enpresek horretan oinarritu

2.306 boto; gehienak, ikastetxeetatik

Nabarmentzekoa da 2.306 boto horietatik 2.091 ikastetxeetatik eman dituztela.

Legarra plaza:

Erdi Aroko Hiria:	364.
Gurpil&Biribil:	285.
Parke inklusiboa2:	119.
Akelarrea:	117.
Hiriko loretxoa:	117.
Altxorraren bila:	47.
Deba Ibaia:	36.
Lurretik izarretara:	33.
Parke inklusiboa1:	29.
Erronka:	25.
Paseoa oihanean:	18.
Emozio irlak:	17.
Abentura naturan:	13.
Zeruan jolastu:	8.

Uribe auzoa:

Kaleidoskopioa:	352
Jolas librea:	268
Udalatx mendia:	107
Parke inklusiboa:	79
Abentura naturan:	69
Dibertsioaren basoa:	49
Basoko etxolak:	37
Beti hegan:	33
Espaziotik bidaia:	30
Artea parkean:	18
Paradisu txikia:	13
Abentura miniaturan:	12
Zeruan jolastu:	11

behar dute. Agian, kolorean ez hainbeste, baina formetan eta tamainan ezaugarri berberak izan behar dituzte parkeek". Aurreikuspena da lanak irailean hastea, eta bi hilabeteen bukatzea, urte amaierarako.

Seme-alaben emozioak aztergai eguaztenean

Emozioen garrantzia familian. Zelan zaindu seme-alaben emozioak hitzaldia egingo du Donna Apellaniz terapeuta emozionalak eguaztenean, apirilaren 6an, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan. Aldundiak eta Udalak elkarlanean bultzatutako Treba Gurasoak programaren baitako saioa izango da. Seme-alaben emozioek egunerokoan duten

garrantzia azpimarratuko du Apellanizek, "eta horiek kudeatzeko eta zaintzeko lehen urratsak" azalduko ditu.

Bestalde, hitzaldiarekin lortu nahi dutena da adimen emozionalera hurbiltzea: "Emozioak zer diren jakitea, hauen funtzioak ezagutzea eta kudeatzen ikastea, bidelagun emozionalak izateko beharrezkoak diren tresnak ezagutzea eta familian adimen emozionala garatzeko baliabideen berri izatea". Izena eman behar da, udal webgunean.



'Aurrera Bolie Herri Ekimena' sortu dute

"Duela 60 urte belaunaldi oso batek Euskal Herrian bultzatu zuen pizkundearen oinarriak gaurkotzeko asmoz" jaio da egitasmoa. Apirilaren 8an, 19:00etan, egingo dute aurkezpen ekitaldia, Amaia antzokian. Spot batekin iragarri dute ekimena

Hasier Larrea ARRASATE

Arrasate mailan sortutakoa da *Aurrera Bolie Herri Ekimena*. Marka propioa duen egitasmoa da, memoria ariketa bat egiteko nahian oinarritzen dena. Zehazki, 60ko hamarkadako euskal belaunaldiaren erroetara jotzen du. "Euskal Herria askatzeko asmoz belaunaldi hark konpromiso, elkartzunez eta ezkerreko abertzaletasunetik ekin zion lanari. Euskal matxinadaren sorreratik hamarkadak pasa badira ere, aurreko belaunaldiek utzitako ondarea hartu eta berriazte dagokigu gaur", azaldu dute antolatzaileek. Beraz, balio horiek "berreskuratzean"



Iragarkian, herritar talde bat *bolie*-ri eusten. 'AURRERA BOLIE HERRI EKIMENA'

eta "orduko helburu berberak ditugula ikustean" datza ekimena: "Hau da, Euskal Herriaren burujabetzan esparru desberdinetatik eragiten jarraitzea da asmo nagusia, eta horretarako, indarrak pilatzea da gakoa".

Ideia horiek irudikatzen, ekimenaren iragarkia kaleratu dute asteon *-goiena.eus*-en dago ikusgai-, non herritar talde batek bola erraldoi bati bultzatzen egiten dion: "Bola belaunaldiz belaunaldi transmititzen eta eraldatzen doa; gaur egungo bola belaunaldi gazteek osatzen dute".

Aurkezpena, apirilaren 8an

Dinamika berri horren aurkezpen ekitaldia apirilaren 8an, barikua, egingo dute, Amaia antzokian, 19:00etan hasita. Bi saiotan garatuko dute deialdia: lehenengo zatia barne-mailakoa izango da; eta bigarrena, librea, publiko orori begirakoa. Bertan, Herri Ekimenaren manifestua aurkeztu eta aurrera begira garatuko duten ibilbidearen berri emango dute, besteak beste. Musikarekin lagundutako ekitaldia izango dela aurreratu dute antolatzaileek.

Reincidentes eta Dientes de Luna, San Andresko jaietan

San Andresko jaien bereizgarrietako bat izan ohi da zapatu gaueko kontzertura talde entzutsuak gonbidatzen dituztela. Aurten, apirilaren 30ean egingo dute ekitaldi hori, eta Reincidentes andaluziarrak eta Dientes de Luna gernikarrak izango dira Gudarien plazako oholtzara igoko diren protagonistak. Aparteko rock gaua, beraz, auzoko jai batzordeak programatu duena.

Aurretik, baina, izango da zertaz gozatu. Auzo bazkarian, esaterako, haurrentzako eta helduendako menu erakargarria prestatuko dute. Otordurako txartelak San Andresko hamai-ka tabernatan daude salgai jadanik.

Bestalde, gaur eta bihar ospatuko dituzte Altamira auzoko jaiak. Taberna irekierarekin batera gaur iluntzerako iragarri dute haurrentzako zinema *-bertan behar geratu da kronoskaldia-*. Bihar, egun osoz murgilduko da auzoa jai-giroan.

aurrekontu parte hartzaileak
2021-2022

PROIEKTUAK

bozkatu

www.arrasate.eus
500.000€



Arrasatek proposatu eta erabaki!

1. Pumptrack-a San Kristobalen: bizikleta eta patineleentzako zirkuitua	125.000€
2. Aramaio erreka ondo bidegorria argiztatu (Alecopetik Markuletera)	120.000€
3. Gipuzkoa etorbideko zebra-bideak argiztatu eta egokitu	115.000€
4. Skate parkea Uribarrin	100.000€
5. Arrasaten euskararen memoria jasotzeko proiektua	65.000€
6. Bizikletentzako aparkaleku seguruak	60.000€
7. Komun publikoak jarri Itxaropena eta Nao Santiagoko haur parkeetan	60.000€
8. Santa Barbara parkea hobetu: eserlekuak eta zakarontziak beritu	50.000€
9. Arrasateko Udal arxiboaren digitalizazio proiektua	50.000€
10. Calistenia parkea San Josepen: aire librean solinketa egiteko gunea	41.500€
11. Zigarrolako balkoia aisialdirako egokitzea	40.000€
12. Zebra-bideen ikusmena hobetzeko aparkalekuak egokitu	25.000€
13. Arrasateko emakumeen historiaren ikerketa lana	24.000€
14. Erguineko txakurren gunean jolasteko elementuak jarri	18.000€
15. Idazketa tallerak, hiltzaldiak, bisita gidatuak: herriko kultura eskaintza zabaltu	7.600€
16. Kautxuzko topeak jarri Gipuzkoa etorbideko aparkalekuetan	1.800€



NOLA BOZKATU?

Online: www.arrasate.eus/partaidetza

Aurrez aurre: BAZ, Kulturete, Etxaluze eta Kirolegia.

Nahi beste proiektu baloratu irizpide hauen arabera:



Asko gustatzen zait



Gustatzen zait



Ez nau asetzen



Ez nuke egingo



NOIZ?

Martxoaren 25etik apirilaren 10era



NORK?

Arrasaten erroldatuta dauden 10 urtetik gorako arrasatear guztiak (2012an jaiotakoak barne). NAN ez duten adin txikikoek BAZen presentzialki eta edozein dokumentu identifikagarri aurkeztuta (liburutegiko txartela, kirol txartela, familia, liburua...).

www.arrasate.eus



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONERÓN



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Ibai-arte merkatarien elkarteko hainbat ordezkari, eguazteneko prentsa agerraldian, Amaia antzokiko sarreran. E.A.

Amaia antzokian egingo dute, azkenean, desfilea

Ibai-arte lehenengoz egingo du moda desfilea bihar, zapatua. Azaro amaieran ziren egitekoak, baina bertan behera utzi behar izan zuten, eguraldi txarragatik. Oraingoan ere eguraldiak ez du lagunduko, eta, beraz, Amaia antzokian egingo dute, 19:00etan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Imanol Gallegok aurkeztuko du saioa, eta Ibai-arteak hamabost komertziok erakutsiko dituzte euren produktuak. Modeloei dagokienez, 60 bat boluntario eta lau profesional ariko dira pasarelan. "Hori da berezitasun garrantzitsua, etxeko modeloak izango direla modelo gehienak", nabarmendu du Jon Apraizek, elkarteko kideak.

Merkatari batzuek euren modeloak lortu dituzte, eta deialdia ere egin zuen elkarteak. "Arrasatearrak bakarrik ez, kanpotik ere badatoz modelo batzuk. Izan ere, dei asko jaso ditugu kanpotik, baina batzuei ezetz esan behar izan diegu, jende nahikoa dugulako", dio Apraizek.

Ibai-arte inkesta bat egin du bezeroen iritzia jasotzeko, eta 500 erantzunetik gora jaso ditu. Erantzun horien arabera, azken urteetan bezeroaren ohiturak asko aldatu dira eta pandemiak are nabarmenago utzi ditu aldatuta horiek. "Lehen, herrita-

rrak dendaz denda joaten ziren, erosi beharreko arropa edo dena delakoa ikusi, aztertu eta baloratzeko. Azken boladan, geroz eta gutxiago egiten da hori eta bezeroak beharra dagoenean bakarrik sartzen dira establezimenduetara; hau da, zuzenean erostera bakarrik sartzen dira".

Askotariko produktuak ikusgai

Hori dela eta, merkatariak sargai dituzten produktuak herritarrei erakustea gura du elkarteak, eta hori da, hain zuzen, moda desfilearen helburua. Esan moduan, hamabost komertziok hartuko dute parte: Ume, Bea Lentzeria, Tipi-Tapa, Portaloik Optika, Ennea, Promise, Josle, Kapikua, Elkorro Bisuteria, Sikol,

60 BAT MODELOK HARTUKO DUTE PARTE BIHARKO DESFILEAN; ARRASATEARRAK DIRA GEHIENAK

Resusta Karrikiri, Zubiaga, Kili-Kolo, Troko eta Markiegi. Hala, askotaraiko produktuak egongo dira ikusgai pasarelan, nahiz eta gehiengoak arropa, lentzeria eta bitxiak izango diren. Halaber, sei modelo aterako dira komertzio bakoitzeko, eta ordu eta erdi inguruko saioa izango da: "Asko jota, bi ordukoa".

Merkatariak, gogotsu

Beatriz Etxabe, elkarteko presidente izateaz gain, Bea lentzeria dendako arduraduna ere bada, eta adierazi du Arrasaten dituzten produktuak erakusteko balioko duela desfileak. "Era horretan, herritarrak animatuko ditu produktu horiek erostera edo, besterik ez bada, komertzioetara etortzera".

Resusta-Karrikiri komertzio Arantza Arantzabalek ere uste du onuragarria dela desfilea, "herritarrek bertan dituzten produktuak ezagutzeko eta ez daitezen kanpora joan herrian daukatena erostera".

NIRE USTEZ



ITSASO ERRETOLATZA

Handia Almodena

Giza geografiaren atlas-ean, haize zailek darraite, *ogiari musuak emateraino. Luluren adin-ekoak dira gaizkien daramatenak, Garcia doktorearen paziente bilakatu arte.*

ZelenskInes eta alaitasunak mantentzen dituzte kartoizko gazteluak zutik amaiera gabeko gerra honen pasarteetan.

Azkenean, FrankesPutin-en ama-k izango du guztiaren errua, avotx batzuek dioten moduan, feminista dira ama eta alabak dituztela eta, emakume eredu hurbil daukatelako...

Holakoekin, Atotxako birjinari ere bihotza izoztu-ko liezaioke eta Manolitaren hiru ezkontzak ez lirakeke posible izango.

Julio Vernerren irakurle-en bidetik, Malena tango izena duen herrialdera bidaiatzea besterik ez da gelditzen, gerratik urrun alde egitea, alegia, Mariano Bidasoan geratu arren.

Halaxe laguntzen digute irakurketek mundu honetako axolagabekerietatik ihes egin eta momentuaz gozatzeko.

Irakurtzeak isolamenduari aurre egin, kulturak ulertu, harremanak hobetu eta begirada zabaltzen lagun diezaguke, eta, aldi berean, premiazkoa dugun sormena suspertzen.

Erriberara irteera egingo du Abaroak apirilaren 28an

Martzillan geldialdia egin ostean, Agustindar Errekoletoen Ordeneren komentua bisitatuko dute. Gero, Martzillako gaztelua eza-gutu ondoren, Azagrako Hostal Venecian egingo dute bazkaria. Izen-emateak apirilaren 4an egingo dituzte, 10:30ean, eta prezioa 35 euro izango da. Tiketak apirilaren 25ean, astelehena, jaso beharko dira, 11:00etan.

Hainbat ekintza gaur, Korrika Arrasatek pasako dela baliatuz

Gaur, 13:17an pasatuko da Korrika Portaloitik. Horren harira, ekintzak izango dira: batetik, 19:30ean, Nikotinaren emanaldia izango da Iratin (Ikus 14. orria); bestetik, 22:00etan, gaztetxean Korrikaraokea eta kuleru, tanga eta galtzontzilo lasterketa egingo dute. Bestalde, Korrika Txikia martitzenera atzeratu dute: 10:00etan hasiko da, San Isidron.

OHARRAK

Ludoteka ibiltaria Erguin auzora mugituko da

Apirilaren 2an, 9an eta 30ean eta maiatzaren 7an Erguin auzoan egingo du Txatxilipurdi Elkarteak ludoteka ibiltaria, Itzaropena plazan, 11:30etik 13:30era. 3 eta 12 urte artekoek zuzendutako ekimena da, "euskaraz jolasteko eta ondo pasatzeko".

Ziar Ola elkartearen batzar orokorra domekan

Zuzendaritza Batzordeak bere bazkideei jakinarazten die domekan, apirilaren 3an, batzar orokorra egingo dutela. Lehen deialdia 10:00etan izango da eta bigarrena, 10:30ean.

Elorriotik Arrasatera mendi martxa domekan

AGAKOk antolatuta, AHTaren aurkako mendi martxa egingo dute domekan, Elorriotik abiatuta, eta "txikizio erraldoi" horren obrak ikusiko dituzte. Gero, Irati tabernan bazkaldu ostean, musika izango dute 17:00etan; eta 19:00etan, elkarretaratzea egingo dute plazan.

250 astigar landatu dituzte Besaiden

Basoa Fundazioak eta Euskotrenek Zuri esker, jasangarria da Euskotren ekimenaren baitan 2016an sinatutako lankidetzako akordioari esker egin dute landaketa Besaideko mendian.

Lasterketen zaporea dastatzeko irrikaz

Dorletako Ama txirrindulari taldeko benjamin, alebin eta infantil kategorietako ziklistak bi urteko geldialdia atzean utzi eta errepedeko norgehiagoketara itzuli ziren joan den asteburuan; batzuentzat lehen aldia izango dela-eta, "gogotsu eta pozik" dago taldea

Hasier Larrea ARRASATE

Goiz eta arratsalde berezia bizi izan zuten joan den zapatuan Dorletako Ama txirrindulari eskolako partaide gazteenek. Lehenik eta behin, errepedeko denboraldi berriari begirako aurkezpen-ekitaldia egin zuten euren babesle JMA enpresaren lantegiaren parean, Julen Axpe eta Mikel Iribekamos entrena-tzaileekin batera. Bazkalostean, Oñatiko lasterketan hartu zuten parte, baita maila itzela erakutsi ere, hiru kategorietan poltsikoratu baitzuten lehen postua: benjaminetan, Nile Agirretxe izan zen nesken artean bizkorrena; alebinetan, Ainhoa Plaza eta Izaro Ezpeleta sailkatu ziren aurrenak; eta infantiletan, Unai Ormaetxea nagusitu zen mutilen artean.

Emaitzak ikusita, ulertzekoa da Dorletako Amakoen poza: "Txirrindulari guztiek erakutsi dute jarrera ezin hobea; arratsalde ederra pasa dugu, ikaragarri gozatu baitugu lasterketaz".

"Taldea-lana helburu"

Aurkezpen-ekitaldian, Iribekamos entrena-tzaileak taldekideen lehiatzeko gose handia goraiatu zuen: "Askorendako, lasterketan parte hartuko duten lehen denboraldia izango da, pandemiak jotako bi urte hautan ez baitute lehiatzeko aukerarik izan. Jende jatorrarekin talde txukuna osatu dugu aurten, eta pozik gaude entrenamenduetan erakusten ari diren jarrerarekin".

Hastapen-urteak direla kontuan hartuta, "errepedean guztiok taldean joaten ikastea" jarri dute helburutzat.

Probak, Gipuzkoako herrietan

Eskola-mailan ari diren txirrindulariek Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak antolatzen dituen lasterketetan hartuko dute parte. Denboraldia Antzuo-

lan amaituko dute, ekainaren 18an. Bien bitartean, datorren hitzordua Mendaron izango dute, apirilaren 23an; Bergaran, Andoainen, Azpeitian eta Azkoitian ere arituko dira bi gorpilengainean. Oñatiko emaitzak ikusita, Iribekamos adierazi du "bolada onarekin jarraitzen" saiatuko direla.

22 ziklistaz osatutako taldea

Urtean zehar ziklo-kroseean eta mendi-bizikleta modalitatean ibili ostean, honako hauek dira udaberriaren errepedean arituko diren Dorletako Amako kideak:

Benjaminetan:

- Oinatz Bailez.
- Xabi Lasaga.
- Auritz Garai.
- Oinatz Garro.
- Nile Agirretxe.

Alebinetan:

- Oxel Kortabarria
- Itoitz Olaziregi
- Peru Herrasti
- Ainhoa Plaza
- Markel Diaz
- Maialen Sancho
- Izaro Ezpeleta
- Katixa Navarro
- Aimar Etxaniz

Infantiletan:

- Beñat Plaza
- Eñaut Garai
- Eñaut Olaziregi
- Lier Torres
- Markel Lopez de Muniain
- Unai Ormaetxea
- Izortz Llodio
- Manex Larrañaga



Dorletako Amako lasterkariak, taldearen aurkezpen-ekitaldian. XABIER URZELAI

Lanbide Heziketa PRIMERAKO AUKERA

GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka 2022

2022
Apirilak 6-7

PT Garaia Arrasate

Debagoienean

1.600 IKASLE 7 Ikastetxe

25 Ziklo

ZATOZ LANBIDE HEZIKETA EZAGUTZERA !



Asun Agiriano eta Ane Berasategi, Udal Bibliotekan, Liburuaren Eguneko egitaraua erakusten. SAIOA OJANGUREN

Ekintza-sorta, Liburuaren Eguna ondo ospatzeko

Apirilaren 23an ospatzen da Liburuaren Nazioarteko Eguna, eta, azken bi hamarkadetan egin bezala, Udal Bibliotekak egitaraua antolatu du apiril osorako. Hain zuzen ere, gaur emango diote hasiera, 'Yogipuinak' jarduerarekin

Hasier Larrea ARRASATE

"Egitarau zabala osatzen eta adin-tarte askotariko herritarrei zuzendutako proposamenak biltzen" saiatu dira aurrean ere Udal Bibliotekako langileak. Hori ez ezik, "ekitaldi erakar-garriak" programatzea lortu dute, literaturaren munduarekin lotutako balioak behar bezala ordezkatzeko.

Ipuinak jolas

Hala, lehen bi ekintzak etxeko txikiei begirakoak izango dira. 5 urtetik gorako haurrei zuzendutako *Yogipuinak* saioa egingo du Kulturaten gaur, 18:00etan hasita, Maite Arrese kontalariak. Beasaindarrak lehen aldiz aurkeztuko du ipuinak eta yoga uztartzen dituen jarduera Arrasaten. Bertan parte hartzeko plazaren bat geratzen ote den jakiteko, *arrasate.eus* atariko *Udal Biblioteka* atalean begiratzea komeni da.

Hurrengo ekitaldia, oster, Santa Marinako bibliotekan

egingo dute, hilaren 8an, barikua. Xabier Olosa gonbidatuak haur poesia jolas bihurtuko du 3 eta 6 urte arteko haurren gozamenarako, *Tximeletrak airera* izenburua jarri dioten saioan. Poeta bizkaitarra egona da Udal Bibliotekako egitarauaren batean lehendik ere, bere lana estimatzen duten seinale.

Herriko idazleen plaza

Apirileko azken ostiralean borbilduko dute Liburuaren Egunaren bueltako zikloa; modu berezian, gainera. Izan ere, Arrasateko sortzaileentzat gorde dute egun hori, helduek "ikuskizun indartsu batez" gozatu dezaten. Zehatzago esateko, herriko bost idazlek –Marian Porcel, Eneko

**IPUINAK, HAUR-
POESIA, LITERATURA
ETA ILUSTRAZIOA
JORRATUKO DITUZTE,
"MODU BEREZIAN"**

Barberena, Maria Osés, Arantza Otaduy eta Iker Barandiaran-euren lanak partekatuko dituzte publikoarekin, eurek idatzitako lanen pasarte bat jendaurrean irakurri. Bien bitartean, Jokin Mitxelena ilustratzaileak hitzak irudi bihurtuko ditu, Kulturateko areto nagusian bertan, zuzen-zuzenean. *HitzArtea KMO* titulua jarri diote ekitaldiari, eta Judit Ruiz de Munain arduratuko da ikuskizuna gidatzeaz. Udal Bibliotekako ordezkariak hauxe esan dute: "Aretxabaletan garatu zuten formatu hau iaz, eta hortik jaso genuen ideia. Literatura eta ilustrazioa uztartzen dituen ekimena denez, aukera ematen du herriko sortzaileen lana ezagutzeko".

"Ilusioz" egindako lana

Literaturarekin lotutako proposamen bereziak egingo dira, beraz, arrasatearren eskura datozen egunotan. "Beti" bezala, oraingoan ere harrera ona jasotzea espero dute antolatzaileek.

Tragikomedia arrakastatsua ekarriko dute Amaia domekan

'Semea pixka bat motelago dabil soilik' antzezlanaren aurkeztuko du Tanttaka konpainiak, 19:30ean hasita

H.L. ARRASATE

Balkanetako Ivor Martinic antzerkigileak idatzitako antzezlanaren eskainiko du Tanttaka taldeak Amaia antzokian domeka arratsaldean. Familia baten istorioa kontatuko du, zeinetan 25 urte bete dituen semeak oinez ibiltzeko gero eta traba gehiago dituen. Ondorioz, aulki gurpilduna erabiltzen hasten da, eta horrek mina eragiten dio amari, ez baitio uzten egunerokotasunean aurrera egiten, nahiz eta behin eta berriz saiatu. Mireia Gabilondo bergararrak antzeztzen du amaren papera, eta, haren esanetan, "ikusle asko identifikatuta sentituko dira tramarekin, eta pertsonaiekin maitemindu egingo dira asko".

Hamar aktore

Izan ere, esperientzia handiko aktoreek osatzen dute obra; tar-



Antzezlanean une bat. MIKEL MARTINEZ

tean, Martxelo Rubiok, Jose Ramon Soroizek, Klara Badiolak, Dorleta Urretabizkaia eta Asier Hernandezek. Gazteen presentzia ere nabarmena da, Miren Arrieta, Ander Iruretagoiena, Xabi *Jabato* Lopez eta Maria Redondoren parte hartzearekin.

Apirileko lehen eta azken ostegunetan izango da Kooltur

Merina Gris eta Cerebral Effusion taldeak izango dira apirileko Koolturen egitarauko protagonistak. Lehenek datorren egunean, hilaren 7an, joko dute. 2020tik martxan dagoen hirukote donostiarrak pop *biolento* bezala izendatu du bere estiloa. Doinu melodikoak soinu elektronikoen nahastean dituzte, eta gaur egun gazte izateak da-

kartzan arazoak azaleratu abestietan; itxurakeria, esaterako.

Apirilaren 28an, berriz, Ermutik etorriko dira brutal death metalaren munduan erreferentiek diren Cerebral Effusion-eko lau musikariak. 1997an ekin zion taldeak ibilbideari, eta, ordutik hona, makina bat herrialdetan aritu dira argitaratutako lanak zuzenekoetan aurkeztzen. Azkena iaz kaleratu zuten, *Ominous Flesh Discipline* izenpean. Bi emanaldiak 22:00etan hasiko dira.

Arrasate Musikaleko ikasleek bi saio egingo dituzte

Aste Santuko oporraldiaren aurretik bi hitzordu antolatu ditu musika eskolak: apirilaren 5ean, gitarra elektrikoko konboaren doinuak egingo dira entzungai Monterron jauregian, 18:00etan hasita; eta, bestetik, apirilaren 8an, eskolako ikasleek bigarren hiruhilekoko kontzertua egingo dute Kulturateko areto nagusian, 18:30ean.

Nikotinak rap ikuskizuna emango du Irati topalekuan

Kontzertua gaur izango da, arratsaldeko zazpitan hasita. Tolo-sar jatorrikoa den Jon Tolosa Belza da Nikotinako arima. Bidegabekeriez mintzo den abesti itsaskorretan reggae eta dancehall doinuak igarri daitezke. 2018an lehenengo diskoa kaleratu ostean, aurrean *Nirvana* izeneko bigarren lana ari da aurkeztzen plazaz plaza.



DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabari 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

"Eroso sentitzeko herria eraikitzea da asmoa"

AINARA TOMASENA EUSKADI LAGUNKOIA EGITASMOKO KIDEA

Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako Euskadi Lagunkoia egitasmoa aurkeztu zuen astelehenean Tomasena. Orain, aramaioarren esku dago taldea sortzea

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Egitasmoaren helburuak, lan-metodologia eta nondik norakoak azaldu zituen Ainara Tomasena erretiratuen elkartearen.

Zer da, zehazki, Euskadi Lagunkoia egitasmoa?

Euskadi Lagunkoia Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen proiektu bat da eta bere helburua da herritarren parte hartzea bultzatzea gure herriak, gure auzoak eta ingurunea hobetzen joateko, pixkanaka-pixkanaka; era horretan, zahartzen goazan heinean gure herrian bizitzeko aukera izatea, eta ondo bizitzeko, bizi-kalitate onarekin. Gure autonomia bultzatuko duen ingurune batean bizitzeko aukera izatea.

Erretiratuei zuzendutako egitasmoa dela esan daiteke?

Proiektuak helburua du adineko pertsonen begiradatik aztertzeko herria eta haiek inplikatzeko herria hobetzen. Nahiz eta egitasmoak adineko pertsonen begirada bultzatu, egia da herritar guztiei egiten diela onura. Herritar guztiek dute parte hartzeko aukera, ze adineko pertsonendako hobetzen den guztia herritar guztiek jasoko dute. Azken finean, eroso eta ondo sentituko garen herri bat guztien artean eraikitzen joatea da.

Zortzi ikerketa edo ekintza eremu zehaztu dituzue.

Arlo ezberdinak baloratzen dira, eta dira gure eguneroko bizitzarekin zerikusia duten arloak. Ingurune fisikoarekin zerikusia dutenak dira aire libreko espazioak, etxebizitza eta garraioa; inguru sozialarekin zerikusia dutenak dira parte-hartzea, gizarte sarea, eta errespetua eta inklusioa; eta beste bi zerbitzuekin lotuta daude, komunikazioa eta informazioa, eta gizarte zerbitzuak eta osasun zerbitzuak.

Euskadi Lagunkoia sortu eta aurrera egiteko zer egin behar da? Proiektu honen funtsa da herrian talde eragile bat sortzea. Herri-

tarren inplikazioa behar-beharrezkoa da. Talde eragile bat sortzen bada herrian, udala beti egongo da bidelagun. Bileraren helburua izan da ikustea ea badagoen interesik, ea herritarrek beharrik sentitzen duten horrelako zerbait martxan jartzeko herrian.

Nola hobetzen du herria?

Hobekuntzak hainbat eratarikusten dira. Izan ere, askotan, begirada joaten zaigu espazio fisikora, urbanistikoki egiten den guztiak atentzioa ematen du edo gehiago ikusten da. Edozelan ere, asko hobetzen dira herritarren arteko harremanak, belaunaldien arteko harremanak ere hobetzen ditu... Alegia, onurak askotarikoak dira. Eta udalarendako ere ona da edukitzea herritar talde bat beste begirada batetik proposamenak egiten; herria hobetzeko zer

"HERRI TXIKIAK LAGUNKOIAGOAK IZATEN DIRA ADINEKO PERTSONEKIKO HERRI HANDIAK BAINO"



Ainara Tomasena, erretiratuen elkartearen aurrealdean. A.E.G.

egin behar den proposatuko dutenak.

Aramaio moduko herri txiki batean eragina berbera da?

Askotan, uste izaten da herri handietan zerbitzuetara edo proiektuetara bideratzeko diru gehiago dagoela, baina errealtatea da herri txikietan elkarri laguntzea modu naturalean gertatzen dela. Boluntariora, akaso, ez dago formalizatuta, baina egunerokotasunean egin egiten da, eta komentatu dugun moduan: antena izate hori, ingurukoari ze pasatzen zaion... gauza horiek era naturalean gertatzen dira. Berez, herri txikiak lagunkoioak izaten dira adineko pertsonetikiko herri handiak baino. Aramaio moduko herri batek badu ibilbide bat eginda; hortaz, orain, zer gehiago egin daitekeen zehaztea da.

Taldea sortzeko zer egin beharko litzateke?

Talde eragile bat sortuz gero, udalak bere atxikimendua sinatu beharko luke Eusko Jaurlaritzarekin, eta hortik aurrera Euskadi Lagunkoia sarearen barnean egongo litzateke eta proiektua martxan hasiko litzateke.



2021eko sarituak. TXIRRITOLA

Ipuin eta mikroipuin lehiaketak abian ditu Txirritola elkarteak

Euskarazko lanak izan beharko dute, eta argitaratu gabeak; lanak apirilaren 27ra arte aurkez daitezke

A.E.G. ARAMAIO

Txirritola Euskara Elkarteak literatura lehiaketari eutsi dio aurten ere. Ohikoa den ipuin lehiaketaz gain, iaz estreinatutako mikroipuin lehiaketa ere abian jarri dute. Lanak aurkezteko epea zabalik dago, apirilaren 27ra arte.

Ipuin lehiaketa eskolako gattetxoei zuzenduta egongo da. Bi sail izango ditu: lehenengo ziklokoek taldeka aurkeztuko dute ipuina eta bigarren ziklokoek banakako lanak aurkeztu beharko dituzte.

Mikroipuinak

Iaz estreinatutako mikroipuin saila: gehienez, 100 hitzez osatutako lanak. Bada, aurten ere aurrera egingo dute mikroipuin sailarekin. Edozein aramaioarrek parte har dezake lehiaketan. Gaia librea izango da, eta testuek euskarazkoak eta argitaratu gabekoak izan beharko dute. Lanak karta-azal batean sartu behar dira, *Txirritola ipuin lehiaketa* izenarekin, eta barruan idatzi izen-abizenak, jaiotza-data eta telefonoa edo posta elektronikoa helbidea.

Desgaitasuna duten haurrei eta gazteei zuzendutako aisialdia

Foru Aldundiak bi programa aurkeztu ditu: Atsedean eta Aisialdi; izena emateko epea zabalik dago bi kasuetan

A.E.G. ARAMAIO

Desgaitasuna duten haurrei eta gazteei zuzendutako Aisialdi eta Atsedean programak aurkeztu ditu Arabako Foru Aldundiak. Aisialdi programa abuztuaren lehen hamabostaldian egingo da, Barriko aterpetxean; eta Atsedean programa, maiatza eta urria bitartean, Barriko eta Espejoko aterpetxeetan. 7 eta 30 urte bitarteko haurrei eta gazteei zuzenduta dago. Parte hartu ahal izateko baldintzeta bat da mendekotasun edo ezgaitasun egoerak aitortuta izatea eta osasun laguntzaren beharrak ez gainditzea kontratatuko profesionalen prestakuntza akademikoetatik eman daitezkeen zaintzak.

Aisialdi programa

Aisialdi programak 122,44 euroko koordainketa izango du era-

biltzaileko, aste bakoitzean. Arabako Foru Aldundiak ordainduko ditu gainerako gastuak. Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 31n, 14:00etan, amaituko da. Plazak esleitu dira lehenetasun-irizpide batzuen arabera: mendekotasun maila handiagoa dutenendako, desgaitasun ehuneko handiagoa dutenendako eta aulki gurgilduna erabiltzen dutenendako tokia egongo da.

Atsedean programa

Atsedean programaren kasuan, familia bakoitzak hiru asteburu aukeratu ahal izango ditu, gehienez. 51 euroko koordainketa izango du erabiltzaileko asteburu bakoitzean. Kasu horretan, eskabideak aurkezteko epea datorren astean amaituko da; hain zuzen, apirilaren 5ean. Informazio gehiago, udaletxeko Gizarte Zerbitzuan.

Aramaioko argitalpenek badute beren txokoa

Herriarekin eta inguruarekin lotutako dokumentuak daude Aramaioko liburutegian osatu duten apalategian. Gainera, digitalizatuta dauden dokumentuak web atarian ere badaude; hain zuzen ere, aktibatu berri duten 'Aramaioko ezagutu' atalean

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aramaioko herriarekin zerikusia duten edo Aramaioko herriarrek idatzitako liburuak eta argitalpenak batuko dituen txokoa prestatu dute Aramaioko liburutegian. Aurrerantzean, beraz, argitalpen horiek guztiek txoko berezia izango dute. "Herriar baten, hain zuzen, Sabin Salaberriren proposamena jaso genuen. Aramaioko argitalpenen txokoa egitea proposatu zigun", azaldu du Kultura zinegotzi Ana Martiarenak.

Hilabeteetako lana

Proposamena jasota, Olga Jauregi liburuzainarekin hitz egitea izan zen hurrengo pausoa: "Olgarekin hitz egin genuen, eta baiezkota jaso ondoren lan horretan ibili da liburuzaina". Uztail amaieran sartu zen Aramaioko argitalpenen txokoa egitea, eta, gainera, diru partida bat bideratu zen lan horretarako: 2.178 eurokoa.

Txoko horren helburua da Aramaiori buruz zenbat gauza idatzi diren ezagutzera ematea: "Askotan, ez dugu jakiten gure herriari buruz zer idatzi den, eta uste duguna baino gehiago izaten da".

Denetarikoa lanak

Liburuak, artikulak, biografiak... Denetarikoa idatziak daude Aramaioko txokoa. Bizente Goikoetxearen, Gabirel Jauregiren, Martin de Alzagaren, Pedro Ignazio Barrutiaren eta abarren biografiak daude. Horiez gainera, hizkuntzari buruzko artikulak; adibidez, *Aramaioko euskara*, Txipi Ormaetxea Lasagaren doktore tesia. Literatura; zuzenbidea; folklorea; arkeologia; hidrologia; mendi ibilbideak... Gai horiei buruzko artikulak ere badaude.

Liburuak ere asko dira: Txipi Ormaetxearen beraren *Aramaioko euskara*, *Aramaioko Lore*



Liburuzaina, argitalpenen txokoaren aurrealdean. A.E.G.

TXOKO HORREN HELBURUA DA ARAMAIORI BURUZ ZENBAT IDATZI DEN EZAGUTZERA EMATEA

jokoak, Jose Mari Velez de Mendizabalen *Eguzkilo*, Manex Agirrek eta Alex Mendikutek 2018an argitaratutako *Begiz jokatoko koplak*, Julen Arriolabengoaren *Ez jat garbatu...*

Digitalizatuta

Fisikoki liburutegian daude liburu eta artikulak horiek guztiak; baina digitalizatuta dauden lanak web atarian ere badaude. Hain zuzen, Aramaioko Udalararen atarian *Aramaioko ezagutu* atal berria aktibatuta dute, eta hor daude argitalpenak. Gainera, Aramaioko liburutegia Euskadiko Liburutegien Katalogo barruan dago 2004ko irailaz geroztik; beraz, *katalogoak.euskadi.eus* atarian ere badaude.

Liburutegia astelehenetik ostiralera zabaltzen dute, 17:00etatik 19:30era bitartean, hain zuzen ere. Irakurketa eta kontsulta espazioa izateaz gain, beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen ditu bai espazioak eta baita bertako arduradunak ere. Horien artean, liburuzainak hilero liburu proposamenak egiten ditu (Ikus ondoko taulan proposamenak).

Martxoko proposamenak

Liburuak

- **Xirimiri** 0-6 urte bitarteko haurrendako.
- **Basajaun eta munduko beste iletsu batzuk** 6-8 urte bitartekoendako.
- **Biga 3-Errekreazioak klik eta ekin!** 6-8 urte artekoendako.
- **Izarrak ukitu genituen** 12-16 urte bitartekoendako.
- **Yo, vieja** Helduendako liburua.
- **Mandamentu hipermodernoak** Helduendako.

Gasteizko Ibaiondo taldea hartuko du Aramaixo Tropikalak

Ligako 17. jardunaldiko partidua etzi izango da, domeka, 18:00etan, Aramaioko kiroldegian

A.E.G. ARAMAIO

Aramaioko Tropikalak futbol taldeak ligako 17. jardunaldiko partidua izango du domekan, Gasteizko Dinamo Ibaiondo taldearen aurka. Aramaion jokatu dute, 18:00etan, kiroldegian.

Aramaioko taldeak Arabako Zilarrezko Ligan jokatu du. Hamasei jardunaldi jokatu ondoren, ligako lehenengo postuan daude aramaiorrek, 42 punturekin. Bigarren dago Bar Turismo, 37 punturekin, eta hirugarren Dinami Lakuabizkarra, 35 punturekin.

Zilarrezko Liga hamabi taldek osatzen dute. Hala, aste bukaera honetako jardunaldiaren ondoren, beste bost partidu izango dituzte liga amaitzeko. Orain arteko bolada onari eustea izango da aramaiorren nahia, liga lehen postuan amaitzeko.

Ligako postuetan bakarrik ez, gogegileen sailkapenean ere aramaior bat hamar onenen artean dago: Asier del Campo bigarren postuan dago, 27 golekin, sailkapenean lehenengo dagoen Sebastian Andres Perezen gol kopuru berarekin.

Korrika Txikia apirilaren 8ra atzeratu dute

Korrikaren bueltan hainbat ospakizun egitekoak ziren gaur, Aramaion. Besteak beste, eskolako ikasleek eta Alaiak erretiratuaren elkarteko abesbatzak *Herria kantuz* saioa egin behar zuten goizean, eta arratsaldeko lehenengo orduan Korrika Txikia egitekoak ziren eskolako neska-mutikoak. Baina, eguraldi iragarpena ikusita, ekintzok

bertan behera uztea erabaki dute. Hala, gaur ez dute *Herria kantuz* egingo, ezta Korrika Txikia ere. Apirilaren 8ra atzeratzea erabaki dute.

Datorren asteko barikuan izango da. 11:00etan, *Herria kantuz* egingo dute Alaiak erretiratuaren elkarteko abesbatzak eta ikasleek; eta bazkalondoren, Korrika Txikia. Bestalde, gaur arratsalderako antolatutako ekintzek bere horretan jarraitzen dute: 17:00etan Potx magoa eta 19:00etan erromeria.



ARITZ ALUSTIZA

Pasaian, Trikitixa Egunean

Euskal Herriko Trikitixa Eguna ospatu zuten zapatuan Pasaian. Aramaioko trikitilariak eta pandero-joleak han izan ziren; 25 bat lagun, denera. Goizean kalejira egin zuten Pasaian, eta ondoren, bazkaltzera joan ziren Trintxerpera. Arratsaldean, kalejira erraldoia egin zuten Trintxerpeko kaleetan.



Jabier San Miguel, Jokin Antxia, Agurtzane Elkoro eta Adrian Merino, Ibarra futbol zelaian. XABIER URZELAI

Atzera begiratu, aurrera jarraitu

Aretxabaleta kirol elkartearen gidari izandako hamahiru presidente omenduko dituzte domekan, Ibarra futbol zelaian (17:15). Horietako hiruk eta gaur egungoak, Agurtzane Elkoro, UDAREN ibilbidearen eta etorkizunaren gainean jardun dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Irailaz geroztik dihardu UDak 75. urteurrena ospatzen. Eta oraingoan, presidente ohiak omenduko dituzte, domekan, hilaren 3an, Ibarra futbol zelaian. Ohorezko Erregionaleko taldeak Euskaldunaren aurka jokatu duen partiduen atsedendian izango da ekitaldixoa –minutu bateko isilunea ere egingo dute Jose Antonio Zangitu gogoan–; txistulariek lagun eginda urrezko intsignia ezarriko diete hamahiru laguni.

Elkarteak 22 presidente izan ditu, guztira, eta omenaldia jasoko dute bizirik daudenek; hona hemen horiek: Miguel Igartua, Roberto Urreta, Jabier San Miguel, Alberto Arkauz, Eloy Uriarte, Iñigo Olabe, Manolo Zubillaga, Jose Angel Etxeberrarteun, Martin Garai, Jokin Antxia, Eduardo Altube, Juan Mari Enkotege eta Adrian Merino.

JABIER SAN MIGEL

1970 ETA 1972 ARTEAN PRESIDENTE

"Emakumeak sartu ziren zuzendaritza batzordean"

Bi denboralditan izan zen presidente San Migel, baina a ze bi denboraldi. 25 urte bete zituen orduan elkarrekin, eta hori ospatzeko kirol lorpenen bat gura zuela du gogoan: "Urte berezia izaten ahalegindu behar genuela esan nien zuzendaritzako kideei. Baita lortu ere". Lehen denboraldian Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen futbol taldeak, eta bigarrean, ez bat eta ez bi, lau baizik: "Liga lehenengo; gero, Erregionaleko Mailakoa, finala Atotxan jokatu; hirugarrenik, Gipuzkoako afizionatu mailako txapelketa; eta bukatzeko, Espainiakoa, bost kanporaketa

gainditu ostean". Murtzian izan zen partidu hori presidentea bertan zela: "Itzulita koan esan zidaten oso gertuan bizi izan zela Aretxabaletan. Radio Popular irratitik eman zuten eta huraxe entzuten egon ziren herritarrek. Irabazi zue nean, xanpain barik geratu ziren taberna eta elkarte guztiak!".

San Migelek emakumei egin zien lekua zuzendaritza batzordean: "Lehenengo sartu ziren orduan, Lourdes Llodio eta Lucia Arregi. 75. urteurrenean haiekin ere gogoratzeko eskatu dut".

Aurrera begira jarrita proiektuari jarraipena eman behar kirol lioketela uste du: "Pentsa zenbat gazte dabilzan! Eta hori garaipen handia da. Baina txapelketaren bat irabaztea eskatuko nuke, horrek beti pizten du ilusioa".

JOKIN ANTIXIA

1989-1991 ETA 2004-2009 DENBORALDIETAN PRESIDENTE

"Futbol eskola sortzea izan zen lorpenik handiena"

Bi sasoi izan zen presidente Antxia, eta bi sasoi oso ezberdinak izan zirela du gogoan; bereziki, elkartearen funtzionamenduari dagokionez: "Ibarrak belar naturala zuen lehen aldian, eta harekin batera anexoa zegoen entrenamenduetarako. Orain baino talde gutxiago izan arren, zelaia kudeatzea izugarriko lana zen: belarra moztu, sareak jarri, markatu, orain goiko zelaian jokatu behar, orain behean... Instalazioak eztabaidarako kontua ziren une oro". Sasoi hartan, hain zuzen ere, futbol zelaia berriaren proiektua bideratuta utzi zuten eta bigarren aroan guztiz bestelako instalazioa topatu zuten: "Ilunduta ere jokatze eta entrenatzeko aukerarekin, esaterako". Komunikazioan ere aurrerapen handiak gertatu zirela dio –eskuko telefonoak, posta elektronikoa...– eta barneko zein Federazioarekin zuten harremana asko erraztu zuela horrek.

Kirol lorpeni ez die aparteko garrantzirik eman. "Kirola egiteko, ondo pasatzeko eta lagunak egiteko elkarte bat da. Eta, ildo horretatik, uste dut gure sasoi kirol lorpen handiena izan zela futbol eskola sortzea. Ziklo nahi kirolari bukaera eman zitzaion

horrela; izan ere, mutiko batzuk Bizkaira joaten ziren entrenatzera eta horregatik arazoak genituen Aldundiarekin eta Federazioarekin. Hori moztu nahi genuen, baina UDAREN ere ondo zetorkion horiek ikasita itzultzea...". Futbol eskolak sortu zirenean Gipuzkoan "bake soziala" iritsi zela du gogoan.

Umetatik jaso zuen UDAREKIN maitasuna; aita, hain zuzen ere, zuzendaritzan egondakoa zen, eta oso zalea. "Lehenengo sartu nintzenean krisialdi bat zetorrela antzematen zen. Eta gure helburua izan zen UDAREN jarraia izaten ordura arte izandakoa". Ildo horretatik, azken urteetan egindako lana begi onez ikusten du eta aurrera begira dagoen erronkarik handiena orain dauden kirolari etsita berriak ekartzea dela uste du: "Futbola osatuta dago eta afizioa ere badago; horregatik, beste kirol arlo batzuetan egin behar da ahalegina".

ADRIAN MERINO

2013 ETA 2017 ARTEAN PRESIDENTE

"Proiektuetan UDA aurretik joaten saiatu izan da beti"

Presidente izandako sasoiaren egindako lagunei balio handia eman die; betiere, lorpenak ahaztu barik: "Hirugarren mailara igo ginen, futbol zelaia berria egiteko oinarriak ezarri ziren, emakumeen taldea sortu zen bailarako beste herri batzuekin batera, beste kirol sail batzuk bultzatu ziren, digitalizazioan sakondu zen asko, drogaren aurkako kanpainarekin hasi ginen... UDA aurretik joaten saiatu izan da beti".

Emakumeen kirola bultzatzen saiatu izan ziren sasoi hartan; bereziki, futbolekin. Baina asmatu ez izanaren arantzatzkoa du: "80ko hamarkadan hasi zen emakumeekin zerbait egin nahian UDA; gero, Almenekin batera, baita Arizmendirekin ere; eta geroago, bailarako hainbat elkarterekin. Baina ez dugu asmatu oraindik formula zein den".

Pandemiaren eruz "bi urte zail" bizitzea tokatu arren elkarrekin osasuntsu dagoela uste du: "Sekula baino kirolari gehiago daude, lizentzia kopurua urtero gora doa, eta hori da osasunaren erakusgarri. Egia da herri mailako ekitaldiak egi-



San Miguel intsignia jartzen Izagirre lehen presidenteari, 25. urteurrenean. UDA

terik ez dela izan, eta hori pena da. Orain, 75. urteurrenaren bueltan ekintza mordoa daude, eta ea bueltatzen den dinamika hori".

Aurrera begira bidea zehaztuta dagoela dio: orain arte egindako lanari jarraipena eman. "Bizirik dagoen elkarte bat da, herritarrok osatutakoa, eta beharrik beste batzuk baldin badira, hor ere egon beharko da. Beti bezala, aurrera jarrai dezala proiektuekin, herrira begira, eta herriarendako lanean".

AGURTZANE ELKORO
2016A EZKERO PRESIDENTE

"Inoiz baino kirolari gehiago ditugu gaur egun"

UDAk izan duen lehenengo presidente emakumezkoa da Elkoro. Orain dela sei urte hartu zuen haren gidaritzatza eta lehenengo biak Merinorekin batera egin zituen: "Ohorea da emakume izatea hainbeste gizon dagoen elkartean, baina, zalan-tza barik, UDAko presidentea izatea da ohorerik handiena". Eta gustuko tokian ez dela al-daparik dio: "Hauxe da gustuko dudana eta pasioz bizi dut. Eta hainbeste neska-mutil kirola egiten ikusteak bete egiten nau". Hala ere, onartu du neskek askoz gutxiago direla: "Kopuruak gora egin badu ere, oraindik ez da handia. Aukera berberak emanda ere gehiago kostatzen zaigula kirola egitea esango

nuke; bereziki, 17 urtetik gora. Eta taldeko kirola are gutxiago egiten da".

Futbolaren bueltan sortu zen elkarte, 1946an, eta oraindik ere pisu handia du horrek: gaur egun, 610 kirolari ditu eta horietatik 400 baino gehiago daude futboleko. "Oraindik erregea da, eta gurean, are eta gehiago, Gipuzkoako edozein futbol zelaitan ez dago hemen beste kirolari, zale eta bazkide; aretxabaletarren %10 UDAko bazkide dira".

Azken bi urteetan ezin izan da kirolari behar bezala egin, baina hasi dira martxa berreskuratzen: "Bagoaz aurrera, eta, gure us-tearen kontra, inoiz baino kirolari gehiago ditugu". Ekonomia-ri eusteko ere lan asko egin behar dela dio: "Babesleen gertuan egon behar da, bazkideen implikazioa lortu... Eta gero eta zailagoa da". Etorkizunera begira jarrita, kirola eta osasuna bat eginda ikusten ditu: "Benetan garrantzitsua da kirola, derri-gorrezkoa; izan ere, kirola osasuna da, eta poztasuna".

75 urte betetzeak ibilbide luzea dagoela atzean esan gura du, eta horrek harrotzen du: "75 urte samur esaten da, baina erronka handia da. Eta urteetan egindako lanari jarraipena emateko gai izan gara". Horregatik antolatuta dute ospakizunetz betetako urtea: "Taldetxo bat osatu dugu antolaketan lanetarako, eta gustura gabiltza. Ekintza mordoa ditugu oraindik egiteko; izan ere, herriak halako elkarte izatea ospatzeko eta ozen esateko kontua da".

Hogei lagunen eskuetatik pasatuko da lekukoa

Eguerdian, 13:36 eta 13:48an bitartean, pasatuko da Korrika Aretxabaletatik; horren bueltan hainbat ekitaldi antolatu dituzte, baina eguraldiaren erruz moldaketak izan ditu egitarauak: Korrika Txikia atzeratu egin da eta kontzertuak mojetan izango dira

Mirari Altube ARETXABALETA

Atzo abiatu zen 22. Korrikaren lekukoa Amurriotik, eta gaur, apirilak 1, iritsiko da Debagoienara. Aretxabaletan 13:36an sartuko da, Arrasatetik bueltan, eta, herria zeharkatu ondoren, 13:48 inguruan Eskoriatzarantz joango da.

Herriko bi kilometroak –249 eta 250– hogei zatitan banatu dituzte eta herriko hogei elkarte, erakunde eta ikastetxeren ordezkariak eroango dute lekukoa; hona hemen horiek: Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea; herriko elkarte gastronomikoak; Aretxarte; Arteman; Kuartela elkarte; EH Bildu; Garabide; Aretxabaletako Udala; Kurtzebarri eskola; Kurtzebarri BHI; Aratz; Loramendi; Arizmendi ikastola; Pausoka; Goiena; Emakumeak; UDA; Copreci; Mondragon Assembly eta Aretxabaleta Lanbide Eskola.

Kontzertuak, komentuan

Korrikaren bueltan beste hainbat ekintza antolatu ditu Aretxabaletako batzordeak. Eguraldiaren eraginez moldaketak egin behar izan badituzte ere, ekintzok egin egingo direla iragarri dute. Behin lekukoa pasatuta, 17:00etan, umeez jolasak eta tailerrak izango dituzte udaletxe zaharrean.

Argazkigintzaren gaineko ikastaroa apirilean hasita

Argazkigintza digitalean hasteko ikastaroa antolatu du Udalak. Ivan Valle Carrasco argazkilari aretxabaletarrak gidatuko du eta oinarritzko ezagutzak ikasteko, teknika ezberdinak ezagutzeko eta sormena garatzeko aukera izango da. Guztira 30 ordu teoriko-praktiko emango ditu, martitzen eta eguenetan, apirilaren 26an hasita (15:00-



Herritarrek Murugainen joan den zapatuan, Korrikari babesa erakusten. MIRARI ALTUBE

Eta Auzoko taldeko kideek egingo dako txokolata ere bertan banatuko diete.

Oihu taldearen kontzertuak mojen komentuan izango da, 18:00etan. Horiek bukatutakoan, Upeide taldearen txanda etorriko da; komentutik abiatuta kalejira musikatua egingo dute. Beste bi talderen emanaldiak ere izango dira, 21:30ean, Mondragon Unibertsitateak Huhezinema jaialdiaren baitan antolatutakoak: Rukulak Herriko Plazan joko du eta Balarrasak komentuan.

Datorren eguenean, hilaren 7an, izango da azken ekintza: 22. Korrikaren bueltako *Uhinak* dokumentala emango dute Arkupen (18:30).

Korrika Txikia, martitzenean

Gaur goizean egitekoa zen Korrika Txikia, ostera, atzeratu egin dute ikastetxetako ordezkariak. Datorren martitzenean, apirilaren 5ean, izango da, 10:30ean hasita. Pausoka haur eskolako umeez, Kurtzebarri eskolakoek eta Arizmendi ikastolakoek hartuko dute parte.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

17:00); saio teorikoak Arkupen izango dira eta praktikak aste-burutan, irakaslearekin adostuta. Ikastaroa 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta taldeak gutxienez sei eta gehienez hamabi ikasle izan beharko ditu.

Ikastaroaren prezioa 85 eurokoa da eta izena emateko epea gaur, apirilak 1, irekiko dute; Arkupera jo behar da horretarako. Parte hartzeko argazki kamera digital aurreratua eskuzko sistemarekin eraman beharko da.



Ekimenaren antolatzaileak eta parte hartu duten herritarrak, astelehenean, Herriko Plazan. TXOMIN MADINA

Autismoaren Espektroko Nahasteetan fokua bihar

Autismoaren Espektroko Nahastea duen 8 urteko Aner aretxabaletarraren senideen ekimenetik, eta herriaren inplikazioarekin, egitarau zabala prestatu dute. Besteak beste, puzgarriak, artisauen postuak eta paella dastaketa izango dira

Jone Olabarria ARETXABALETA

Datorren zapatua, apirilaren 2a, autismoari buruz kontzientziazeko munduko eguna da, eta, hori horrela, hainbat herritarrek eta eragilek antolatuta, ekintza ugari egongo dira Aretxabaletan.

Oihane Llinares izan da horren guztiaren sustatzailea. Autismoaren espektroko nahastea

duen 8 urteko Aneren amak jaia antolatzearen arrazoiak azaldu ditu: "Nire semea aretxabaletarra delako, herrian bizi delako eta ingurukoek gertatzen zaiona ulertu behar dutelako".

Jaiotzen diren %1ek

Izan ere, Oihane Linares azaldu dudenez, gaur egun jaiotzen

diren haurren %1ek dute autismoaren espektroko nahasteren bat, eta gaiaren inguruko ezjakintasun handia dago: "Ezezagun handia da. Sintoma hain bereziak dituzte, jendeak heziketa txarrarekin edo jarrera kontuekin nahasten du. Horren ondorioz, autismoa duten haurrek pila bat sufritzen dute".

Gauza sinpleak direla uste dugun arren, hainbat jarrerak eragiten duten kalteez ohartarazi du: "Begiratu begietara" esatea edo "egin kasu" bezalakoak oso bortitzak dira beraiendako".

Beharretara moldatuak

Gautenak, espektro autistako nahastea duten pertsonen senideen Gipuzkoako elkarteak, babestuta izango dira zapatuko ekintzak, eta antolatzaileek kontu bereziarekin prestatu dituzte egitarauko jarduerak.

"Jarduerak euren beharretara moldatu eta bideratu nahi izan dira, zaratak eta horrelakoak alde batera lagata hainbat guretan antolatu dira ekintzak", azaldu du antolakuntzan dabilen Idoia Elexpuruk.

Kolore urdina ardatz

Aretxabaletako Udalak ere bat egin nahi izan du biharko ekimenarekin, eta autismoaren espektroko nahasmenaren ikur den kolore urdinarekin lotuta deialdi berezia egin dute bertatik.

"Gure leihoak eta balkoiak apur bat apaintzeko, kolore urdineko zerbait jartzera animatzen ditugu herritarrak. Denok laguntzeko prest gaudela erakutsi nahi dugu moduren batean ere, ikasteko eta ulertzeko zer den Autismoaren espektroko nahastea", azaldu du Aretxabaletako Udaleko Kultura zinegotzi Ainhoa Caberok.

Gainera, dozena bat artisauk postuak jarriko dituzte Mitarte eta Durana kaleetan goizean. Paella dastaketarako txartelak Kilokan eta Belar Metan egongo dira salgai.

Egun osoko egitaraua zapatarako

- **11:00-14:00** Puzgarriak, Iturrigorri pilotalekuan.
- **11:30** Karaokea, Iturrigorri pilotalekuan.
- **12:30** Aretxabaleta Abesbatza, Mitarten.
- **13:00** Jaiki Elkartearen erakustaldia, Mitarten.
- **14:30** Paella dastaketa, Herriko Plazan.
- **16:30** Aurpegiak margotzeko haurrentzako tailerra, Dagda taberna ondoko plazatxoan.
- **17:30** The Song (blues) taldearen kontzertua, Hirusta taberna ondoko plazan.
- **19:30** Demonio de Niño taldearen kontzertua, Herriko Plazan.
- **20:30** Saskiaren zozketa.
- **21:00** Fatxadak urdinez argiztatzea.

Migel Elortza da Basotxoko presidentea, aldi batez

Aitor Alberdi ordezkaturako du bajan dagoen bitartean, eta hura itzultitakoan, batzar orokorra deituko dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Erretiratuen elkarteko presidentea Aitor Alberdik baja hartu du eta haren ardurak Migel Elortza Etxaspek hartu ditu. Behin-behineko kontua izango da, hura itzultzen denean batzar orokorra egiteko asmoa dutelako: "Ordu-rako, zuzendaritza batzordea berritzeko kide batzuen izenak izango ditugu".

Elkarteak ohiko jarduna berreskuratu du azken hilabeteetan eta aurrera begira ere ekintza mordoa dituzte zehaztuta. Gaur, apirilak 1, esaterako, gaztaina-ja-



Migel Elortza Etxaspe. MIRARI ALTUBE

na egingo dute elkartearen bertan (18:00). "Azaroan erosi genituen eta izoztuta ditugu orduetik, noiz jango zain", dio Elortzak. Apirilaren 6an, osterara, zaindariaren eguna ospatuko dute martxoaren 1ean atzeratutakoa: salda Basotxon (12:00) eta bazkaria Taberna Berri jatetxean (14:30).

Bestalde, maiatzaren 20tik 22ra Madrilera joango dira. Izena emateko epea zabalik dago, astelehenean egubakoitzera bitartean elkartearen (11:00-12:00).

Tute eta mus txapelketak

Apirilaren 7an, osterara, bailarako elkarte arteko tute eta mus txapelketak jokatu dituzte Abarroan (Arrasate). Basotxoko txapelketako irabazleak izango dira han: musean, Miguel Rico eta Antonio Vidriales; eta tutean, Javier Valle eta Antonio Garcia.

Udaberriko kontzertua eskainiko du musika eskolak

Ekitaldiak berreskuratuko ditu Leizarra musika eskolak, eta datorren astean hainbat saio eskaini. Martitzenean, hilaren 5ean, esaterako, Udaberriko kontzertua egingo dute eta Arkupeko aretoko oholtzan izango direla instrumentu guztiak iragarri dute. Bi saio izango dira: 17:15ean eta 18:30ean.

Eguaztenean, osterara, dantza taldeen saioak izango dira, horiek ere Arkupen. Hona hemen emanaldiak: Agurra eta Zapatain taldeen emanaldiak (17:00-18:00); Zazpi Jauzi, Ponpaxola eta Gorrulari taldeen emanaldiak (18:15-19:15); eta Txulalai, Arin-Arin eta Polka Pik taldeen emanaldiak (19:30-20:30).

2002an jaiotako kintoen dantzak datozen bi zapatuetan

2002an jaiotako neska-mutilek Santa Agedaren bueltako ospakizunik ezin izan dute egin osasun egoera dela eta –tantairik ez zuten altxatu, ezta etxerik etxe kantuan eta eskean ibili ere–. Iazko San Migel jaien bueltan egitea pentsatu zuten lehengo, baina egoerak okerrera egin zuen orduan eta atzeratu beharrean izan ziren; beste horrenbeste gertatu zitzaizen Gabonetan.

Horregatik, orain, apirilaren 2an eta 9an ospatuko dute, dantza saioa eskainita herritarrei. 50 bat gazte elkartuko dira Herriko Plazan (19:00), eta aurretik, ohiturari eutsiz, bazkaria izango dute.

Aurrekontu handiagoa, eta egun bat gehiago

San Pedro jaiak prestatzeko zenbait bilera eginda, erabakiak hartzen ari dira. Ekainaren 28tik uztailaren 2ra arte izango dira aurtengo jaiak, jaioberriei ongietorria egingo diete, berrikuntza moduan, eta beste hainbat berritasun ere izango dira

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eskoriatzako Udalak deituta, beste urte batzuetan egin den moduan, San Pedro jaiak prestatzeko herritar guztiei zuzendutako bi bilera ireki egin dira. Batzar horietan, bertaratutako norbanakoek, herriko elkarteetako eta eragileetako ordezkariak eta Eskoriatzako Txosna Batzordeko kideek egindako ekarpenak jaso dituzte, eta hilaren 25ean herriko txikienekin egindako bileran ere aztertu dira egin daitezkeen ekintzak.

COVID-19ren pandemiaren ondorioz jaiak normaltasunez ospatzeko bermerik ez zegoenez bi urtean ospatu gabe egon ondoren, aurtengo jaiak bereziak izatea nahi du Eskoriatzako Udalak. Batetik, "pandemiaren amaiera" ospatzeko, baina jai horiek modu seguru eta arduratsuan ospatu ahal izateko egun horietarako hartu behar diren neurriak alde batera utzi gabe. Horrekin batera, aurrekontu handiagoa jarriko duela jakinarazi du Eskoriatzako Udalak jaietako ekintzak gauzatzeko – oraindik zehaztu gabe dago zenbatekoa–.

Jaiegun bat gehiago

Sanpedroak ekainaren 28an hasiko dira, beti bezala, San Pedro bezperan, eta "modu berezian abiarazi nahi dira, herritarrak Fernando Eskoriatza plazan elkartuta, txupinazo jendetsua egiteko", Antonio Regañok, festak prestatzen ari den Eskoriatzako jai arloko zinegotziak, adierazi duenez: "Sanpedroek hasiera paregabea izatea nahi dugu, herritar guztiok plazan elkartuta. Hori horrela, jaietarako zapiak jarriko dira salgai, eta herritarrak animatu nahi ditugu txupinazora, plaza koloretzatara. Horrekin batera, normalean, ekainaren 28an hasten dira jaiak, eta uztailaren 1ean amaitu. Hala ere, astean zehar izango direnez, aur-



2019an, txosnagunean egindako kuadrillen arteko jokoetan. GOIENA

2021EAN ETA 2022AN JAIOTAKO HAURREI ONGI-ETORRIA EGINGO ZAIE AURTENGO FESTETAN

ten, bost eguneko jaiak izango direla erabaki dute. Hain zuzen, uztailaren 2ra arte luzatuko ditugu, asteburuan ere ekintzak egoteko".

Jaioberriei ongietorria

Programaren barruan izango diren ekintzen artean, berrikuntza nagusi moduan, 2021ean eta 2022an jaiotako haurrei ongietorria egingo diete. "2021ean eta 2022an jaiotako haur bakoitzari jaietako zapi bana emango zaio, eta ekitaldi polita izango dela aurreikusten dugu, beste herri batzuetan izaten den modukoa".

Berrikuntza horrez gain, eskal jai eguna uztailaren 1ean egingo da, eta uztailaren 2an, zapatua, kuadrilla eta familien eguna ospatuko da, eta egun hori berriro ospatu nahi da, koloretako alkandorekin, lehenago egiten zen bezala. Egun

horretan, lehiaketa gastronomiko bat egingo dute, eta, ondoren, kuadrillek Gorosarri plazan jan ahal izango dituzte lehiaketarako prestatu dituzten jakiak", adierazi du Regañok.

Aurrekontu handiagoarekin

Era askotariko ekintzekin osatutako programa prestatzen ari direla azpimarratu du Regañok. Hitzorduak lotzen ari dira, eta oraindik goiz dela konfirmatutako ekintzen berri emateko azpimarratu du: "Mota guztietako emanaldiak antolatuko ditugu; erromeriaren bat, talde alternatiboren bat, rapa, rock taldeak, DJa... Eta uztailaren 2an, zapatuan, 2019. urtean moduan, arrakasta handia izan zuen orkestraren batekin amaitu nahiko genuke. Hori guztia Txosna Batzordeak prestatutako duen programarekin osatuko da, eta beste batzuetan baino aurrekontu handiagoarekin hornituko da". Horrekin batera, ez dira falta izango ohiko hitzorduak: danborradak, Eskoriatzako musika eskolako bandaren kontzertua, mariatxiak, zezentxoak, puzgarriak eta abar.



Korrika batzordeak aurtengo programa aurkeztu zueneko. MAIDER ARREGI

Musika kontzertuak mantendu egin ditu Korrika batzordeak

Korrika Kulturalaren programan ezarritako zenbait ekintza bertan behera uztea erabaki dute

I.B. ESKORIATZA

Eguraldi iragarpen txarra aurreikusita dagoenez, ez da Korrika Txikirik egingo gaur Eskoriatzan. Horrekin batera, buruhandiak ez dira aterako arratsaldean herriko kaleetan zehar, eta Gorosarri plazan egin behar zen Oztopo trialsin taldekoen erakustaldia ere bertan behera geratu da.

Kontzertuak, aurrera

"Programako zenbait ekintza bertan behera uztea erabaki dugu. Momentuz, Korrika Txikia ez da egingo, baina ez dugu baz-

tertzen datorren astean egitea. Trialsin erakustaldia ez da egingo eta buruhandiak ez dira irtingo, eta egitarautik mantendu ditugun hitzorduak hauek dira: Ainhoa eta Irene eta Txalainak –Hertzainak taldearen bertsioak– taldeen emanaldiak kontzejupean egingo dira, aurrekusi moduan, 19:00etan hasita. Une horretan, txistor-pintxoak eta bokatak izango dira salgai. Horrekin batera, 22:00etan, Inkernu tabernako Sei Urte taldearen emanaldia mantendu egingo da", adierazi dute Eskoriatzako Korrika batzordeko kideek.

Batzordea osatzeko hiru kide berriak izendatu dituzte

Olazar Erretiratuen Elkarteko kideek batzar orokorra izan dute, eta urteko ekintzen gainean jardun dute

I.B. ESKORIATZA

Olazar Erretiratuen Elkarteko kideek batzar orokorra izan zuten eguaztenean kultura etxean. Zenbait gai izan zituzten berriak, baina azpimarragarriena batzordea osatzen duten hiru kideren errelebo aldaketa izan zen. Otsailaren 15an, Ibarraundi museoa, kide berriak proposatzeko eta animatzeko bilera egin zuten, eta orduan geratu zen erabakita zeintzuek hartuko zuten kargua.

Horrekin batera, aurten aurrera eramango dituzten ekintzak

ere izan zituzten berriak: "Egingo ditugun ikastaroez eta hitzaldiez aritu ginen, urteroko sagardotegiko irteera egingo dela ere adierazi zen, nagusien bazkaria ere egingo dela... Normaltasunera bidean, ohiko jarduerak berrartuko ditugu. Egiten ditugun jokoak Agijupen barruan egiten ditugu, federazioaren barruan. Aurten, baina, bailara mailan egin beharrean, herrian bertan egingo dugu karta-jokoa...", adierazi du Jasone Orbegozok, Eskoriatzako Olazar Erretiratuen Elkarteko kideak.



2014an Eskoriatzako kiroldegian egindako azkenengo Debagoieneko musika eskolen topaketa. GOIENA

Besteena ere ezagutzeko, musika eskolen topaketa

Debagoieneko musika eskolen topaketa astelehenenean egingo dute Eskoriatzan, Manuel Muñoz kiroldegian, bi urte egin barik egon ostean. Sei herritako musikariak batuko dira bertan, egunerako prestatutakoa jendaurrean erakusteko

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Datorren astelehenean, apirilaren 4an, Debagoieneko musika eskolen topaketa egingo dute Manuel Muñoz kiroldegian. 18:00etan hasiko da saioa, eta edukiera librean eta doako sarrerarekin, honako hauek izango dira topaketan parte hartuko duten musika eskolak: Soraluzeko Musika Eskola, Arrasate Musikal, Aretxabaletako Leizarrara Musika Eskola, Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskola, Bergarako Musika Eskola eta Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskola.

Helburua, ikastea

Urtero egiten den hitzordua da Debagoieneko musika eskolen topaketa, eta Eskoriatzan 2014. urtean egin zen azkenengoz. "Urtero bailarako herri batean antolatzen da egitasmo hau. Duela bi urte egin behar zen topaketa Eskoriatzan, baina atzeratzen joan da hitzordua, eta astelehenen batuko gara,

berri ere, Manuel Muñoz kiroldegian. Musika eskola bakoitzak hamar minutu izango ditu nahi duen emanaldi, pieza edo ikuskizuna eskaintzeko, eta helburu nagusia izango da musika eskoletako hurrek besteek zer egiten duten ikustea. Esaterako, instrumentu berriak ezagutzeko hitzordu aproposa da haurrentzat; izan ere, instrumentu bat irakatsi daiteke Oñatiko Musika Eskolan eta Eskoriatzakoan ez, eta alderantziz. Horrekin batera, elkar ezagutzeko eta ikasteko ere balio duela uste dugu", adierazi du Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskolako Eneritz Korujok.

Ohiko doinuak eta bereziagoak izango dira topaketan. Batzuk

MIKEL LABOA ETA KORRONTZI INTERPRETATUKO DITUZTE BEHEKO ERROTAKOEK

instrumentu berdinarekin igoko dira oholtzara; beste batzuk, soilik euren ahotsekin; eta askotariko tresnak batutako saioak ere izango dira. Hala, musikarien senide eta lagunak seguru egongo dira harmailetan artistek prestatutakoa ikusi eta txalo zaparradak eskaintzeko.

Klasikoa eta berritzailea

Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskolako txanda iristean, bi pieza eskainiko dituzte: alde batetik, Cristina Cubilloren gidaritzapean eta Araceli Guridi pianoan laguntzen, hamar laguneko koruak Mikel Laboaren *Txoria txori* kantua eskainiko du; bestetik, talde instrumentalak –akordeoia, zeharkako flauta, baxu elektrikoa, bi gitarra elektriko eta bateria– eta Oihane Vicente dantza irakaslearen gidaritzapean egongo den hamahiru laguneko Eskoriatzako dantza taldeak *Bustuntzuri korrontzi* ikuskizuna eskainiko du.



Mikel Etxaburu, poesia errezitaldi musikatu egiten. 'AIARALDEA.EUS'

Poesia errezitaldia domekan, musikarekin lagunduta

Mikel Etxabururen 'Ahaztu baino lehen, ama' poema liburuan oinarritutako emanaldi musikatu

I.B. ESKORIATZA

Mikel Etxaburu ondarrutarra Euskal Filologian doktorea da, eta irakasle Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultatean, Eskoriatzan. Literaturari dago-kionez, zenbait poema-liburu ditu argitaratuta, eta domeka honetan, berak idatzitako *Ahaztu baino lehen, ama* poema liburuan oinarritutako emanaldi musikatu eskainiko du Zaldibar antzokian. Saioa 19:00etan hasiko da, eta piano doinuaz, kantuz, irudiz, poema errezitaldiz eta argiztapen giro intimoz osatutako ordubeteko esperien-

tzi az gozatu ahal izango dute bertaratzen dutenek.

Mikel Etxaburu errezitatzen arituko da, Nerea Zuloaga kantuan eta Izaskun del Cerro, berriz, pianoan, eta saioa ikusi nahi dutenek bost eurotan erosi ditzakete sarrerak, alde aurretik, Manuel Muñoz kiroldegian edo *bibe.me* webgunean.

Barrenak mugitzeko saioa

Errezitaldian hainbat gai agertuko dira, hala nola zahartzarua, memoriak eta desmemoriak, bizitzak eta heriotzak... eta, batez ere, zaintza lanak eta bizitzak.

Hurrek aitaita-amamen biografiak kontatzeko saioa

'Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu' saioa izango da hilaren 8an, 18:30ean, Zaldibar antzokian

I.B. ESKORIATZA

Liburuaren Nazioarteko Egurenaren baitan antolatutako hitzorduan, *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketako sariak banatuko dituzte apirilaren 8an, Zaldibar antzokian.

2020an ez egin arren, erroto egin den eta ekitaldi hunkigarria bezain goxo bihurtu den saioa da *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu*. Hain zuzen ere, aurten seigarren edizioa izan da Eskoriatzako Almen-Arizmendi eta Luis Ezeiza ikastetxeetako seigarren mai-

lako hurrek euren aitaita-amamen biografiak idatzi dituztena, eta horien artean epaimahaiak bi kontakizun aukeratuko ditu, beti bezala, saridun; hau da, ikastetxe bakoitzeko onenari sari bat. Hala, saridunek idatzi dutenaren irakurketa egingo dute euren aitaita-amamen eta Zaldibar antzokira joaten direnen aurrean. Hala ere, aurretik, *Jostailugilea* ipuin musikatu eskainiko dute Beheko Errota Musika Eskolako ikasleek, eta ekitaldia amaitzeko sari bana-keta egingo da.

Erabakigarria, aurkari zuzenaren kontrakoa

Emakumezkoen senior kategoriako bigarren mailako Saski Goiena Hemen Garbiketako taldeak Errioxaren aurkako partidua jokatu du domekan, 18:00etan, Manuel Muñozen. Garaipenarekin laugarren postua lortuko luke, eta irabazteko gogoz dago

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Arrasateko Ointxe!-k eta Eskoriatza Kirol Elkarteak elkarlanean sortutako Saski Goiena Hemen Garbiketako taldea denboraldi ederra egiten ari da, senior emakumezkoen bigarren mailan. Domekan, Az Casa de la Rioja taldearen aurka jokatu du partidua, 18:00etan, Manuel Muñoz kiroldegian.

Sailkapenean etxeko taldearen aurretik dago aurkaria, laugarren postuan, 32 punturekin. Saski Goiena Hemen Garbiketako taldea, berriz, bosgarrena da sailkapenean, baina puntu kopuru bera dute; horrenbestez, etxeko babes lagungarri izango dute garaipena eskuratzeko.

Aurkari gogorra

Abenduan, lehenengo bueltako partiduan, zazpi puntuko aldearekin irabazi zuten errioxarrek, baina etxeko taldeak aurre egin diezaiokeela uste du, nahiz eta entrenatzaileak aurkari erraza ez dela izango nabarmendu. "Partidu garrantzitsua da domekan jokatu duguna, eta aurkari zuzena, gainera. Bi taldeok ditugu igoyerarako aukerak, eta hori ere badago jokoan partidu honetan. Guk joko azkarra egiten dugu, oso fisikoa, eta kontuan hartuta gure kantxa



Zuhaitz Gonzalez entrenatzailea taldekideei aginduak ematen. ANGEL AYASTUY

eurena baino handiagoa dela, aukerak ditugula esanenez. Harmailetatik zaleen babes jasozten badugu, irabazi egin dezakegula uste dut", adierazi du Zuhaitz Gonzalezek, Saski Goiena Hemen Garbiketako taldeko entrenatzaileak.

Ibilbide oparoa

Saski Goiena Hemen Garbiketako taldea sortu berria da; izan ere, iaz urtea amaitu aurretik hasi zuen ibilbidea eta orain arte egindako lana bikaina izan da. Hain zuzen, jokatu dituzten ho-

gei partiduetatik hamabi irabazi dituzte. Denboraldia amaitzeko sei jardunaldiren faltan, helburua goiko postuetan mantentzea dute. "Mailaz igotzea da helburuetako bat, eta ezin badugu, sailkapenean laugarren postua eskuratzeko. Hala ere, disfrutatzen ari dira jokalariek, eta taldea sendo dago. Gazteak eta esperientziadunak daude, eta joan den astean partidua galdu genuen arren, partidu hau prestatzeko eta egindako okerrak zuzentzeko oso ondo etorri zitzaigun".

Hiru puntuak eskuratzen badituzte, arnasa hartuko dute

Areto futboleko Eskoriatzako senior emakumezkoek Antiguokoren aurka jokatu dute gaur, etxean

I.B. ESKORIATZA

Areto futboleko senior emakumezkoek gaur, egubakoitza, jokatu dute Gipuzkoako txapelketako partidua, Manuel Muñoz kiroldegian, 20:15ean. Sailkapenean bigarren postuan

dagoen Antiguoko taldearen kontra arituko dira eskoriatzarrek hemezortzigarren jardunaldi honetan, eta garaipenak sailkapenean erditik gorako postuetan mantentzea ekarriko die, bost puntura, atzetik jarrai-

ka duten Anoeta taldeari tarte aterata.

Eskoriatzako neskek 27 puntu dituzte eta sailkapenean laugarren postuan daude. Antiguoko taldea, berriz, bigarren postuan dago sailkapenean, 36 punturekin, eta puntuei dagokienez aldea nabarmena den arren, etxean jokatu dute eta irabazteko aukerak dituzte. Azken bi jardunaldietan irabazi egin dute eskoriatzarrek, eta bide horretatik jarraitu nahi dute puntuak batzen.

LEINTZ GATZAGA | 23

"Nire lehen proba da, eta garaile izateak barruko harra piztu dit"

XABAT OTAZU KORRIKALARIA

Elgetako Antxumeen lasterketa irabazi du gatzagarrik

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Joan den asteburuan Ahuntzen lasterketaren lehenengo edizioa jokatu zen Elgetan. Nagusien probarekin batera gazteena ere egin zuten, hau da, Antxumeen lasterketa, eta hor Xabat Otazu gatzagarria eta Maddi Barrutia elgetarra izan ziren onenak. 14 urteko gazte gatzagarriaren lehenengo lasterketa izan zen, eta irabazi izanak piztu egin dio barruan duen harra etorkizunera begira beste lasterketa batzuetan aritzeko.

Antxumeen lasterketan garaile izan zinen. Zein sentsazio sortzen da lehenengo aldiz lasterketa batean aritu eta irabazita?

Lau kilometroko lasterketa izan zen Elgetakoa, eta 18 minutuan iritsi nintzen helmugara, bigarren sailkatuari hamabi segundoko aldea aterata. Korrikan askorik ibiltzen ez naizen arren, mendian aritzea gustatzen zait, baita bizikletan ere, eta aurkari begiratu gabe nire lasterketa egitera joan nintzen. Nire lehengusuak animatuta hartu nuen parte, eta nire lehenengo lasterketa irabaztea ederra izan zen. Gustatu zait, eta gehiago egitea ere gustatuko litzaidake.



Xabat Otazu garaikurrarekin. I.SORIANO

Senideen eta lagunaren animoak izan zenituen, ezta?

Hala da; ezagun batzuekin elkartu nintzen bertan, eta familiakoak ere izan ziren. Eskerrak eman nahi dizkiet animatzen izan ziren guztiei. Giro ederra izan zen, gainera.

Aurrera begira, animatuko zara beste lasterketaren baten parte hartzen?

Bai, gustatuko litzaidake. Entrenatzen jarraituko dut, eta lasterketak ikusteaz gain, ea besteren batean parte hartzeko aukerarik dudan.



IMANOL SORIANO

Gatz Museotik plazara korrika

Joan den egubakoitzean, Korrika Txikiko saioa egin zuten Leintz Gatzagan, eta ondoren, bertan batutako gaztetxoek txokolate-jana egin zuten. Gatz Museotik hasi eta plazarainoko bidea egin zuten herriko haurrek, lekukoa esku esku pasatuz eta zenbait gurasok lagunduta. Gainera, eguraldia lagun izan zuten.

Jokin Bereziartua BERGARA

Larramendiko "erraustegiaren" aurkako Larramendiko Arnasa plataformak 1984tik 2019ra Osa-kidetzan lanean aritu zen Sara Ibañez (Bilbo, 1955) sendagile erretiratua gonbidatu zuen martitzenean Irizar jauregian hitzaldia ematera; Euskaldunberri aretoa bete egin zen. 2007an Muskizko (Bizkaia) Petronor findegian abiatu zen Fuelolia Murrizteko Unitateen (FMU/URF) gaineko ikerketan eta "borrora administratiboan, judizialean eta sozialean" zuzenean ari da parte hartzen Ibañez, Meatzaldea Bizirik talde ekologistaren barruan.

Zer dakizu Larramendiko plantak eragin ahalko zituen ondorioez?

Laburpen ez-teknikoa ez da oso zehatza, ez du une batean ere esaten emisio zehatzak zeintzuk izango diren, ze kopurutan emango diren; eta inguruko herrietan benetako eragina zein izango den ere ez da zehazten. Pirolisia eta errausketa izango dira, biak. Izan ere, prozesua paper-sortaren pirolisiarekin hasten da, eta prozesu horretatik lortutako gasaren bidez –zer den esaten ez dena, bide batez–, zazpi paperontzitako lohien hondarrak erraustu edo kiskali egingo lireratek, kaltzio karbonatozko eta *char* deritzon karbonatozko hautsa lortzeko; azken hori ere proiektuan identifikatu gabeko beste hondakin bat da, zementu-fabriketako erregai gisa balioko lukeena. **Proiektua gauzatu aurretik geratu egin behar dela diozu. Zergatik?** Hainbat motibo daude. Mundu mailako lehen erreferentzia dela diote, eta nik esperientziarik ez dagoela interpretatzen dut. Orain arte, pirolisi plantak garestiak izan dira, emaitza txarrekin eta

"Ez dago lasai egoteko motiborik Larramendin"

SARA IBAÑEZ SENDAGILE ERRETIRATUA ETA MEATZALDEA BIZIRIK TALDEKO KIDEA Paper-hondakinak tratatzeko Larramendiko industrialdean aurreikusitako plantaren inguruan hitzaldia eman du asteon Ibañezek: "Bergararrek ez dute lasai egon behar"



Sara Ibañez, Irizar jauregiaren atarian, martitzen arratsaldean. LARRAMENDIKO ARNASA

istripuekin. Litekeena da praktikan gauzatzeak adierazten dutena baino eragin handiagoa izatea, ez baitakigu ondo, ez baitute emisioen zenbakirik aipatzen. Fabrikaren inguruan ez dago airearen kalitaterako kabinarik, eta are gutxiago isuriko dituzten substantziak neurtzen duen azpiegiturarik. Tximiniako iragazkiez isuriak %85etik %99ra murrizteko indizeez hitz egiten dute, baina ez dute esaten zein kopuruz ari diren. Enpresa [Valogreene Paper BC] ez da batere argia izan.

Hasteko, 2021eko ekainaren 11n, *karga mineralen ekoizpen ekologikorako planta* deitu zioten, hirigintza-bateragarritasunerako eskaeran. Eta, handik gutxira, txosten ez-teknikoa abuztuaren 3an egin zuen, *paperaren industriako azpiproduktuen tratamendua* izenarekin. Azkenik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari ofizialerako (EHAA/BOPV) Bergaran *hondakin ez-arriskutsuen kudeaketa* egiteko eskaera bidali zuten Ingurumen Baimen Barneraturako (IBB/AAI).

Informazioarekin gardentasun falta dagoela ere salatu duzu...

Gardentasuna ez da sekula enpresen bertutea izan, baina harritzen nau kasu honetan datu zehatzik ez emateak. Petronorren URF proiektuaren laburpen ez-teknikoa emisioen eta gaur egungo egoeraren igoeren kopurua ematen zuten. Hala ere, errealitatea askoz okerragoa izan da; kontuan izan behar dugu horrelako instalazioek maiz izaten dituztela gorabeherak. Gure kasuan, Petronorrek katalizatzailerak eta koke hautsez ureztatu ditu inguruko herriak.

Arlo batzuk konfidentzial izendatu ditu enpresak Jaurilaritzan, ezta?

Hala da. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialerako eta Ingurumen Baimen Barneraturako eskaerak egin ostean, proiektuaren hainbat alderdiri konfidentzialtasun-adierazpena eman zaie eta horrek ingurumen-inpaktuen deskribapen zehatza izatea galarazten digu. Horrez gain, Bergarako Udalak ukatu egin du lizentzia, horrelako planta batek ez dituelako betetzen Bergarako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) eta Larramendi Industrialdeko Plan Partziala. Hala ere, bergararrek ez dute lasai egon behar; une honetan, Eusko

Jaurilaritzan onartzen ari den legeak, *Tapia Lege* ospetsuak, udalerrian hartutako erabakien gainera proiektua ezarri deza-keelako ustezko interes orokor batean oinarrituta.

Larramendiko plantak lanpostuak sortuko ditu? Ze hipotesi duzu?

Proiektuan hogeita lanpostu aipatzen dira, hiru txandatan, aste-lehenetik domekara. Beraz, txanda bakoitzean sei bat pertsona izango dira, baina atsedeen-egunak zenbatzen baditugu, bost pertsona izan daitezke. Oso kopuru txikia da horrelako instalazio batentzat.

Zer irtenbide eman dakiok hondakinekin bizi dugun ia kolapso egoerari? Zein da alternatiba?

Paper-fabrikei dagokienez, arazoa abiapuntua da. Hain zuzen ere, eukaliptoen monolaborantzaren alde egin den apustua, paper-fabriketarako bakarrik erabiltzen dela, eta fabrika horiek paper-orea sortzen dutela. Paper-ore hori da beste herrialde batzuetara esportatzen dena, Alemaniara, batez ere, balio erantsia, papera, sortzen duelako. Kutsadura eta gure lurraldearen txikizioa hemen gertatzen da, eta herrialde horiek irabazi handienak eroaten dituzte. Orain, lohien eta hondakinen arazo itzela dugu; badirudi Zaldibarko zabortegira eroaten ari zirela, eta, Zaldibar kolapsatu ondoren, arazo larri bat sortu duela. Agian, paper-fabrikek eurek arduratu beharko lukete euren hondakinak kudeatzeko prozesuaz, *in situ*.

"PAPER-FABRIKAK EUREK ARDURATU BEHARKO DUTE, AGIAN, HONDAKINAK 'IN SITU' KUDEATZEAZ"

Skate parkea, erabilgarri

Joan den asteburua ezker, erabilgarri dago Labegaraietako skate parke berria. Parke zaharra eraberritzeko eta dinamizatzekeo asmoz, Udalak 60.000 euroko inbertsio egin du azpiegitura berria; skateboard, roller, bmx eta scooter erabileretarako dago prestatuta. Skate parkeetan espezialista den Daniel Yabar izan da parke berria diseinatu duena.



AITOR LAGOMA

Korrika Txikia astelehenera atzeratu dute, eguraldiagatik

Korrika gaur helduko da Bergarara, Osintxutik (11:32). Korrika Txikia ere gaur egitekoa zen, baina eguraldiagatik erabaki dute astelehenera, apirilak 4, atzeratzea. Herriko hiru ikastetxeek eta Udalak antolatu dute, Lehen Hezkuntzako ikasleendako. Honako hau izango da ibilbidea: San Martin ikastetxearen paretik 15:00etan hasita, Boni

Laskurain, Matxiategi –azoka paretik–, Migel Altuna zaharren paretik Ibargaraira, Ertzaintzaren pareko aldapatik gora egin, eta Espoloia, San Pedro kalea, Arrizuriaga, Barrenkalea eta Gaspar tabernaren ondotik San Martin plazan bukatuko dute, 16:15a inguruan. Bestalde, gaurko aurreikusita zegoen erraldoien kalejira bertan behera geratu da. Korrika Kulturaren barruko gainerako ekitaldietan ere izan dira aldaketa batzuk (Ikus 28. orria).

Egun baino burujabeago izan nahi du Angiozarrek

Bergarako Udalarekiko deszentralizazio prozesuarekin jarraitu nahi duten jakiteko galdeketa egin zuten domekan Angiozarren, eta, %70eko parte-hartzearekin, baiezkoak irabazi zuten nabarmen; hori bai, Batzar Nagusien babesik gabe jarraitzen dute, oraingoz

Jokin Bereziartua BERGARA

Domekan herri galdeketa egin zuten Angiozarren, Bergarako Udaletik deszentralizatzeko prozesuarekin jarraitu edo ez eta Zapatarikua etxea angiozartarren eskuetan utzi edo ez jakiteko. Angiozar Bailarako Batzarrak deitu zuten galdeketa; bizilagunen %70ek hartu zuten parte bozketan eta bi galderetan baiezkoak irabazi zuten nabarmen. "Pozik gaude; badugu bizilagunen babesa bi prozesuekin aurrera jarraitzeko", adierazi dio GOIENARI Angiozarko alkate Mila Elortzak. Errolda 208 bizilagunekoa izanik, 145 bizilagunek eman zuten botoa eta 64 abstentitu egin ziren. Lehen galderaren emaitzak honako hauek izan ziren: baiezkoak 130, ezezkoak 11, zuriak 3 eta baliogabeak 1. Zapatarikua etxearen gaineko galderan, berriz, hauek izan ziren emaitzak: baiezkoak 116, ezezkoak 25, zuriak 3 eta baliogabeak 1.

Formula berrien bila

Tokiko entitate txiki izateko aukerak agortu direla esan daiteke, 2021eko urrian Batzar Nagusietan 2/2003 foru arauaren aldaketa ez zen-eta onartu -foru arauaren aldaketa ezinbestekoa da, 300 bizilagun eskas dituelako Angiozarrek-. EH Bilduk eta



Angiozarko bizilagun bat botoa ematen, domekako herri galdeketa. H.L.

ETORKIZUNERAKO EZINBESTEKOA DA ESKOLA; HANDITZEKO LANAK UDAN EGITEA AURREIKUSTEN DUTE

Podemosek bat egin zuten proposamenarekin, baina EAJk eta PSE-EEK kontra bozkatu zuten. Batzar Nagusien babesik gabe ere, Angiozarko alkate Mila Elortzak azpimarratu du bailara barrura begirako lanketa bat

izan dela herri galdeketa: "Bizilagunen babesa badugu. Herri batzarrean edo Angiozar Jorrazten-en mugitu izan garenon ametsa izan da azken urteetan Angiozar burujabeagoa lortzea. Entitate txiki izatera ez gara helduko, akaso, baina formulak bilatu nahi ditugu gure bailaren gaineko arduraren gehiago izateko". Epe motzera begirako interbentzioei dagokienez, Angiozarren etorkizunerako ezinbestekoa den eskola dago; erakina handitzeko lanak udan egitea aurreikusten dute.



Asteleheneko bilkura; tramite izaeraduna eta eztabaida gutxikoa izan zen. J.BEREZIARTUA

Saharako gatazkan Madrilek jarrera aldatu izana salatu dute

Fronte Polisarioaren zilegitasuna babesteko mozioa adostu zuten EH Bilduk eta EAJk; PSE-EEK kontra bozkatu zuten

J.B. BERGARA

Mendebaldeko Saharako gatazka politikoaren bueltan mozio bat adostu zuten EH Bilduk eta EAJk asteleheneko bilkuran. Espainiako Gobernuak historian "inoiz ez bezala" jarrera "errotik" aldatu izana salatu zuten bi taldeek, eta gaineratu zuten Madrilen jarrera aldaketa honek "erabat" urratzen dituela Nazioarteko Zuzenbidea, Nazio Batuen Gutunaren printzipio eta balioak eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak. PSE-EEK bozeramaile Alberto Alonsok kontra bozkatu zuten, eta honela

azaldu zion botoa GOIENARI: "Espainiako Gobernuaren jarrera babesten dugu. Nazio Batuen Erakundearen 2021eko erresoluzioan Marokoren ahaleginei balioa ematen zitzaien eta bi aldeei exijitzen zitzaien gatazkan konponbideari begira negoziatioari heltzeko. Bestalde, Espainiak jarraitzen du izaten solidarioena Fronte Polisarioarekin eta herri sahararrarekin; Espainiako Gobernuak zilegitasun osoa aitortzen dio oraindik ere Fronte Polisarioari, negoziatzeke duten ustezko autonomia hori negoziatzeko".

OHARRAK

Erramu Zapatua: postuak jartzeko eskaera

Apirilaren 9an ospatuko da Erramu Zapatuko feria, Oxirondon eta San Martin plazan, 09:00etatik 14:30era. Artisau eta ganadu feriarako eta Eusko Labela saltzeko postua jartzeko izen-emate epea amaitu bada ere, oraindik aukera dago taloen posturako eskaera egiteko. Gaur, apirilak 1, 13:00etan amaituko da epea eta zozketa apirilaren 4an egingo dute (12:00).

Hezkuntza arloko akordioa berbagai

Asier Lauzurikaren hitzaldia apirilaren 7an, UNEDen (18:30): *Oinarrizko hezkuntza akordioa. Eskubideetatik konpromisora.*

Ehundu: herri dinamika saioa

Apirilaren 6rako gonbidatu dituzte herritarrik UNEDera (18:30).

Goienagusi: Pedro Saldañaren hitzaldia

Zine zuzendaria Seminarixoa egongo da, apirilaren 6an (10:00).

Bergara Oinez ekimena atzo abiatu zen

Hurrengo irteera apirilaren 28an izango da, Pol-Polek antolatuta. Izena emateko: 943 76 21 40 (San Joxepe), 943 77 70 95 (Agorrosin) edo www.bergarakirola.eus.

Zapatarikua etxerako, "hainbat amets"

Zapatarikua etxearen dohaintzagatik esker on hitzak izan ditu Mila Elortzak Garitano-Larrañaga familiarendako. Lau solairuko eraikin ederra da, leku paregabean kokatua dagoena: "Herri batzarrean berba egiteke dago, baina hainbat amets ditugu eraikin horretarako; bizilagunok ditugun beharren arabera, betiere, hainbat erabilera eman ahal zaizkio".



Zapatarikua etxea Angiozar Jorrazten elkarteak kudeatzea nahi dute. J.B.



Irune Galarraga, Angel Murgiondo, Maite Agirre eta Iñaki Arrondo eguaztanean batzokian. UXUE IGARZA

EAJk "immobilismoa" leporatu dio EH Bilduri

"Argazki askoko eta mami gutxiko legealdia"; horrela kalifikatu dute jeltzaleek Udal Gobernuaren jarduna. "Aurreko legegintzalditik zetozen proiektuetatik tiraka" aritzea leporatu diete, eta Bergarako EAJ legealdi hasieratik ekarpenak egiten dabilela esan dute

Jone Olabarria BERGARA

Azken hiru urteak "atzerakada eta geldialdi garaia" izan direla adierazi dute Bergarako jeltzaleek asteon batzokian egindako prentsa agerraldian. Adierazi dutenez, EH Bilduren Udal Gobernuak "ez du jakin pandemia osteko egoerari erantzuten eta herria berpizten. Pandemiaren ondoren, Gobernuak ez du jakin Bergara aurrera ateratzen. Egiten ari diren gauza bakarria aurreko legealditik zetozen proiektuetatik tiratzea da. Labegarieta eta Zubitza dira adibiderik garbienak".

"Konpromiso falta"

"Planen legealdia" dela diote jeltzaleek: "Bederatzi plan baino gehiago dituzte, 185.268,68 euroko aurrekontuarekin". Hala ere, "horietako bakar bat ere" ez dagoela exekutututa diote: "Ez dituzte konpromisoak betetzen, eta legealdia amaitzen ari da".

Gauzatzen ari diren proiektu nagusiak "aurreko legealdikoak"

direla adierazi dute: "Akordioaren lerro gehienak 2019tik datoz: hileta zibilen zerbitzua, Boluko maldaren egonkortzea, jolas parke estalia eta San Joxepeko arreta arinen zerbitzua, besteak beste".

"Proiektuak bereganatzea"

San Joxepeko eguneko arreta zerbitzuari dagokionez, proiektua bere egitea leporatu diote jeltzaleek Udal Gobernuari: "Proiektu hau EAJk 2021eko aurrekontuetan proposatu zuen, eta EH Bilduk bere egin du. Era berean, oposizioarekin lanketarako "borondaterik eza" kritikatu dute: "Tamalez, EH Bildu kanpainan dago eta oposizioaren proiektuak bereganatzen ari da bere irudi ona saldu nahian".

"HARTU ZITUZTEN KONPROMISOAK EZ DITUZTE BETETZEN, ETA LEGELADIA AMAITZEN ARI DA"

tzen ari da bere irudi ona saldu nahian".

Arlo askotan "atzerapauso nabarmenak" dira, jeltzaleen esanetan, aurretik eginda zegoenetik tiratu eta "ezer gutxi gehitzea".

Terrazen ordenantzak "konpromisoak ez betetzearen beste adibide bat" direla diote: "2021eko ekainean egindako agerraldian urte amaierarako behin-behineko kale okupazioaren ordenantza idatzita izango zutela esan arren, oraindik ez da iritsi".

"Elkarlanerako" deia

Bergarako EAJk agintaldi hasieratik "ekarpenak" egin dituela adierazi dute jeltzaleek: "Pandemia garaian hainbat lan-lerro identifikatu eta mahai gainerratu ziren, baina, momentuz, guztiek mahai gainean jarraitzen dute".

"Elkarrekin" 2022rako hartutako akordio guztiak betetzeko eskatu diote jeltzaleek Udal Gobernuari, "denen arteko elkarlana bultzatuz".



Birgaitzen Bolu proiektuan parte hartu duten auzotarrak, Irizar jauregian. B.B.

Birgaitzen Bolu proiektuaren ebaluazioa, "positiboa"

Debagoiena 2030 Garapen Iraunkorrerako Sareak finantzaturako ekimenaren balorazioa egin dute

J.O. BERGARA

Birgaitzen Bolu proiektuak banakako etxeetan isolamendua jartzeko sistema sustatzen du, prozesuan parte hartzeko bidez ezaugarri jarrita: ekimena taldean egitea eta ikasitakoa taldean partekatzea.

Hain zuzen ere, azken fase hori garatzen izan ziren proiektuan parte hartu zuten auzotarrak joan den egubakoitzean: prozesua 2021eko otsailean jarri zen martxan eta Boluko zortzi etxebizitzak hartu dute parte.

Beroago eta zaratak murriztuz

Orokorrean, esperientzia "oso ondo" baloratu dute parte hartzaileek: "Isolamendua egin dutenetik etxea epelago dago, eta temperatura hobeto mantentzen da iparraldeko logeletan. Bi gradu inguruko igoera nabaritu dute". Ondorioz, berogailua gutxiago jartzen dutela adierazi

zuten parte hartzaileek, eta, zaratari dagokionez, errepidera ematen duten geletan zarataren "murrizketa handia" nabaritu dute.

Alderdi ekonomikoa

Erosketa kolektiboaren bidez 200 eta 300 euro bitarteko aurrezpena jaso dute parte hartzaileek, eta ordaindutakoaren %18 jasoko dute errenta aitortpenaren bidez. Hala ere, 2022ko negua 2021ko baino hotzagoa izan dela adierazi dute, eta, hortaz, kontsumoen konparaketak ez duela informazio deigarri eman.

Etorkizunera begira, zerrenda berri bat sortu eta izena eman nahi dutenek Boluko Imaz Harategira joan beharko dute. Prozesuan parte hartzeko hamar pertsonak eman behar dute izena, eta taldeko ordezkari bat aukeratu.

Espazio publikoen okupazioaren udal ordenantza, berritzen

Lurzoruaren okupazio publikoaren ordenantza berritzen ari da Bergarako Udala. Udalak egindako proposamena osatzeko prozesuan merkataritzako eta ostalaritzako profesionalekin eta herritarrekin hainbat bilera egin dituztela jakinarazi dute Udaletik. Jasotako ekarpenekin ordenantza zirriborroa prestatu eta landuko du udalbatzak. Es-

pazioaren okupazioa zonaka sailkatu da, hiru gunetan: erdigunea, ingurua eta auzoak. Tasa ere zonaka ezarriko da. Indarrean dagoen ordenantza zehazki hainbat aldaketa proposatzen ditu berriak; esaterako, orain artekoak ostalaritzaren okupazioa arautzen zuten; berriak, berriz, merkataritzaren establezimenduen okupazioa ere arautuko du: establezimendu bakoitzak hartzen duen lurzoru publikoaren espazioa mugatua egongo da, metroan, eta markatuta.

Hassan Ouchkir karateka, Espainiako txapeldunorde

Euskal selekzioarekin lehiatu zen Hassan Ouchkir Shotokan taldeko karateka eta entrenatzailea Espainiako txapelketan. Logroñon jokatu zuten, joan den asteburuan, eta Madrilgo selekzioaren aurka galduta sailkatu ziren bigarren postuan

Jone Olabarria BERGARA

Duela hiru urte iritsi zen Hassan Ouchkir karateka Bergarako Shotokan taldera. Hasieratik igarri zuen Joxean Iñarra entrenatzaileak "gaitasun izugarriak" zituela gazteak, eta ia lehen unetik euskal selekzioaren baitan aritu izan da lanean: "Exijentzia maila oso handia eskatu diogu, baina horrek bere fruituak eman ditu". Ordurako esperientzia handia zuen Ouchkirek: aurretik ere Marokoko karate selekzioan ibilitakoa zen eta mundu mailako sailkapenean 60. postuan egon izan da.

Ouchkirren garaipena, gako

Euskadiko txapelketan -75 kilo baino gehiagoko mailan- lehen postuan sailkatuta iritsi zen Ouchkir Espainiako txapelketara. Euskal selekzioarekin lehiatu da Logroñon jokatu duten txapelketan eta bigarren izan dira kumitean: "Madrilgo selekzioa oso aurkari zaila da, eta ezin izan genituen lehia guztiak irabazi. Hala ere, pozik gaude emaitzarekin, itzela da".

Lehen konbateetan Gaztela-Mantxako selekzioa izan zuten aurkari, eta "erraz" lortu zuten hurrengo fasera pasatzea, Aragoinen aurka. Selektzio indartsuagoa dela azaldu du Ouchki-



Hassan Ouchkir, joan den asteburuan, Logroñoko Espainiako txapelketan. J.I.

"OSO AURKARI ZAILA DA MADRILGO SELEKZIOA ETA AZKEN UNEAN EZIN IZAN GINEN GAIENDU"

rrek, eta, hain zuzen ere, Shotokango karatekak irabazitako konbateari esker lortu zuten finalera igarotzea.

Madrilgo selekzioa izan zuten lehiakide finalean: "Oso aurkari zaila da, maila handikoa. Euro-

pako txapeldun bat dute taldean, eta ezin izan genien aurre egin nahiko genukeen bezala".

Lanean jarraitzeko gogoz

Hala ere, egindako lanarekin "oso pozik" agertu da Ouchkir, eta lanean jarraituko dutela adierazi du: "Une honetan euskal selekzioa oso gaztea da, karateka gehienak 18 urte buelta-koak dira, eta, hortaz, oraindik asko dugu ikasteko. Dena den oso talde indartsua dugu, eta lanean jarraituta oso gora iritsi daiteke".

BKEk azaldu du ez duela loturarik ekaineko musika jaialdiarekin

Azaldu dute klubak ez duela 'Ekinez' jaiarekin zerikusirik eta bertatik lortutako dirua ez dela eurentzat

J.O. BERGARA

Ekainaren 11n Agorrosinen antolatuko den *Ekinez* musika jaialdia dela-eta, Bergara Kirol Elkarteko zuzendaritzak oharra kaleratu du, azalpenak emateko. Azpimarratu du klubak ez duela jaiaren antolakuntzarekin zerikusirik eta batutako dirua ez dela eurentzat.

Herritarrek egindako galderei erantzunak emateko kaleratu dute oharra kirol elkartekoek. Urtero antolatzen duten agur festa eta *Ekinez* jaialdia ez nahasteko esan dute: "Antolatu den

jaialdiak beste helburu batzuk ditu, eta kluba agur festa beste data batean egiteko aukerak aztertzen ari da. Orain arte egindako Mahonero Egunaren antzerako ekitaldiren bat egitea da asmoa, Agorrosin zelaian bertan ere".

Bestetik, zehaztu nahi izan dute ekaineko musika jaialdia antolatzeko baimenak eta baldintzak Udalaren esku daudela: "Martxoaren 11n sinatu zen Agorrosingo eremuko lurren dohaintza Udalaren eta klubaren artean, Bergarako Notariotzan".

Lau eta erdiko Soraluze txapelketa, ekainaren 6ra arte

Bergarako udal pilotalekuak XII. Soraluze txapelketa hartuko du, beste urte batez. Oraingoan, apirilaren 26tik ekainaren 6ra bitartean egingo dute, eta, guztira, hamasei pilotari arituko dira lehian, nagusien eta promesen mailetan. Lehen jardunaldian, Ekhi Irribarria eta Anton Erkiaga lehiatuko dira promesen mailan eta Aitor Men-

dizabal eta Aitor Alduntzin nagusietan. Finalak ekainaren 6an jokatuko dituzte, ohiturari eutsiz, Pentekoste jaietako astelehenean.

COVID-19ak behartutako geldialdi eta moldaketak gainduta, BKEko pilota saileko arduradun Julen Aranburu pozik agertu da txapelketaren ohiko formatua berreskuratzeagatik, eta herritarrak frontoira joatera animatu nahi izan ditu: "Ea dena ondo doan eta bai pilotariok eta pilotazaleok disfrutatuko dugun".



POL-POL MENDIZALE TALDEA

Pol-Poleko beteranoak, Errioxan

Nalda inguruak ezagutzen, Errioxan, izan dira aste bukaeran Pol-Pol mendizale taldeko beteranoak. Egun osokko irteera izan zen eta 53 lagun joan ziren hara domekan. Gogorarazi nahi izan dute hurrengo irteera apiril bukaeran egingo dutela; Izabara, Nafarroara, joango dira hilaren 23an eta 24an.

Harrobia, osasun itzelean

Talde moduan une "oso onak" bizitzen ari direla azaldu du taldeko entrenatzaile nagusi Joxan Iñarrak: "Hainbat kirolari ditugu euskal selekzioarekin lanean edo jarraipenean, eta gaztetxoenen artean ere Gipuzkoako txapelketetan emaitza onak lortzen ari gara. Hain zuzen, entrenamenduetan egiten dugun lana eta emaitzak bat datoz".



Shotokan taldeko gaztetxoek, Hassan Uuchkir entrantzailearekin. SHOTOKAN



la bi urteko geldialdiaren ostean otsailean itzuli zen Vietcong 68 taldea gaur izango da kartzela zaharrean. VIETCONG 68

Deskantsurik ez musika zaleentzat asteburuan

Vietcong 68 eta Plan B taldeak gaur izango dira kartzela zaharreko taula gainean, Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenaren baitan. Eta bihar, kaleratu berri duen diskoa aurkeztuko du Añubek; The Clayton talde aramaioarrak ere joko du

Jone Olabarria BERGARA

Musikaz beteriko beste asteburu batez gozatzeko aukera izango da Bergarako kartzela zaharrean apirileko lehen aste bukaerarekin batera. Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenaren baitan, eta asteburuari hasiera ezin hobea emateko asmoz, Vietcong 68 eta Plan B taldeak hartuko ditu gaur iluntzean, 22:00etan hasita.

Indarrez bueltan

Neguko geldialdi labur baten ostean, martxoaren 18an itzuli zen Egubakoitzak Berreskuratzen ekimena berriz ere kartzela zaharrera, 2022ko denboraldia indarrez hasita. Labana eta Feline taldeak ikusteko aukera izan zen lehen saio hartan, "harrera itzelarekin".

Indartsu eta energiaz beteta

Bi urte inguruko geldialdi baten ostean otsailean itzuli zen taula gainera Vietcong 68 taldea, taldekide berriekin eta berriz ere

taula gainean mugiarazteko asmoz. Bere musika punk eta rock-and-roll estiloetan kokatzen du taldeak, aurretik beste hainbat proiektutan eta eskarmentu handiko partaideek osatuta.

Beren letretan demokraziaz, duintasunaz, gerraz, sexuaz, maitasunaz, maitasunik ezaz, arazoez, borrokaz... hitz egiten dute; betiere, dibertsioa, erritmoa

eta abiadura oinarri hartuta. Vietcong 68k 2016an aurkeztu zuen lehen lana, *Como debe ser* izenekoa, eta, bi urte geroago, 2018an, *A-B* bigarren diskoa aurkeztu zuten, *Tough Ain't Enough Torture Chamber Record*ekin grabatuak.

Esperientziaren abantaila

Donostiako Plan B power hirukoa ere izango gaur kartzela zaharrean. Eskarmentu handiko taldea da, urte askoko esperientzia duena. Punk-rock musika izan dute musikalki bizkarrezur, nahiz eta bestelako doinuetara ere moldatu izan diren.

Zapatuan bada zer gozatu

Arratsaldean, Debagoieneko hainbat musikari taula gainean ikusteko aukera izango da, kontzertu akustikoetan, lagunarteko jam saioan. Ostean iritsiko da Añube eta The Clayton taldeen txanda. Sarrerak, hain zuzen ere, bost eurotan eskuratu daitezke.

Añube eta The Clayton bihar

19:30ean hasiko dute saioa, lagunarteko jam saioarekin. Ostean iritsiko da, 22:00etan hasita, Añube eta The Clayton taldeen txanda. Duela bi aste Arrasaten egin bezala, Bergarako kontzertua azken lana aurkezteko baliatuko du Añubek.

Sofia Herbonen erakusketa Aroztegin, hilaren 17ra arte

Artista uruguaiarraren 'Aztarnak' erakusketak animaliak protagonista dituzten marrazkiak batzen ditu

J.O. BERGARA

Naturarekiko eta animaliekiko duen pasioak izaki bakar eta errepikaezinak modu surrealistan sortzera eraman zuen Sofia Herbon artista. Uruguaiako La Paloma hirian jaioa, zuzenean paperaren gainean egiten ditu lanak Herbonek, aurretik zirriborik egin gabe.

'Aztarnak' erakusketa

Aurretik hainbat erakusketa ere izan ditu Herbonek, hala nola *Basoko arimak*, *Ozeanoen arimak* eta *Afrikako Ametsak*. Aroztegi kasuan, *Aztarnak* izeneko erakusketa izango da gozagai. Erakusketak "izaki bakar eta errepikaezinen aztarnak" biltzen ditu, "jaiotzen ari zen obra-multzo baten hasierarekin zerikusia dutenak: "Marrazkiaren bidez, modu surrealistan, animalia basatiak gizatiartuz,



Artistaren lana, bera protagonista dela. S.H.

klima-aldaketari buruzko kezkak eta pertsonek inpaktuak naturan duen ondorioa islatzen ditut, ikuspegi subjektibotik". Erakusketak gaur egun naturaren alde borrokatzen diren pertsona ezagun eta anonimo guztiei eskertza bat izan gura du.

Korrika Kulturalaren baitan, Lemak eta Errietan taldeak gaur

Osintxutik sartuko da gaur Korrika Debagoienara, 11:30 inguruan, eta, herrigunetik igaro ostean, Arrasaterako bidea hartuko du. Aurtengo berotzeko asmotan, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte aurreko asteetan zehar, Korrika batzordeak herriko beste hainbat eragilerekin batera antolatuta. Gaurko ere, Korrika igaro osterako ere zer

gozatu prestatu gura izan dute, musikan eta dantzan protagonismoa jarrita.

Musika Eskolak antolatuta, eta Korrika Kulturalaren baitan, plaza-dantza gidatuak egingo dituzte, 19:30ean, Seminarixoko karpan. Ostean ere musikaz gozatzeko aukera paregabea izango da. Izan ere, 20:30ean hasita, Bergarako Lemak taldea eta Mutrikuko Errietan taldea izango dira oholtza gainean, Xaxau jai herrikoien konpartsak antolatuta.

Puntako bertsolariak Erramu Zapatu bezperako saioan

Urteroko ohiturari jarraituz eta Erramu Zapata berotzen joateko asmotan, bertsozaleek goi mailako bertsolarien saioarekin gozatzeko aukera izango dute Erramu Zapatu bezperan, datorren egubakoitzean, hilak 8. Gaueko hamarretan hasita, Andoni Egaña, Saioa Alkaiza, Iker Zubeldia, Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio Seminarixoko

oholtzara igoko dira. Azken urteetako tradizioarekin jarraituz, Ibon Leibar *Txinbo*-ren ardura izango da bertso-saioko gaiak jartzea.

Datorren asteko bertso-jaialdirako sarrerak dagoeneko salgai daude, www.seminarixoa.eus webgunean, zortzi eurotan, baita Seminarixoko txarteldegian: eguaztenetan 18:00etatik 20:00etara. Sarrerak libre gertatuz gero, egunean bertan ordu-bete lehenago egongo da horiek eskuratzeko aukera.

EKIN EMAKUMEAK

Arrasate euskaldun, parekide eta plurala ehuntzen

Euskara, emakumeak eta aniztasuna ditu izatearen arrazoi eta bide-orri Ekin Emakumeak elkarte arrasatearrak. 27 urte bete berri ditu eskubide eta aukera berdintasunaren alde lanean; hizkuntza, elkar ezagutza eta errealitatearen aitortza oinarri hartuta, Arrasaten "bizikidetza positiboa" eraikitzeko eragiten.

Esperientzian oinarritutako eraldaketa prozesuaz hausnartzen dute atzera begiratzean, eta handinahirik gabe begiratzen diete etorkizuneko erronkei.

Euskara

"Enbor beretik sortuak gara". Eta hala da. 1995ean Arrasate Euskaldun Dezagun-en enborretik sortutako adaxka baita Ekin; baita, urte batzuk geroago, Goiena Komunikazio Taldea ere. Goienakide izanez "hedabideak bultzatzea eta indartzea", beraz, elkarrearen "beharretako" bat da: "Euskararen biziberritze prozesuak gure arteko sinbiosia ezinbestekoa du".

Babes ekintza eta erabakietatik harago, baina,



Ekin Emakumeak jardun eta nahiak irudikatzen dituen horma-irudia, elkarrearen egoitza alboan.

euskaratik eta euskaraz irudikatzen dute gizartea. Eta erdigunean jartzeko hautu irmoa egin dute.

Emakumeak

"Emakumeok aisialdiaz euskaraz gozatzeko espazioak sortzeko ekin

genion gure jardunari". Baina denborak eta gizarteko aldaketek "ikusmirak zabaltzera" eta espazio zein egoera berrietara egokitzeko hautua egitera bultzatu zuten Ekin. Emakume eta euskara elkarrean, herriko bizikidetzan eragiten.

Aniztasuna

"Euskara batzen gaituen elementu gisa erdigunean jarriz, elkar ezagutzan, herritarren aktibazioan eta elkarrean aitortzan begirada jartzen saiatzen gara". Elkarlanetik, eta errealitate kultur anitz zein

eleonitzaren aitortzatik abiatuta, herriko emakumeen arteko sareak ehuntzea baita elkarrearen asmo nagusia.

Euskara inklusiorako bidea dela sinetsita antolatzen dituzte *Emakumeon* jabekuntzarako tailer eta ikastaroak*, harrera protokolo eta zerbitzuak, Auzoko programa, *Emetruke* tailerrak edota *Mundutik Arrasatera, Arrasatek mundura* ipuin kontaketa.

Hala, elkarlanerako espazio, ezagutzarako plaza eta eragiletzarako bide da Ekin: "Hizkuntza errealitate anitz honetan, euskarak irabaziko du baldin eta kohesio eta komunikazio hizkuntza nagusia izatea lortzen badugu". Horretan dihardute.



📍 Pablo Uranga 4, Arrasate

☎ 943 79 83 70

✉ emakumeak@ekinmakumeak.eus

🌐 www.ekinmakumeak.eus

UKONDARTZ

Doitasunezko mekanizazioa, neurrira egina

Neurrira egindakoa. Lau hamarkada pasa dituen enpresa bergararra definitzeko baliagarria izan liteke hitz-jokoa; baita, beren soiltasun eta bakardadean, bi hitzak.

Neurria. 1977tik daude plano bidezko mekanizazio-prozesuetan murgilduta. Aholkularitzatik hasi eta piezak entregatzeraino, hartua diote neurria "ibilbideari", bezeroen proiektuetan murgildu eta prozesua osorik kudeatzeari. "Edozein pieza mota neurrira" egiteari.

Eta egin. Unitateko loteetatik serie ertainetara; torneaketatik fresaketa eta artezketara. Motozikleten birabarkiak egiten hasi zen enpresa hura makina-erremintaren sektorean espezializatu da. Eta Euskal Herrikan kanpora begira jarri da, egiten jarraitzeko asmoz.

Bertakoa, baina, ez zaie ahanzturan erori; ezta komunikabideak ere. Neurrira egindako bidelagunak.

UKONDARTZ
Mecanizada de Precisión

📍 Aribar poligonoa 49, Bergara

☎ 943 76 36 70

✉ info@ukondartz.com

🌐 www.ukondartz.com



Doitasunezko mekanizazioan dago espezializatuta Ukondartz.

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



Arrolak Pirinioetara egindako lehen irteeran parte hartu zuten mendizaleak. ARROLA

Herriko natura ondarea eta kirola uztartzen jarraituko du Arrolak

2022ko azaroaren 11n beteko ditu ofizialki Arrola Mendizale Elkartek 50 urte. Urte hasieratik, hilero antolatu dituzte herritar ororendako ekintzak; eta martxoan, Arrolako kideei omenaldia egin diete, 'Arrola 50 urte mendiz mendi' liburuaren bitartez

Maidar Arregi ANTZUOLA

50 urte hauetan Arrolaren ibilbidearen izaera eraiki dutenei omenaldi ederra egin berri diete Torresorera aretoan. Elkar-tearen sorrera eta historia argazki eta testigantza aurkeztu dute Arrolako kideek herritarren aurrean; *Arrola 50 urte mendiz mendi* liburua ez ezik, baita osagarri zaion ikus-entzunezkoa ere. Liburuaren egileak, Iñigo Ramirez de Okariz historialariak, azaldu du liburuaren protagonistak Arrolatik igaro diren norbanakoak eta aurrera eraman dituzten jarduerak direla. "Argazki zaharrekin eta testigantzeekin liburuaren atalak aurkeztu ditugu. Aurkezpenean, liburuaren osagarri izan da ikus-entzunezkoa, alegia".

Gertaeren arabera dago antolatuta lana, eta lehen atalak, hain zuzen ere, kontatzen du

1972an zergatik eta zertarako sortu zen Arrola: "Garai hartako testuinguru soziopolitiko eta kulturala azaltzen dugu lehen atalean, ondoren datozten atalak uler daitezke. Eta beste atal horietan jasotzen dira Arrolak garatu dituen ekintza eta jarduerak: irteerak, ikastaroak, ibilbideak eta abar".

Hala, liburuan eguneko edo hainbat egunetako irteerak, kanpaldiak, Urteberri eguna, Argi Lekura eta Leizargaratera egindakoak, Finalista Eguna... agertzen dira. Horiek izan dituzte ikus-entzunezkoan berbagai. Eta argi utzi dute kirola egiteko talde bat izateaz gain, hori baino gehiago dela eta izan dela Arrola. Areago, herriko natura ondareaz arduratuta, hori zaintzen saiatu dela elkar-tea nabarmendu du historialari antzuolarrak: "Mendian ibiltzeaz

gain, gure natura ondarea zaintzearen beharra sentitu dugu: zuhaitz egunak antolatu, txabolak konpondu, iturrien berreskuratze lanean jardun, trenbide zaharreko bidea garbitu... Horrelako ekintzak egin izan ditugu urte hauetan guztietan".

Etengabeko egokitze prozesua

Elkarteko kideek kirola eta kultura bat eginda ulertzen dute. "Egun, gizarteko aldaketetara egokitzen ari gara. Elkar-tearen ibilbidea laburtuko nuke esanez sasoi ezberdinetara ahalik eta ondoen egokitzen jakin izan


LIBURUA HERRITARREKIN AUZOLANEAN EGINDAKO LAN POLIFONIKOA DA

Arrolaren hastapena gogoan



MARIPI LASKURAIN
ARROLAKO KIDEA

"Umetan hasi ginen mendi bueltak egiten, eta, zaletasuna sartuta, jarraitu egin dut. Pirinioetako irteeretan, zuzendaritzan ere izan nintzen, eta oso pozik. Adin askotarikoak batera joatea mendira, giro ona, jendea ezagutzea... Askok disfrutatu dut nik Arrolan".



BEGOÑA LETE
ARROLAKO KIDEA

"Kanpaldiak eta irteerak gogoan ditut, eta jende asko ezagutu genuen mendian. Oroitzapen oso onak ditut, eta, denboraren poderioz asko aldatu den arren, jarrai dezala taldeak. Juntako kide izan nintzen, eta ekintza ugari egin genituen. Txistulari taldea ere sortu zuen Arrolak".

duela Arrolak. Egokitze hori ez da amaitu, eta jarraitu egingo du. Horregatik, ondorengoek jakin beharko dute testuinguru berrietara nola egokitu".

Auzolana

Iñigo Ramirez de Okarizek adierazi duenez, artxibo lan handiaz gain, auzolanean egindako lana da mende erdiaren ibilbidea batzen duen lana: "Jende askoren beharra izan dut liburu honi eta ikus-entzunezkoari forma emateko. Jende askoren borondateari esker, dokumentuak eta

argazkiak lortu ditut, nik idatzitakoa jendeak etxean lasai aztertu du, eta gehigarriak edo zuzenketak egin ditugu elkarrekin. Horregatik, hain zuzen, lan polifonikoa dela deritzot; auzolanean oinarritutakoa".

Hala, interesa duten herritarrek elkarteko kideren batekin harremanetan jarrita lor dezakete liburua, 10 euroren truke. "Beste 50 ale eskatu ditugu; izan ere, guztiak agortu zaizkigu. Harre-ra bikaina izan du; gure asmoa da kamiseta eta kantinplorarekin eskuragai jartzea".

Arrolaren hiru une historiko



Aitzuriko buzoia. 1975eko abenduaren 15ean jarri zuen Arrola Mendi taldeak lehenengoz buzoia Aitzuriko tontorrean (1551 m); gaur egun, ordea, Aketegi izena darama eta plaka berria aldatu berri dute elkarteko kideek.



Txistulari taldea. Antzuolako txistulari taldea Arrolaren ekimenez jaio zen. Jose Inazio Jauregi Barberito-k sustatuta. Orduan ereindako hazia da egungo fruitua. Argazkian, 1975eko herriko jaietan txistulari taldearen kalejira agertzen da.



Marrazki lehiaketa. Arrolak bere hastapenean herriko gaztetxo eta haur ugari mobilizatzen zituen. Askotariko ekintzak egiten zituen herriko txokoak bertatik bertara ezagutarazteko. Argazkian, 1974an San Martzialen antolatutako marrazki lehiaketa.

Kreditu aldaketa zenbait hobekuntza lanetarako

290.000 euro inguruko kreditu aldaketa aho batez onartu berri du martxoko ohiko osoko bilkuran udalbatzak; gerakinetik aterako da kopuru hori, baina kreditu berria 40.000 eurokoa da. Hain zuzen ere, iazko lanei amaiera emateko bideratuko dute

M.A. ANTZUOLA

Askotariko gaiak eztabaidagai izan zituzten martxoko ohiko osoko bilkuran. Hala, aho batez zenbait obra amaitzeko kreditu aldaketa onartu zuten udalbatza ordezkaten duten hiru alderdiek –EH Bildu, EAJ eta PSE-EE–.

Izan ere, iazko udazkenean obra dezente jarri zituen martxan Antzuolako Udalak. Urte bukararako, ordea, lanok amaitu gabe geratu ziren, eta erabili ez zen dirua berriro gerakinera bueltatu dute aurtengo urtarrilean, legeak horrela aginduta. Orain, lanok amaitzeko berriro dirua atera beharrak ekarri du kreditu aldaketa hori. "290.000 euro ingurukoa da kreditu aldaketa; baina kopuru horretatik kreditu berria 40.000 eurokoa da. Zenbait hobekuntza egiteko bideratuko dira: egurrezko arrapalaren eskubandak jartzeko eta eskolako patiora sartzeko arrapala egiteko, besteak beste", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Oraindik, ordea, badaude herrian egiteko beste txukuntze lan batzuk ere: "Sagastiko belardia, egurrezko arrapalaren azpialdea, txukundu beharra dago; eta behin tirolina jarrita *pump track* parkeko belardia ere txukundu behar da, maki-



Antzuolako udalbatza, martitzeneko osoko bilkuran. MAIDER ARREGI

nek lur guztia harrotuta utzi baitute".

Olarango jauregiari ere azken ukitua ematea besterik ez zaio falta, eta apirilaren 8an, egubakoitza, inauguratuko dutela jakinarazi du Antzuolako alkateak. Horrez gain, Eztalako argiteria lanekin ere hasiko direla aurreratu du: "Futbol zelaiaren argiteria lanak atzerapena izan du: batetik, gai elektronikoen gabezia izan da; eta, bestetik, greba. Eta eguraldiak ere ez du lagundu".

Iruzurraren aurkako plana

Europako Next Generation funtsa eskuratu ahal izateko iruzurraren aurkako plana onartu zuten. "Udaletako idazkariekin eta Uemarekin elkarlanean egindako txostena da eta, hain zuzen ere, iruzurraren aurkako plana onartzen da bertan. Funtsean, Europako dirulaguntzetara aurkezteko aukera izateko plana da. Dena den, iruzurraren aurkako jarrerara garbia dauka Antzuolako Udalak".

Pilota eskolak herri txapelketa antolatu du maiatzerako

Olalde pilota elkartek antolatuta, maiatzaren 7an herriko pilota txapelketa jokatu da. Izena emateko epea apirilaren 10era arte zabalik dago, *labur.eus/OlaldeTorneoa* helbidean. Edozein adin tartetako gaztetxoek parte har dezakete. Izena ematea 8 euro da. Kamiseta nahi izanez gero, aldiz, 12 euro ordaindu beharko da.

OHARRAK

Hitzaldia: pantailen erabilera

Pausokak antolatuta, Amaia Arroyok bi solasaldi eskainiko ditu apirilaren 6an, eguaztena –0 eta 6 urte artekoendako– eta 7an, eguena –6 eta 10 urte artekoendako–, Torresoroan, 18:00etan.

San Isidro azoka

Herriko artisauek San Isidro azokan egoteko aukera dute. Hala, izena eman dezakete udaletxera joanda (943 76 62 46) edo posta elektronikoa idatzita: sormenantzuola@gmail.com.

Korrika Txikia

Gaur egitekoa zen Korrika Txikia atzeratu egin du Herri Eskolak, eguraldiagatik: hilaren 5ean izango da, 16:00etan.



Maialde hoteleko Izarra Arriaran 2019ko Herri Korrikako lekukoarekin. L.Z.L.

Elgetan, gaur, hainbat hitzordu Korrikarekin

Dikar enpresa parean hartuko dute Korrikako lekukoa elgetarrek, 11:53an. Parte hartzera animatu ditu herritarrek Korrika batzordeak. 18:30erako, berriz, Herri Korrika dago antolatuta, eta Elgetako 24 eragilek eskutik eskura ibiliko dute lekukoa

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA 2022ko Korrika ez da Elgetatik igaroko, baina Korrika batzordeko kideek hainbat proposamen egin dituzte ekimenarekin bat egiteko, eta parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrek.

Atzo abiatu zen leloa *Hitzekin* duen Korrika Amurriotik, eta gaur eguerdi aldera helduko da Debagoienara. Elgetako Udalak diruz lagundutako kilometroa 233.a izango da. Bergarako Dikar enpresaren parean hartuko dute lekukoa elgetarrek, 11:53 bueltan. Elgetar guztiak daude tarte horretan Korrika egitera gonbidatuta.

Herri Korrika, 18:30ean

2019an bezala, Herri Korrika antolatu du batzordeak. 18:30ean abiatuko da, Mendizaleen plazatik, eta San Roke kalean gora joango da tipi-tapa. Kantoikuan Artekalen behera egingo du eta Katai azpitik igarota Salvador kalean gora jarraituko du. Salvador ostetik itzuliko da Herri

Korrika, atzera ere, Mendizaleen plazara.

Herriko 24 eragilek baieztatu dute parte hartzea eta eskutik eskura ibiliko da lekukoa. Eragile horiek dira: Herri Eskola, erretiratuak, kontsumo taldea, guraso elkarte, Intxorta elkarte, Ozkarbi elkarte, abesbatza, emakume taldea, Goikoetxe harategia, Elkoro botika, Intxortako Ahuntzak Trail taldea, Mendi Mendia elkarte, EAJ, EH Bildu, Lola jatetxea, Ugari denda, Haizea taberna, Elgetako Udala, Herri Akademia, Piñukoku taldea, Zaldibar Argitu, Elgetan Berbetan, Goibeko Euskaltzaleen Topagunea eta Karrera denda. Ordezkarri guztiak udaletxe atarian elkartuko dira

ELUR ABISUA DAGO ELGETAN, ETA BALITEKE KALEAK ZURIZ JANZTEA HERRI KORRIKARAKO

18:15ean, nork zein lekutan egon beharko duen jakiteko.

Ozkarbi elkarteak txokolate beroa eskainiko du eta Intxorta elkarteak, txorizoa. Herri Korrika amaitutakoan, mezu bat irakurriko dute plazan, eta, jarraian, triki-poteoa izango da tabernaz taberna.

Autobusa Korrikaren amaierara

Korrika apirilaren 10ean amaituko da, Donostian. Amaiera ekitaldira joateko autobusa antolatu dute Debagoienetik. 10:15ean abiatuko da, Bergaratik, eta 20:00etan izango du itzulerako ordua. Prezioa 15 euro da eta erreserba egiteko Arrasateko AEK euskaltegian eman behar da izena: 943 77 03 69 edo arrasate@ae.eus.

Korrika Txikia, hilaren 8an

Herri Eskolak antolatuta, Elgetako neska-mutikoen hilaren 8an, barikua, egingo dute Korrika Txikia. 15:00 bueltan abiatuko da, ikastetxetik.



JULEN IRIONDO M. DE ZUAZO

Krisi energetikoa aztergai

EAJk gonbidatuta, Elgetan izan zen eguaztenean Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari Iñigo Ansola. Egungo krisi energetikoa izan zuen hizpide, eta esan zuen sektore eolikoan eta fotovoltaikoan urrats garrantzitsuak egin direla, baina itsas energia aprobetxatzeko teknologia garatzeke dagoela (Ikus 4. orria).



L.Z.L.

Luisa Trapagak, 100 urte

Martxoaren 25ean, 100 urte bete zituen Elgetako eguneko zentroko erabiltzaile Luisa Trapagak. Festa polita antolatu zioten zentroan; lore sorta ederra jaso zuen, eta zorian mezu ugari zentroko langileek egindako bideo batean. Familia inguruan zuela ospatu zuen mendeurrena. Ane Bilbao eta Garbiñe Irazabal udal ordezkariak ere bertan izan ziren.

Sun magoa Espaloian

Arrazoimenarendako ulergaitzak diren agerpenak eta desagertzen, ur-tankearen ihesa... Liluragarriak diren askotariko trikimailuak egingo ditu Sun magoak zapatuan Elgetan. Emozioa eta umorea oinarri dituen magia ikuskizuna 19.00etan hasiko da. Sarreraren prezioa 12 euro da, eta aurrez erosita 10 euro. Lola jatetxean daude eskuragarri.



SUN MAGOA

Elgetarrak ere bai tartean

Erronka ez zen nolanhikoa, eta maila eman dute Intxortako Ahuntzek. Hurrengo urtean berriz ere mendi lasterketa egongo ote den galdetuta, "baiezkotan" daudela esan du Eleder Lozanok. Eskerrak eman dizkie auzolanean aritu ziren guztiei

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Intxortako Ahuntzek makina bat buruhauste ibili dute azken asteetan. Lehen aldia zen mendi lasterketa bat antolatzen zutena, baina egindako lanak eman ditu fruituak eta pozik dira emaitzarekin. "Oso pozik gaude. Dena ondo irten zen, eguraldiak ere asko lagundu zuen, eta jendea pozik ikusi dugu", azaldu du Lozanok. "Azpimarratu nahiko nuke herriak auzolanean egindako lana. Argi gelditu da zelako handia izan daitekeen herri txiki bat!".

Intxortako Ahuntzak Trail taldeko mendi lasterkariei lan egitea egokitu zitzaizen domekan, baina pozik dira herrian sortutako giroarekin. "Lasterketa berriz antolatzekotan gaude, eta, ahal dela, urtero. Ea lortzen dugun hurrengoetan herriko enpresa gehiago inplikatzeari".

Lasterketa bizkorra

Parte hartzaile guztien artean hemeretzi elgetar izan ziren domekan irteera puntuan: hamaika Ahuntzen lasterketan eta zortzi Antxumeenean. Ez dira kopuru txikiak. Lasterketa, bestalde, bizkor joan zela uste du Lozanok. "Espero nuen lehenengo denbora horretan sartzea, baina azkenak hain bizkor sartzea ez. Batez bestekoa oso bizkorra irten da".

Mendi tontorretan zegoen giroa ere polita izan zen. "Goikomendin eta Erdella bazen jendea, baina, batez ere, oso polita izan

zen Intxortan halako jendetza ikustea", azaldu du.

Hurrengo edizioetan nesken eta emakumeen partaidetza handitzea dute helburu: "Ez dira kopuru txikiak izan aurten, baina handitzea gustatuko litzaziguke. Ea lortzen dugun". Txikitatik aukera edukitzea eta beste emakume batzuk parte hartzen ikustea dira bide horretan neurri eraginkorrenetako batzuk.

Parte hartzaileak, pozik


"Lasterketa oso polita iruditu zait", esan du Ibai Larrea antzuolarrak. "Paisaiari dagokionez oso ederra, eta trazatuari dagokionez aldapak ez dira asko, baina daudenak oso gogorak dira". Iritzi berekoak dira beste asko: "Giro ona", "lasterketa polita" eta "bueltatze modukoa"; horiek esan zituzten askok.

NAGUSIEN LASTERKETAN HAMAIKA HERRITAR IRTEN ZIREN, ETA GAZTEETAN ZORTZI




Maddi Etxaniz eta Alazne Lozano elgetarrak Antxumeen lasterketako azken metroak egiten. IMANOL SORIANO

Nola bizi izan duzu lasterketa?




IÑAKI EGIZABAL
1. ELGETARRA GIZONETAN

"Lehenengo lasterketa izanda lehen elgetarra izatea polita da. Kostako zait eustea, ia 49 urte ditut-eta! Kar-kar. Oso polita da Elgetak ere bere mendi lasterketa edukitzea. 10-15 urte dira alde batetik bestera gabiltzala mendi lasterketetan, eta orain herrian bertan bat egotea oso polita da nire ustez".




URKO LOZANO ETXANIZ
1. MUTIL ELGETARRA

"Denbora hobea egitea aurreikusten nuen, beheranzko bidean gaizki sentitu naiz. Lasterketa oso polita da. Hurrengo urtean Ahuntzen lasterketa egiteko adina izango dut, eta hobea da niretzat. Antxumeen lasterketa esprinta da eta ibilbide luzeagoak nahiago ditut. Animatzen dut jendea parte hartzera".



SAIOA UGIDOS
1. ELGETARRA EMAKUMEETAN

"Intxortako Ahuntzak lasterketa oso polita iruditu zait. Oso polita eta oso dibertigarria. Oso ondo pasa dut, eta asko gustatu zait. Nabarmendu nahiko nuke antolakuntza. Lan oso ona egin dute. Zalantzarik gabe, errepikatze moduko lasterketa dela iruditzen zait, eta animatuko nuke jendea parte hartzera".



MADDI BARRUTIA UGIDOS
1. NESKA ELGETARRA

"Goikomendira igotzeko aldapak nahiko gogorak dira, baina jaitzieretan indarbertzeko aukera dago. Gurasoekin egin izan ditut entrenamendu batzuk bidea ezagutzeko. Lasterketa luzea egin dute, eta oso gustura ibili dira baita ere. Parte hartzeko esango nieke beste batzuei. Lagun bati ere hala esan diot".

Ahuntzak

Iñaki Egizabal	1:26:13
Martin Egizabal	1:30:46
Pablo Egizabal	1:31:03
Andoni Elorza	1:44:05
Ibai Etxaniz	1:47:18
Saioa Ugidos	1:48:11
Haritz Barrutia	1:48:15
Iker Diez	1:49:52
Jone Elgoro	1:49:59
Asier Askasibar	1:57:36
Mikel Elgoro	2:07:02

ITURRIA: HERRIKROSA.EUS

Antxumeak

Urko Lozano	0:18:23
Unai Fraile	0:19:06
Unax Agirre	0:19:31
Ander Sarasua	0:22:04
Txabi Cot	0:23:57
Maddi Barrutia	0:27:16
Alazne Lozano	0:28:01
Maddi Etxaniz	0:28:03

ITURRIA: HERRIKROSA.EUS



Plaza ondoko jolasgunean gaztetxoak eta helduagoak. O.E.

Erabiltzaileekin landuko dute jolasguneen egoera

Jolasguneen erabiltzaileen ekarpenak jaso gura dituzte, izan haur, nerabe, guraso edo zaintzaile. Apirilean idatziko dute diagnostikoa, maiatzean herritarrek proposamen horiei eginiko ekarpenak jasoko dituzte eta ekainean lanketa definitiboa egingo dute

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Herriko jolasguneen diagnostikoa lantzen hasiko da Oñatiko Udala, Projekta Urbes enpresarekin elkarlanean. Jolasguneetako erabiltzaile guztien ekarpenak jaso gura dituzte, haur, nerabe, guraso zein zaintzaile, eta ez bakarrik zabuak edo txirristak dauden jolasguneetakoak, bestelako espazioetako erabiltzaileenak ere bai.

Ohikoak zein bestelakoak

Oñatin gozamererako erabiltzen diren espazioen diagnostikoa egin gura dute, bereizketarik egin gabe. "Diagnostikoa hau ez da ohiko jolasparkeetara mugatuko, zabuak eta txirristak dauden guneetara bakarrik. Hortik haratago doa. Ikusten dugu herriko neska-mutikoei bestelako eremuak ere hartu dituztela denbora-pasarako, eta horiek ere aintzat hartuko ditugu", Haur Eta Gazteriako batzordeburu Iker Oñateren esanetan.

Haurren eta nerabeen garapen osasungarria bultzatzeko bidean, kontuan izango dute haien zaintzaz arduratzen direnen ongizatea ere. Inguru estimulatzaileak, seguruak, konektatuak eta irisgarriak sortu nahi dituzte, adin, genero, jatorri eta gaitasun aniztasuna kontuan hartzen dituzten jolas integratzaileak eta partekatutakoak landuta. Horra heltzeko, parte hartzean oinarritutako saio batzuk egiteko deialdi irekietara gonbidatu dituzte herritarrek. Lehenengoa gaztelekuan izango da, apirilaren 7an. "Proiektua aurkeztuko dugu eta begirada zabaldu, adibideak ikusiz. Helburua da diagnostia egiterakoan ez erreparatzea egun Oñatin dagoenari, baizik zer

APIRILAREN 7AN DA LEHEN SAIOA, GAZTELEKUAN, 17:00ETAN HASITA, TXANDAKA

egin daitekeen. Horregatik, laster, datozen oporretan kanporako planak izanez gero, begirada zabaldu eta ikustea da gure proposamena, gero ekarpenak egiteko", nabarmendu du proiektuaren gidaritzaren daraman Patxi Galarragak. Hilaren 7ko saioan, 17:00etan hasiko dira guraso, hezitzaile eta zaintzaileekin; 18:00etan, 6 eta 12 urte arteko haurrekin; eta 19:00etan, 12 urtetik gorako nerabeekin.

Gerokoa marrazten

Hala, agintaldi hasieran hartutako konpromisoari heldu gura diote, eta prozesu honek esangura handia izango du geroko marrazketan. "Haurren eta nerabeen kasuan ere ikusten dugu euren garapenean, heziketan, jolasguneak bitartekoak ere badirela, eta erabaki genuen aztertu egin behar genituela, egiten ditugun aldaketak koherentzia eta plangintza baten barruan egitea", Iza-ro Elorza alkateak dioenez.

Gerakina non inbertitu lantzen ibili da Udal Gobernuak

6,3 milioi euro utzi ditu 2021ak eta proiektu berriak sortzeko eta estrategikoak indartzeko erabili gura ditu

O.E.G. OÑATI

Joan den urteko likidazioa egin da, 2022ko aurrekontuen berrantolatze proposamena egin du Oñatiko Udal Gobernuak. Dio 6,3 milioi euroko gerakina utzi duela 2021ak, "aurrekontuen gauzatze maila %89koa" izanda. "Udaleko kontu hartzaileak eginiko txostenak dioen moduan, %89koa izan da 2021eko inbertsioen gauzatze maila; alegia, 2000. urtetik gaur artera arteko altuena –kontu hartzailearen txostenak 2000. urtetik 2021era artekoak ditu jasoak–".

Datu horiekin, dirua proiektu berriak sortzeko eta daudenak indartzeko erabili gura dutela dio oharrean Iza-ro Elorza alkateak: "Behar berriak identifikatzen eta aztertzen jardun dugu azken hilabeteetan, han eta hemen bilerak egiten. Ikusi dugu diru partida berriak sortzeko beharra zegoela zenbaitetan –esaterako, eskatuak zeuden proiektuak jaso ostean–, eta sorturik zeudenak indartzeko, beste kasu batzuetan. Ahalik eta proposamen osoena, askotariko alorrek barnebiduko lituzkeena, egitea izan da geure helburua".

Hainbat proiektu

Aurreko urtean bezala, urtebete aurreratuko luke Zubikoa kiroldegirako eskatutako maila, adibidez. 2021etik hasita edo konprometiturik dauden egitasmoekin jarraitzeko, 1,5 milioi euro inguru bideratu gura ditu Udal Gobernuak 2022ko aurrekontuetara. Egin gura dituen beste asmoen artean, "proiektu estrategikoen partida indartzeaz aparte": Azkoagain futbol zelaiko hobekuntzetara –100.000 euro gehiago–, Urrutxuko zigilatze bigarren faserako –milioi bat euro–, Torreauzoko zubiko lanetara –250.000 euro eta Arantzazu auzoan ur edan-garriaren arazoari erantzuna ematera –200.000 euro– bideratu gura luke, esaterako, Udal Gobernuak gerakina. Udal Brigadaren lan bitartekoak hobetzeko 215.000 euroko partida ere proposatu du, "kamioi bat erosi beharra" dagoela ikusita.

Torreauzoko oinezkoen pasabideari dagokionez, aurreratu du gaia Aldundira ere eraman dutela. "Ondo ikusi zuen. Horrekin, konponbidea eman gura diegu egungo zubiak sortzen dituen arazoei", dio Elorzak.

GORA ETA BEHERA



Ibilbide irisgarria, ez hain egoera onean

Arantzazuko ibilbide irisgarrian hobetu beharrekoak ikusi ditu irakurle batek: "Heldulekua erabiliz, adibidez, zauriz beteko zaizkio eskuak itsu bati. Zuloak ere badaude zoruan".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

"Erasoak identifikatzeak tresnak emango dizkigu"

JONE ZALDUEGI HEZITZAILEA

Autodefentsa ziberfeministari buruzko saioa egingo du Oñatin hilaren amaieran, Jabetze Eskolaren barruan. Udal webgunean sartuta eman behar da izena

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Jabetze Eskolaren baitan, urtero lantzen dute autodefentsa feminista, modu batera edo bestera, "indarkeria matxisten aurrean estrategia bat planteatzen duelako". Apirilaren 28an, autodefentsa ziberfeministarekin lotutako saioa egongo da, 16 eta 25 urte arteko neskendako, Euskaldun Berria gelan, doan. Emokiko Jone Zalduegi (Bilbo, 1987) izango da irakaslea. Aurrez eman behar da izena.

Ohikoak dira erasoak espazio digitalean?

Denok gaude espazio digitalean, guztiok erabiltzen ditugu. Harremantzeko tokiak ere badira, egoerara moldatu dira, eta arazoak sortzen dira batzuetan, bai.

Eman ditzakezu adibide batzuk?

Neska batek norbaitekin argazki bat partekatu, hark beste batekin, hirugarren batek sare sozialen batera igo eta izugarritzko bola handi bat sor daiteke. Gure momentu erotikoa, gozamenarekin lotura dutenak, ere badaude, eta, sarri, min egiteko erabiltzen dira horiek, baita mehatxu moduan ere. Eta ez dut esan gura horiek egin behar ez ditugunik, erotikarekin berotzea ere zilegi da. Horrelakoetan jakin behar dugu, adibidez, aurpegia ez erakusten edo ditugun bereizgarriak –tatuajeak, orbanak, piercingak...– ezkutatzen. Norbera aurpegi txarrarekin agertzen den argazkia ere erabiltzen da min egiteko.

Harreman barruan zein kanpoan gertatzen dira?

Bai. Harreman baten barruan, esaterako, kontrolak indar handia hartu du, emakumea kontrolatzea, kokapena une oro jakin beharra, kalera zein jantziekin ateratzen den ikusi beharra... Eta bideoei eta argazkiei egiten zaizkien iruzkinak, epaiketak, normalizatu egin dira. Emakumeak eta LGBTQ kolektiboa oso erasotuak izaten dira, adibidez.



Emokiko koordinatzaile eta hezitzaile Jone Zalduegi. J.Z.

"ESPazio DIGITALERA BIDALTZEN DUGUN DENAK DU ERAGINA ETA DENA GELDITZEN DA ERREGISTRATUTA"

Egunerokoan ere ikusten da hori, eta espazio digitalean ere gertatzen da, bizitzaren isla bat da. Atzerapausoa eman dugu.

Eta zer egin horrelakoan aurrean?

Ahalduntze barruan, oso garrantzitsua da eraso horiek identifikatzea. Formak, moduak, identifikatzen badituzte, nik ere tresnak izango ditut horiei erantzuteko. Autozaintza, autozagutza eta niretako osasuntsua den bizitza bat nola bizi ahal dudana jakitea oso garrantzitsua da.

Hitz egiten da lagunen artean egoera hauei buruz?

Partekatzea beti da ona. Laguntza, berotasuna, garrantzitsuak dira. Nagusiek elkarren artean bai, baina gurasoekin ez.

Zer egin dezakete gurasoek?

Batzuetan, nahikoa da ezagutzea eta egotea. Gurasoek ez dute une oro jakin behar seme-alabak zertan ari diren, baina komeni

da hasieratik gaia lantzea. Egun, Lehen Hezkuntzan hartzen dute lehen eskuko telefonoa gazte-txoek. Garrantzitsua da une horretatik eurekin batera partekatzea erabilerak, orduak, hitz egitea jolasten ari diren bideo-jokoez, ezagutzen dituzten espazio digitalez, laguntza eta tresnak eskaini... Jarraibide batzuk jarri eta erabilera partekatzea garrantzitsua dela iruditzen zait. Horrez gain, noski, gaztearen animoan edo jarreran, adibidez, arreta jartzea ere ondo legoke.

Zer izan behar dugu kontuan?
Zenbat *gu* garen espazio digitalean, eta zenbat eragiten digun. Ia dena da gezurra hor, baita argazkiak ere, aukeratu egiten ditugu eta zeintzuk igo. Norberaren estimua *atsegin* kopuruan neurtzea ez da ona. Bestalde, kontuan izan behar dugu espazio digitalera bidaltzen dugun guztiak duela eragina, eta dena gelditzen dela erregistratuta, ezabatzen diren iruzkinak barne. Modak eta talde presioek eragin handia dute, baina gaur asko daude aisialdirako, eta bilatu egin behar dira, zaila izan arren. Bizitza osasuntsua izatea da garrantzitsua.

Baso eta espezie autoktonoen aldeko eskultura jarriko dute

Bertako baso eta ekosistemak osatzen dituzten espezie autoktonoei balioa eman gura die Udalak, eta espezie autoktonoekiko apustu hori euskarri ikusgarri eta iraunkor bat sortuz erakutsi gura du. Elementu eskultoriko bat jarri gura du, eta hori aukeratzeko ideia lehia-keta abiatu du; baita aukeratu-tako lana gauzatzeko kontratua ere. Eskultura osatzeko, material naturalak eta karbono aztarna txikia dutenak lehenetsiko dira, baina edozein figura edo konposizio proposatu daiteke, apirilaren 22a aurretik. Egiteko eta instalatzeko zortzi hilabeteko epea zehaztu dute, eta 14.999 euroko aurrekontua finkatu.

Korrika propiorik ez, eguraldiagatik, eta Txikia, kolokan

Oñatiko Korrika propiorik ez, eguraldiagatik, erabili behar ziren materialak ezin direlako erabili. Parte hartzeak ziren eragileei, baina, zuzenean Elorregira joateko gonbidapena egin diete, han hartuko duelako Oñatik lekukoa, Arrasaterantz. 12:30ean oñatiarrak Elorregin egoteko da deia.

Hori horrela, Korrika Txikian maila guztietako ikasleek parte hartzea zen asmoa, ohiko ibilbidea luzatuta. Baina gaur, egubakoitza, goizean, erabakiko dute, eguraldia ikusita, asmo horrekin aurrera egin edo ez. Bertan behera geldituz gero, astelehenean egingo dute.

Arduradun berria behar dute Pake Lekuko tabernan

Pake Leku erretiratuen elkarteak tabernaren arduradun berri bat behar du, negozioa aurrera eramateko. Egungo arduradunek zeregin hori uztera doaz, eta horien ordez tabernaz arduratuko den norbaiten bila hasi dira. Apirilaren 20a aurretik jaso gura litzukete interesatuen eskaerak –izen-abizenak eta curriculum– elkartean bertan. Inork

gaiari buruzko informazio gehiago jakin nahi badu, Pake Lekuko bulegora joan daiteke eta hantxe jaso: astelehenean eta eguaztetenetan, 09:30etik 11:00era.

Taberna izaten da Pake Lekuko kideen topagunea, elkarrekin egoteko espazioa. Ekintzak ere antolatzen dituzte bertan; bingoa eta ospakizun egunetako moka-dutxoak, tartean. Toki estimatua da erretiratuendako, eta arduradun berri bat topatu gura dute orain, aurrerantzean ere horrelaxe izan dadin.



NIRE USTEZ

ARANTZAZU UGARTE

Errefuxiatu(ekiko) (hipo)krisia

Ez naiz arrazista, baina... hara; pentsaera iluna zuritzeko beste saiakera bat. Itxurakerien lehian nor baino nor hobeak gara. Eta ez da arraza kontua bakarrik; desberdinen kontzeptua mehatxuaren sinonimotzat daukan gizarte ustez aurrerakoa da gurea.

Egunero daukagu Ukrainako basakeriatik ihesi datozen errefuxiatuen berri. Europa osoak, Polonia buru, besoak zabalik hartuko ditu auzokideak, gerratik babesteko. Gizatasun pixka bat nahikoa da, honek horrela izan behar duela ulertzeko. Baina oraingoan hain ondo ulertzen badugu, zergatik ez dugu berdin jokatzeko errefuxiatu guztiekin? Ez al du gure babesa merezi edonolako injustizia eta sufrimendua jasaten ari den edonork? Zurikeria hutsa.

Joko bikoitzaz ohartuta, hasi gara bakearekin batera, berdintasuna aldarrikatzen. Baina kontuz; batzuen hipokrisia ez dadila bihurtu besteen aitzakia. Sarrionandiak senez esan bezala, "nekez uzten du bere sorterrria sustraiak han dituenak". Izan gaitzen, bada, sustrai horientzat lur emankor.



Hainbat gaztetxo, 2018an egindako Trauti egunean. GOIENA

Kirol egokitua, gaztetxo guztien eskura zapatuan

Oñatiko Eskola Kirolak, Atxintxika Triatloi Taldearen kirol egokituaren sailaren laguntzarekin, Zubikoan hiru gune prestatuko ditu, neska-mutikoek kirol egokituko zortzi kirol proba ditzaten. Guztira, 215 parte-hartzaile espero dituzte jardunaldian

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI
Kirol egokitua denentzat izenpean, Oñatiko Eskola Kirolak alboan izango du Atxintxika Triatloi Taldearen kirol egokituko saila bihar, zapatua, 09:15ean hasita Zubikoan kiroldegian egingo duten askotariko kirol egokituak probatzeko jardunaldian.

Askotariko kirolak

Kiroldegiko hiru gunetako bakoitzean frontoian eta bi kantxetan hiruzpalau kirol probatzeko aukera izango dute eta taldeka umeak txandakatzen joango dira, kirol guztiak probatzeko aukera izan dezaten. Hauek izango dituzte, zehazki: boleibol egokitua, ping-ponga eta badmintona, atletismoko aulki gurgildunak ere egongo dira, *handbike*-ak eta eskuko bizikletak ere bai, itsuek bezala korrika egiteko antifazak, boccia eta *goalball* izenez ezagutzen den itsuendako futbola.

Emaitzak eta denborak baka-rik ez, kirola hori baino askoz

gehiago dela azpimarratu du Atxintxikaneko Aitor Rementeriak: "Gure proiektuaren muina da integrazioa eta normalizazioa erakustea, edozeinek kirola egin ahal duela. Eta dauden kirol desberdinetatik batzuk aukeratu ditugu etxean egon daitezkeen neska-mutiko edo nagusiei ere ikustarazteko kirola egitea ez dela ezinezkoa inorendako. Kirol mota bat ez bada, beste bat izan daiteke. Kirolak dauzkan balioak laguntasuna, talde lana eta gauza nekezei aurre egiteko gaitasun hori edozeinek izan ditzakeela erakutsi nahi dugu. Beste balio pila bat dauzkala kirolak". Gaineratu du txikitatik umeei hori irakatsiaz nagusitan egon

"GURE PROIEKTUAREN MUINA DA INTEGRAZIOA ETA NORMALIZAZIOA ERAKUSTEA"

daitezkeen "arazo ugari ekidin" daitezkeela.

Lehen aldia

Guztira, 215 neska-mutiko espero dituzte. Oñatiko Eskola Kiroleko gaztetxoez gain, bailara mailan kirol egokituan dihardutenak ere izango dira. Gidari lanetan hogeitaz hamar inguru egongo dira; herriko, Arrasateko eta Bergarako eskola kiroleko hainbat monitore eta Atxintxikaneko hainbat lagun.

Antolaketa lan handia izan duela adierazi dute; esaterako, hamar aulki gurgildun Gasteizko Zuzenak kirol taldetik ekarriko dituzte. Bailara mailan horrelako jardunaldi bat antolatzen lagunduko duen lehen aldia izango da Atxintxikakoendako, eta sentsibilizazioan lan asko egiteko dagoela esan du Rementeriak: "Ez gaude ohituta aulki gurgildunak eta itsuak kirolean ikustera... Norberak joan behar du aukerak bilatzera. Lan handia daukagu egiteko".

Alpinismoan sakontzeko bi oñatiar hautatu dituzte

Iñaki Mendizabal eta Jon Etxarri Espainiako eta Euskadiko alpinisten teknifikazio taldeetan izango dira

A.T.G. OÑATI

Alpinismoan eskarmentu handia duten bi oñatiar aukeratu dituzte Euskadiko eta Espainiako gazte alpinisten teknifikazio taldeetarako: Jon Etxarri eta Iñaki Mendizabal, hurrenez hurren.

Etxarri, Euskadikorako

Juan Vallejo arabarrak gidatuko duen Euskal Mendizale Federazioko gazte alpinisten teknifikazio taldeko kideetako bat da Jon Etxarri.

Euskal Mendizale Federazioren deialdira aurkeztu eta probak egindakoen artean izan da aukeratua oñatiarra. Beste bost lagunekin batera, Juan Vallejok zuzenduko duen gazte alpinisten teknifikazio taldeko kide izango da datozen hiru urteetan.

Panticosako (Huesca) Tena ibarrean egin zituzten taldeki-deak aukeratzeko hautapen probak.

Denbora horretan, alpinismo-ko ezagutza sakonduko dute, izotzetan zein haitzean, esaterako, eta segurtasunari buruzko saioak ere izango dituzte. Hilean irteera bat egingo dute, Vallejok zuzenduta; uda partean Alpeetara luzeago bat; eta hirugarren urtean Europatik kanporako beste bat ere bai. Lehen irteera asteburuan egingo dute, Piriñoietara.

Mendizabal, Espainiakorako

Iñaki Mendizabal, berriz, Espainiako alpinisten taldeko kide da. Otsailaren 25ean egin zituzten probak, Panticosan. 32 lagun joan ziren, 16 mutil eta 16 neska, eta hantxe aukeratu zituzten talde bakoitzeko zazpi kideak 2022-2024 epealdirako. Hautatuen artean dago Iñaki Mendizabal. Mikel Zabala nafarra izango da talde honen gidaria.



Jon Etxarri alpinista oñatiarra. JON ETXARRI

Garaipenaren bila aterako da areto futboleko taldea bihar

Azken partiduetako garaipenei esker, bigarren postuari eusten dio Ingou Coinbroker Aloña Mendi areto futbol taldeak; bost puntura daude lehenengoa eta hirugarrena. Asteburuan etxean jokatu dute laugarrenaren aurka eta sasoi onarekin jarraitu eta norgehiagoka irabaztea dute helburu. Bihar, zapatua, izango da, 18:00etan, Zubikoan.

Apirilaren 23an jokatu dituzte beterranoen finalak

Herri mailako futbol denboraldiko finalak apirilaren 23an jokatu dituzte, Azkoagainen. Albok eta Tutelatruko taldeen artean izango da kopako finala, 15:30ean, eta ligakoa, berriz, Mazedonia eta Iturritxo taldeen artekoa, 17:00etan. Final horren ostean hasiko da ohiko sari banaketa: goleatzaile nagusia, jokalaririk onena eta beste hainbat.

"Zuri-beltzean istorioak hobeto kontatzen dira"

XABIER REZABAL ARGAZKILARIA

Eltziako tabernan jarri du ikusgai Xabier Rezabalek argazki erakusketa; zuri-beltzean ateratako erretratuak, paisaiak eta itzalak daude bertan, maiatzera arte

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Normalean, argazki erakusketak instalazio zabaletan egiten dira, aretoetan, baina bestelako toki batzuk ere aproposak izan daitezke artisten lanak ezagutzeko. Adibidez, tabernak. Kafe bat edo trago bat hartu bitartean parteko argazkiei begira hausnarketa interesgarriak sor baitaitezke. Horixe bera bilatu du Xabier Rezabalek, Oñatiko Eltzia eraikineko tabernan.

Tabernara sartu eta erretratu be-rezi bat ikus daiteke, ezta?

Bai; Pako da. Francisco, Patxi edo Pakiño ere deitzen diote, dagoen lekua araberak. Kanean bizi da 17 urte zituenetik –orain 63 dauka– eta Oñatitik urtean bizpahiru aldiz pasatzen da. Orain dela 13 bat urte ezagutu nuen, Bidaurretan, eta lagunak egin gara. Hasiara batean, ezin diozu edozeini argazkia atera, eta berarekin konfiantza lortu nuen, lagunak eginda. Bost urteko lanketa behar izan nuen argazki hori atera aurretik. Hori atera nuenean, lasai zegoen nirekin. Argazki gogorra da, kanean egindako bizitzaren marka ugari ikus daitezke bere aurpegian, eta erabaki dugu tabernaren sarreran jartzea, begirada desafiatazalea daukalako. Barrura sartzen zara eta lehen begiradan kolpe moduko bat jasotzen duzu hori ikustean.

Elkarrizketa moduko bat proposatu nahi izan duzu, gainera, argazki horren eta tabernaren barrenean dagoen erretratuaren artean.

Bai; pentsatu nuen bi horien arteko tentsiozko elkarrizketa bat proposatzea. Pakok harrera egiten dizu tabernara sartzen zarenean, eta, begirada hori jaso eta gero, horrek bidaltzen zaitu beste argazki horretara. Bigarren horretan dago Iturenen ateratako argazki bat. Hor pertsonaia batzuk irteten dira mozorrotuta, desafiatazale moduan ibiltzen direnak kanean zehar. Gustatzen



Rezabal, erakusketan dagoen Pakoren lehen argazkia atzean duela. H.L.

"ERAKUSKETAN, DITUDAN PROIEKTUEN LAGIN BAT IKUS DAITEKE, EZ DA GAI BAKARREKOA"

zait Aratusteetan eta jaietan argazkiak ateratzen ibiltzea; bai Valentzian, hemen inguruan, edo baita Nafarroan ere.

Paisaiak eta itzalak ere ageri dira zure argazkietan.

Erakusketa hau ez da gai bakarrekoa, momentuan dauzkadan proiektu batzuen lagin bat ikus daiteke. Paisaiak oso gutxi ateratzen ditut, eta, gehienbat, etxe ondokoak dira. Normalean, ateratzen ditut egun ilunetan, lainotsuetan, euritsuetan. Ez zait gustatzen orokorrean atsegin diren argi horiek daudenean ateratzea argazkiak. Ez naiz gustura sentitzen. Erosoago sentitzen naiz neguko giro hori jasotzen.

Zuri-beltzean daude guztiak.

Betidanik gustatu izan zaizkit zuri-beltzeko argazkiak. Argazkilaria hasi nintzenean, horrela egiteko arrazoia zen merkeagoak

zirelako. Etxean positibitatea posible zen, eta merkeagoa, koloretan egitea baino. Koloretan egitea garestiagoa zen eta prozesu motelagoa zeukan. Horrek sortu zidan erakarpen bat zuri-beltzean egiteko, eta gehienak horrela egiten ditut. Koloretan egiten ditut enkarguak edo beste batzuetako lanak, baina niretzako egiten ditudan zuri-beltzean izaten dira. Argazkiak ikusten ditut eta pentsatzen dut istorioek hobeto aguantatzen dutela zuri-beltzean eta hobeto kontatzen direla. Beharra daukat, gainera, argazkiak paperera pasatzeko. Argazki batek, bukatuta izateko, nire ustez, paperean edo euskarri fisiko batean egon behar du. Eta, noizbehinka, gustatzen zait kopiak egitea, eta aukera badago pareta batean zintzilikatze eta erakusteko, hobeto.

Nolako kamerak daukazu?

Bi erabiltzen ditut. Nahiz eta batzuetan kontzertuetara joaten naizen objektibo bakarrekin eta lan guztia horrekin egiten dudana. Gustatzen zait argazkiak ateratzeko buruari bueltak ematea. Izan ere, horrek bultzatzen nau mugitzeko behartuta egoitera eta sormena lantzerako.

Doluari buruz jardungo dira 'Eresia' ikuskizunean

Udalbiltzaren *Geuretik sortuak* ekimenaren barruan sortutakoa da *Eresia*; dolua gaitzat hartuta, antzerkia eta dantza fusionatzen duen arte diziplina. Bertako protagonistak dira Oier Zuñiga, Belen Cruz eta Eneko Gil, eta etzi, domeka, 19:00etan, eskainiko dute, Santa Ana antzokian. Sarrerak ohiko lekuetan eros daitezke, 8 euroren truke.



Oier Zuñiga aktorea. IMANOL SORIANO

Broken Legacy taldeak diskoa aurkeztuko du bihar

Hortzimuga izeneko bigarren diskoa argitaratu berri du Broken Legacy, eta hori aurkezteko lehen kontzertua etxean emango dute bihar, zapatua.

Oñatiko Letagin taldekoak ere kontzertua ematekoak ziren, baina taldekide baten osasun arazoak direla-eta ezin izango dute kontzertuan jo. Penaz, haxe esan du Julen Agirre talde-

kideak: "Ilusioz gainezka geunden aspaldiko partez herrian jo behar genuelako, eta latza izan da albistea onartzea. Helduko da arantza ateratzeko momentua". Euren ordez beste talde bat lortzeko lanetan dabilta gaztetxe-koak, eta adierazi dute lotzen dutenean sare sozialen bitartez iragarriko dutela talde berria.

Galdakaoko Calathea ere izango da oholtzan. 20:30ean hasiko dira kontzertuak eta sarrera 5 euro izango da; langabeendako, berriz, 3 euro.

Aloña abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur Santa Anan

Pandemia ostean, Santa Ageda bezperan irteten ziren kalera kantuan egitera lehen aldiz Aloña abesbatzako kantariak. Orain, baina, euren lehen emanaldia egingo dute areto batean gaur, egubakoitza, 18:30ean, Santa Anan. Udaberriko kontzertua izango da, eta, besteak beste, abestuko dute Antonio Ibarrondoren *Udaberriko loreak* kantua.

Urriari berrartu zituzten entsegua, eta, Gabon ostean hiru bat astez entsegu barik egon ostean, kantariak "ilusioz" joan dira orain arteko entsegu guztietara, Ainhoa Galdos zuzendariaren hitzetan. Eta gaurko zuzenekoari begira "gogo bereziz" daude, orain artean egindako lana herritarren aurrean eskaintzeko.

Hamar kantuko erreperorioan, batzuk *a capella* abestuko dituzte, eta beste batzuetan, Jose Luis Bikuña akordeoilariaren laguntza izango dute.

'Beita'-ren diru bilketa kanpaina, amaierara iristear

Dagoeneko 5.100 eurotik gora jaso du *Beita* websaila egin ahal izateko *crowdfunding* kanpainak, baina oraindik ekarpenak egiteko aukera dago, apirilaren 5eko 11:00ak bitartean. *Itsulapikoa.eus* webgunearen bitartez egin daiteke hori. Taldekideak "pozik" daude, baina diote oraindik "lan asko" dagoela eta diru askoren beharra dutela.

The Northagirres eta Turbofuckers taldeak gaur Ikatz tabernan

Urretxuko The Northagirres taldeak *Cavare* izeneko diskoa aurkeztuko du Ikatz tabernan, azken hilabeteetako geldialdiaren ostean. Rock-and-roll eta punk doinuak joko dituzte, bestetik, Bilboko taldekide osatutako Turbofuckers taldekoek. 21:00etan hasiko dira kontzertuak eta sarrera 5 euro ordaindu beharko da.

Xabier Urtzelai BERGARA

Txuri-Urdin izotz-hockey taldeak sekulakoa egin berri du. Liga erregularrean lan ederra eginda –hamalau partidu, porrot bat–, finaleko bi partiduetan kategoriako oilar Majadahondari irabazi zioten, eta garaikurra ekarri zuten Donostiara. Final horiek ordezkoen aulkitik jarraitu zituen Ainhoa Salillas atezainak (Bergara, 17 urte); min hartuta zegoen Holly Steeples atezain titularra justu-justu errekuperatu zen finalerako. Baina finalaurrekoetan, Majadahondaren kontra, bergararra izan zen atea zaintzen, eta hark egindako lanak aitortza izan du taldekide askoren partetik, baita entrenatzailearena ere. Astelehenean (21:30) *Harmailatik* saioan izango da.

Txuri-Urdin taldearekin liga irabazi berri duzu; zer-nolako bidea egin duzu bertara iristeko?

Gaztetan hasi nintzen Bergarako Burdinola hockey taldean jokatzen; orain, Txuri-Urdinen jokatzearekin batera etxeko taldean ere jokatzen dut; eta duela urte batzuk, nire taldekide Onintza Ibarzabalek talde donostiarrrak antolatzen duen campusean esku hartu zuen. Han jakin zuen Txuri-Urdin atezain bila zebilela, eta nire izena aipatu zuen. Hala, nire jarraipena egiten hasi ziren, taldera batzeko proposamena egin zidaten arte.

Iaz, ez zenuen askorik jokatu, baina aurten, finalerdietako protagonistetako bat izan zara...

Iaz, ez nuen askorik jokatu, hasiberria nintzen, eta, bestela ere, taldean esperientzia eta maila oso handiko atezaina dugu, Holly Steeples. Baina aurten, gehiago jokatu dut, eta egia da finalerdietan ni izan nintzela atezain titularra; Valdemorori irabazita sailkatu ginen finalerako.

Zelan bizi izan zenituen partidu haiek?

Hasteko, taldekide beteranoen partetik jaso dudak babesa eta berotasuna ikaragarria izan da. Egia da partidu haietan neure burua asko estutu nuela; Txuri-Urdinekin halako partidu garrantzitsuak jokatzeko nengoen, eta presio handia sentitzen nuen. Baina dena joan zen ondo, gustura geratu nintzen egindako lanarekin.

Txuri-Urdinen hirugarren finala izan da hau, baina diozu oraingoan taldea beste pentsamolde batekin joan dela.

"Finalerdietan, taldekideen babesa izugarri eskertu nuen"

AINHOA SALILLAS SOLAN TXURI-URDIN TALDEKO ATEZAINA

IZOTZ-HOCKEYA Ligako oilar Majadahonda mendean hartuta lortu du talde donostiarrrak liga irabaztea. Lorpen horretan, gazte bergararrak parte-hartze zuzena izan du



Ainhoa Salillas, Liga txapelketako garaikurrekin, Foru Aldundiko egoitzan. A.S.

Bai; taldekide beteranoek aipatzen dutenagatik, aurreko finalerako joan izan dira ea zer gertatzen zen ikustera, eta oraingoan, berriz, finala irabazteko aukerak geneukala sinistuta joan gara Madrilera. Liga erregularreko lehenengo partiduan irabazi egin genien, eta orduan ikusi genuen nahiz eta guk baino esperientzia gehiago izan posible zela mendean hartzea. Gero, finalean, lehenengo partidua irabazi egin genien, Do-

nostian, eta Madrilan eurek zuten presioa. Hala, euren etxean 2-3 irabazi genien, zoramena izan zen.

Eta orain, Kopa dator...

Halaxe da; hilabete dugu txapelketa hori ondo prestatzeko, garaikur hori ere etxera ekarri nahi dugu.

Burdinolan ere jokatzen duzu. Ze alde dago lineako hockeyaren eta izotz-hockeyaren artean?

Bada, kanpotik aztertuta, badirudi nahiko antzerakoak direla, baina badituzte ezberdintasun batzuk. Bistan da batean izotz gainean ibiltzen garela, baina atek izotz-hockeyan handiagoak dira. Gainera, araudia ere aldatu egiten da, jokalaririk bat gutxiagorekin jokatzen da –lau jokalaririk eta atezainak– eta atezainak protagonismo handiagoa izaten du. **Bi taldetan jokatzen, nahikoa lan astea antolatzen.**

Pentsa, karatean ere ibili naiz orain arte, eta baita musikan ere. Ez naiz geldirik egotekoa, baina momentu batzuetan gauza larregi izan dut, egia da hori. Txuri-Urdinekin entrenatzen Donostiara joan behar izaten dut. Gainera, entrenamenduak gauzez egiten ditugu, eta ordurako ez da autobusik egoten. Jakina, dena iritsi ahal izateko gurasoen laguntza ezinbestekoa izan da. Hala ere, bi taldetan jokatu ahal izatea asko eskertzen dut, hor ez dut preferentziarik.



Salillas, goian, eskuinetik lehena, Burdinolarekin egon da asteburuan Lugon. A.O.

Maila galdu du Burdinolak

Espainiako Ligako jaitsiera fasea hirugarren postuan amaitu du Burdinola taldeak, eta horrek esan gura du mailara itzultzeko atariko fasea jokatu beharko dutela osterara ere. Asteburuan Lugon jokatutako hiru partiduetatik bi irabazi egin dituzte, baina ez da nahikoa izan mailari eusteko.

Urtea borobiltzeko zazpi jardunaldi dituzte

FUTBOLA Mondra eta Aretxabaleta goiko postuei begira dabilta, eta zazpi partidu hauek zukutu nahi dituzte 'play-off'-erako sailkatzeko aukeraren bat duten ikusteko. Bergara erdian dago, eta Aloña Mendik mailari eusteko azken esprinta egin behar du

Xabier Urtelai ARRASATE

Ligari zazpi jardunaldi geratzen zaizkio, eta jokoan dauden 21 puntu horietatik mordoxka bat behar dituzte Mondrak (49) eta UDak (46), aurrealdean dabilzan Elgoibar (55) eta Touring (61) harrapatzeko. Eibar (50) ere hor dago, baina eibartarrek Hirugarren Mailan ere ordezkari dute; horrenbestez, epaile lana egiten dute, baina ezin dira mailaz igo.

Kontua da aurrealdean dabilzan bailarako bi taldeek ez dutela amorerik emateko asmorik, nahiz eta Elgoibarrek kale egiten ez badu jai duten. "Touring txakalaldirik ez dugu espero, eta Elgoibarrek bi partidu galdu beharko lituzke eta guk guztiak irabazi *play-off*-erako sailkatzeko", dio asteburuan lider dagoen Touring zelaian jokatu duen Mondrako entrenatzaile Cristian Matiasek: "Gainera, aretxabaletarrak ere borrokan sartuta daude, eta euren kontra ere jokatu behar dugu".

Bolada onean UDA eta Mondra

Hain zuzen, azken unera arte amorerik ez emateko asmoarekin dabilta arrasatearrak eta aretxabaletarrak. Bolada onean dira bi taldeak, eta, bereziki, talde zuri-morea sasoiari iritsi da ligako txanpa honetara -jokoan egon diren azken 18 puntuetatik 15 eskuratu dituzte-. "Egia da partiduz partidu joaten garela denok, baina bai, nahi gabe bada ere, normala da ligako txanpa honetan denok sailkapena hartu eta batuketak egiten hastea. Hala ere, *play-off*-erako sailkatzea oso sari polita bada ere, ligan azken arte borrokatzen egoitea ez da sari txikia, ilusio horri amaierara arte eustea. Kategoriari ahalik eta gutxien sufrimendua eustea zen urte hasieran geneukan helburua, eta etxeko jokalariek erantzun egin dute eta hor gaude". Hala, aipatu mo-



Arizmendiarieta eta Gorostidi, domekako derbian, lehia (2-3). I.SORIANO

MONDRAK EDO UDAK AUKERAK IZATEKO ELGOIBARREK KALE EGIN BEHAR DU ZAZPI PARTIDU HAUETAN

duan, zuri-moreek Touring zelaian jokatu dute bihar (16:30, Fanderia); UDak, berriz, etxean partidu berezia izango du etzi (16:30). Izan ere, 75. urteurrenko ospakizunen barruan, presidente izandakoak omenduko dituzte atsedenaldian. Gero, maila ia galduta duen Euskal-dunaren kontra jokatu dute.

Bakarra igoko da

Ohorezko Erregional Mailan, seguruenik, lehenengo sailkatuak baino ez du Hirugarren Mailarako bidea hartuko. Baina bigarren sailkatzen denak *play-off*-a jokatu du Bizkaiko eta Arabako bigarren onenen kontra, eta hor irabazten duenak Espainiako Errege Kopa jokatzeko izango du sari. "Akaso, Hirugarren Mailara igotzea baino sari hobea da Errege Kopa jokatzeko", dio Matiasek. Izan ere, Hiruga-

ren Mailara koska handia dago, eta taldea ondo indartu ezean -dirua xahutu behar da horretarako- aukera handiak daude kategoria berrian denboraldia benetan luzea eta malda gorakoa izateko. "Errege Kopak, berriz, ilusioa pizten du jokalarien eta zaleen artean, sari oso polita da herriko jokalariekin jokatzeko duen klub batendako".

Oñatierrek lanak dituzte

Bergara (40) lasai dago sailkapenaren erdialdean. Atzeko postuak ez dira arazo, eta liga hasiera makala egin bazuten ere, bereziki etxean oso talde indartsu bilakatu da -Agorrosinen abendutik ez dute partidurik galdu-. Hala, mahoneroek atzaldetik ihes egiteko lanean dabilen Real Unionen (28) kontra jokatu dute, Agorrosinen (16:30).

Eta, hain zuzen ere, atzeko postuetatik ihes egitea helburu duen Aloña Mendik (30) pozik ospatuko du bergarren garaipen bat. Izan ere, Real Union kontrario zuzena da oñatierrendako, baina baita bihar aurrean izango duten Amaiak Bat (30) ere (16:30, Errotazar).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

O.ERREGION. GIZ.

Touring-Mondra

Zap. 16:30. Fanderia.

Bergara-Real Union

Zap. 16:30. Agorrosinen.

Amaiak Bat-Aloña

Mendi

Zap. 16:30. Errotazar.

Aretxabaleta-

Euskalduna

Dom. 16:30. Ibarra.

O.ERREGION. EMAK.

Leintz Arizmendi-

Bergara

Zap. 11:30. Ibarra.

GORENGO M. IRAUPEN F.

Hondarribia-Mondra

Zap. 16:00. Ondartza.

Antzuola-Dunboa

Zap. 11:45. Eztala.

Zestoa-Aretxabaleta

Zap. 15:30. Zestoa.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Aretxabaleta-

Ariznabarra

Zap. 16:00. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Eskoriatza-Aurrera V.

Atzeratua.

Gora-Mondrate

Zap. 18:30. Bilbo.

EUSKADIKO TXAP. GIZ.

Lauburu-Aretxabaleta

Zap. 17:00. Ibarra.

GIPUZKOAKO MAILA. GIZ.

Tolosala-Mondrate

Gaur. 20:45. Tolosa.

GIPUZKOAKO MAILA. EMAK

Eskoriatza-Antiguoko

Gaur. 22:15. M.Muñoz.

ESKUBALOIA

EUSK. TXAP. GIZON

Elgoibar-Fagor

Zap. 19:30. Elgoibar.

Professional

Zap. 19:30. Elgoibar.

Mugarri Ingou-

Urdaibai

Dom. 12:00. Iturripe.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Cons. Aloña Mendi-

Bosteko

Zap. 12:00. Zubikoa.

GIP. SENIOR 1 MAILA

Ormaiztegi-

SoraluceBKE

Zap. 19:30. Zubipe.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Solares

Dom. 18:30. Iturripe.

LEHEN NAZIONALA

Redline-MU

Zap. 18:00. Tolosa.

GIZON. BIG. MAILA

Barrena-Mekalki Aloña

Dom. 12:00. Santurtzi.

EMAK. BIG. MAILA

MU-Mazarredo

Dom. 16:15. Iturripe.

GIPUZKOAKO TXAP.

Internaci.-Bergara

Soraluce

Dom. 16:30. Donostia.

PILOTA

Aretxabaletan, gaur

(18:30) sei partidu.

Oñatin, gaur (18:30) bost

partidu.

Bergaran, gaur (19:00)

sei partidu.

Arrasaten, gaur (19:30)

bi partidu.

Antzuolan, gaur (19:30)

bi partidu.

PILOTA Profesionalen puntako jaialdia Oñatin hilaren 10ean

Buruz buruko txapelketako aurrekanporaketa partidua jokatuko dute Dariok eta P. Etxeberriak apirilaren 10ean. Gainera, eskuz binako partidua jokatuko dute Altunak III.ak eta Rezustak Irribarriaren eta Zabaletaren kontra (17:00). Sarrerak salgai daude Txokolateixan eta Aloñamendi, Izarraitz eta Arrano tabernetan.

XAKEA Arrasate Arlutz maila gorenera itzuli da, Ohorezko Ligara

Zapatuan jokatu zuten Arrasate Arlutzekoek Euskadiko Ligako azken jardunaldia, eta, igoera fasean bigarren sailkatu ondoren, debagoiendarrak maila gorenera igoko dira osterara ere; alegia, Ohorezko Ligara. Hain zuzen, lehen bi sailkatuek lortzen zuten gora igotzeko txartela, eta Mar-laxka eta Arrasate Arlutz izan dira bi talde horiek.

ESKUBALOIA Elgoibar mendean hartu, bizirik jarraitzeko

Euskadiko Txapelketako igoera fasean hil edo biziko norgehiagoka izango du Fagor Profesionalek zapatu arratsaldean (19:30, Olaizaga kiroldegia). Zuzenak izateko, datorren astean Zubikoan hil edo bizikoa jokatu ahal izateko oñatierrek, lehenengo, zapatuko partidua irabazi egin behar dute Elgoibarren. Postu bat gorago daude elgoibartarrak.

SASKIBALOIA Igoera faserako sailkatzeko hiru final ditu MUK

EBAn hirugarren postuan dagoen MUK ez du baztertu zilarrezko LEB Mailara igotzeko Lauko Finalan egon ahal izatea, nahiz eta horretarako hiru final dituen aurretik. Horretarako, gutxienez, bigarren sailkatu behar du, eta orain momentuan Baskoniarena da postu hori. Domekako partiduan (18:30) MUK ezin du Solaresen kontra kalerik egin.



Markinan eskaini zuten *Frankenstein agurgarria* emanaldiaren une bat. URKO ANSA

'Frankenstein' liburua oinarri, gutun musikatua

'Frankenstein agurgarria' izeneko ikuskizuna eskainiko dute Ana Galarraga zientzia-komunikatzaileak eta Petti musikariak apirilaren 5ean, 19:00etan, kultura etxeko zinema aretoan; udal liburutegiak antolatu du eta sarrera dohainik izango da

Aitziber Aranburuzabala OÑATI
Gutun musikatu bat da, Mary Shelleyk 1818an idatzi zuen *Frankenstein* liburua oinarri duena. "Orain dela 200 urte baino gehiago idatzi zuen, garai oso nahasian, eta paralelismo handia dauka, gauza askotan, garai hark gaur egungo giroarekin eta kezkekin, esaterako: gizateriari buruzko kezkek, beldurrak, autoritarismoa, ingurumena, zientziaren aurrerapenek sortzen dituzten zalantza etikoak... Horiek guztiak Mary Shelleyren garaian bazuden, liburuan ondo jasota daudenak, baina gaur egun kezka horiek gure gizartean ere badaude; hortaz, ikuskizunarekin dugun helburua, batetik, libu-

ruaren izpiritua gaurkotzea da, Victor Frankenstein pertsonaia-ekin eta gutun bidez kontatuz, eta, bide batez Mary Shelleyren figura eta lana aldarrikatzea eta lehen planora ekartzea ere bai", dio Ana Galarragak.

Mary Shelley idazlearen jarraitzailea dela aitortzen du zientzia-komunikatzaileak. "Liburu ikaragarria idatzi zuen eta amorru handia ematen dit, orokorrean, jendeak liburuan oinarritutako *Frankenstein* filma bakarrik ezagutzeak eta liburua existitzen denik ere ez jakiteak. Ez da beldurrezko liburu bat, beldurra eta kezkek sortzen dizkiguten gai asko tratatzen baditu ere".

Petti, "konplizea"

Itxialdian ekin zion Galarragak proiektuari. "Liburuko gaiak gaur egunera ekartzeko garai aproposa iruditu zitzaidan, denbora nuelako, batetik, eta bizi genuen eta oraindik ere bizi dugun egoera nahasgarriagatik. Liburuan agertzen diren gaiak buruzko testuak idazten hasi nintzen orduan, gaurko begietatik begiratuta, eta hala ager-

"FRANKENSTEIN" LIBURUAREN IZPIRITUA GAURKOTU NAHI IZAN DUGU"

ANA GALARRAGA, SORTZAILEA

tuko dira, esaterako, gerra zibila, feminismoa, zientzia eta beste hainbat gai ere propio ikuskizunerako sortutako testu horietan".

Ikuskizunerako konplize bila hasita, Galarragak ez zuen zantzarik egin Pettiri proposatzeko orduan. "Pettik gai horiei -beldurra, damua, errua...- asko kantatu diela aprobetxatuz, haren uzta oparotik ondo egokitzen diren hainbat kantu aukeratu zituen eta ikuskizunerako moldatu zituen gero. Denetarikokantua daude, dagoeneko kontzertuetan jotzen ez dituen hainbat ere horien artean. Gitarra elektrikoa eskuetan, alboan izango dut agertokian. Ikuskizunaren formatua ez da testuen eta kantuen txandaketa hutsa, bion artean osatzen goaz; hau da, gidoian edo gutunean ondo josita daude kantuak eta testuak".

Martitzenean Oñati

Urtarrilean Baztanen egiten duten (*Hilbeltza* euskal nobela beltzari buruzko astean estreinatu zuten. "Testuinguru aproposa iruditu zitzaidan ikuskizuna aurkezteko, eta, hasiera batean, emanaldi bakarra egitea zen asmoa, baina, izan zuen harrera onak bultzatuta eta ikusleen barrenak mugiarazi genituela ikusita, beste hainbat saio ari gara lotzen. Helduentzako ikuskizuna da, ordubetenguru irauten duena".

Markinan izan dira, eta apirilaren 5ean, martitzena, Liburuaren Egunaren egitarauaren baitan, Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan izango dira, 19:00etan. Sarrera dohainik izango da, baina aurrez eskuratu behar dira gonbidapenak, Txokolateixan edo *Oñati.eus* atarian.

'Lutxurdio'-ren eskutik, panderoaren trikimailuak

Arrasate Trikitixa Eskolako pandero festa egingo du gaur, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean

A. A. ARRASATE

Guztiontzako irekita dagoen laugarren pandero festa izango da gaur Kulturaten. Eskarmentu handiko Eugenio Gisasola *Lutxurdio* pandero-jolea gonbidatu dute. "Pandero-jole oso estimatua eta trebea da. Jende askorekin jo izan du, Lajarekin, Epelderekin, Izerrekin... Debagoieneko trikiti jaialdian izandakoa da, baina oraingoan, gertutik ezagutuko dugu, eta pandero dantza jotzen ere irakatsiko digu", dio Arrasateko Trikitixa Eskolako zuzendari Maixa Lizarribarrek.

Bi taldetan banatuta, ordubete saio bana egingo dute. "Irrikaz daude ikasle guztiak *Lutxurdio*-ren ikasgaiak jasotzeko. Ondoren, Kajoi tabernaraino joango gara, gure ikasle diren Mirarik, Maddik eta Izarok emanaldia egingo dute eta".

Datozen ekitaldiak

Panderoa protagonista izango den bigarren Pandero Jaialdirako gonbidatuak lotzen ari dira dagoeneko; ekainaren 12an egingo dute, Amaia antzokian. Horrez gainera, maiatzaren 14an Debagoieneko Trikitilarien Eguna ospatuko dutela aurreratu dute.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

PAULA AMILBURU
BERTSOLARIA

APIRILAREN 6AN, EGUAZTENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN
'GALDEGAZTE' SAIOAN KURTZEBARRI
ESKOLAKO IKASLEAK ELKARRIZKETATZAILE

goiena
Zu hemen zaude.



Osinalde sariketarako txartel bana eskuratuta

Apirilaren 23an Gabiriako Osinalde Elkartean jokatu duten txapelketarako txartel bana lortu zuten Arrasateko Ane Zuazubiskar eta Eskoriatzako Oihana Arana bertsolariak zapatuan Ordiziako Herri Antzokian jokatu zuten Argi Berri sariketan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Debagoieneko hiru ordezkari izan ziren zapatuan Ordizian jokatu zen kanporaketan, Haizea Arana, Ane Zuazubiskar eta Oihana Arana, eta lehenengo bi postuetan sailkatuta itzuli ziren etxera. Arrasatearrak eskuratu zuen Txikia garaikurra, bertaratutako entzuleek hala erabakita, "saio biribila" osatu zuela argudiatuta, eta bigarren postuan sailkatuta zen Oihana Arana. "Gazteendako sariketa garrantzitsua da Ordiziako Argi Berri; hirugarren aldiz kantatu nuen zapatuan, eta plaza ezagutzeak lagundu egiten du. Pozik nago irabazita; hala ere, aitortu behar dut sorpresa handia hartu nuela irabazlea ni nintzela jakin nuenean. Izan ere, orokorrean, saio polita egin genuen denok, eta ez nuen irabazle garbirik ikusten. Oso maila antzerakoan ibili ginen denak eta edozein izan zitekeen irabazlea", dio Ane Zuazubiskarrek.

Osinalderako txartela

1971. urtean antolatuta zuten Gabirian lehenengo aldiz Osinalde sariketa, eta 50 urteko ibilbidean ehunka bertsolari kantatu dute Osinalde Elkarteko mahai ingurutik. "Izen handia daukan sariketa da. Plaza oso polita eta



Zuazubiskar eta Arana, Ordiziako Argi Berri sariketan. AITOR GARMENDIA ('GOIERRIKO HITZA')

estimatu da bertsolarien artean, nik pertsonalki oso gustuko dut halako saioetan kantatzea, eta aukera polita da bertsolari gazteei aukera hori ematea. Apirilaren 23an jokatu da aurten goa; 50. aldia izango da, eta ezagun da antolatzaileen eskarmentua eta txapelketan sortzen den giroa".

Osinalde sariketan parte hartuko duten bertsolarien zerrenda beste hiru sariketatan –Argi Berri, Aztiri eta Osinberde– bi irabazle nagusi izan direnekin osatzen dute; hori horrela, Ane

Zuazubiskarrek eta Oihana Aranak badituzte Gabiriarrako txartel bana.

Txartel gehiago jokoan

Badago, baina, oraindik Debagoienetik txartel gehiago eskuratzeko aukera ere; izan ere, bihar, zapatua, Legazpiko Latxartegi aretoan jokatu duten Aztiri sarian Oñatiko Urko Arregik hartuko du parte eta apirilaren 9an Zaldibiako herri antzokian jokatu duten Osinberde sarian lehiatuko da Aitor Tatiagi oñatiarra.

Manu Muniategiandikoetxearen bilduma Donostian ikusgai

'Duda da dudana-Conflictos paralelos' erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, Altxerri galerian

A. Aranburuzabala BERGARA

Ibilbide luzeko margolaria da Manu Muniategiandikoetxea bergarra. 1995ean egin zuen bakarkako lehen erakusketa, eta, harrezkero, Euskal Herrian ez ezik, Espainiako eta atzerri-

ko arte galeria eta arte azoka esanguratsu askotan erakutsi ditu askotariko lanen bildumak, bakarka eta taldekako erakusketa. Asko dira, era berean, jaso izan dituen sariak ere; horien artean, 2000. urtean Eusko

Jaurlaritzaren eskutik *Palés* izeneko lanarekin jaso zuen Gure Artean izeneko.

Maiatzaren 14ra bitartean

Gaur, egubakoitza, zabalduko du Donostiako Reina Regente kalean dagoen Altxerri arte galeria ezagunean *Duda da dudana-Conflictos paralelos* izena duen bakarkako erakusketa berria, eta maiatzaren 14ra bitartean izango dira Bergara-koaren artelanak Donostian ikusgai.

Goienakideen txokoa

MARTXOKO IRABAZLEAK

'SENDABELARREK DAKITENA' LIBURUAK

Joxemi Arregi Aranzeta (Arrasate)
Borja Aldalur Olazabal (Aretxabaleta)
Leire Urgoitia Benedicto (Antzuola)
Itziar Gardoki Legorburu (Arrasate)

HARREMAN DENDA KO OTARREA

Alazne Intza Araiztegi (Oñati)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Iban Da Silva Dieguez (Bergara)
Itziar Kortabarria Garitano (Bergara)
Ana Santos (Oñati)

ZUMELAGA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Urtzi Berasaluce Velez de Mendizabal (Arrasate)

SANTA ANA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Ander Bolibar Zabala (Bergara)

GOIKO BENTA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Marta Usabiaga Yerobi (Eskoriatza)

'LEIHOAK' ANTZEZLANERAKO SARRERAK

Maite Beitia Azkarate (Aretxabaleta)

'TARARA' ANTZEZLANERAKO SARRERAK

Idoia Peñakoba Etxebarria (Arrasate)

'ARIMA' DANTZALDIRAKO SARRERAK

Margarita Oregui Alberdi (Bergara)

KORRIKAKO LEKUKOA ERAMATEA

David Garcia Martin (Eskoriatza)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Goiena Klubeko txartela eskuratu, bira saria izango duzue Arrikrutzeko txartelarekin. Sareak hiru hilabeteko epean izango dira. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Aretz azoka OÑATI 943 08 20 00. Oñatiko: asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (aurretik deitu hitzordue egiteko) Harreman-dendako oinarri. **Otarrea** jasotzeko, ja zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Liburua jasotzeko,** izatez GOIENAREN egotzari. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA eskuratu edota BAZKIDE ZENBAKIA adierazten behar da. GOIENA Oñatiko Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Oñatiko: astelehenetik eguzkea: 09:00 - 18:00. Egubakoitzean 08:00 - 14:00

Irabazi bi lagunendako otordua

MAULANDA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otoroian* atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: apirilak 5

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 'Goiena app' -a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE *Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 60€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

OROIGARRIA

M. Pilar Bastida Irastorza

2022ko martxoaren 30ean hil zen, 97 urte zituela.



Zure esfortzuari esker garenak gara.

Eskerrik asko.




Bastida Akademia
Arrasaten, 2022ko apirilaren 1ean.

OROIGARRIA


Jose Antonio Zangitu Peña

'Txango'

2022ko martxoaren 25ean hil zen.



Eskerrik asko, lagun gure artean utzi dezun haziagatik. Gurekin beti.



Azpigarri kuadrilla.
Aretxabaletan, 2022ko apirilaren 1ean.

ESKER ONA



Kristina Bengoa Del Prado


2022ko martxoaren 29an hil zen, 47 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten izenarekin. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko apirilaren 1ean.

OROIGARRIA



Isabel Diego Ortiz Jose Ignacio Uribarri Jausoro



Leialtasuna eta ohorea.

Eskoriatzan, 2022ko apirilaren 1ean.

OROIGARRIA

Jose Antonio Zangitu Peña

2022ko martxoaren 25ean hil zen.




Txikitatik somatu zintugun, saltsa guztien piperra, batzuetan gu denon aita, besteetan lagun papera, bizitzan zu ezagutzea, hori bai kriston plazerra! Ez zaitugu ahaztuko.

K23! kuadrilla.
Aretxabaletan, 2022ko apirilaren 1ean.

ESKER ONA

Rosarito Arechaga Fernandez de Retana

2022ko martxoaren 30ean hil zen, 90 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Mizpirualde egoitzako langileei ere eskerrik asko gure senideari emandako arretagatik.

Bergaran, 2022ko apirilaren 1ean.

OROIGARRIA



Olatz Orobengoa Urkia

2022ko martxoaren 26an hil zen, 51 urte zituela.



Zeru zabalean aske... zureak diren bizi-poza eta garra, gure izar gorriaren irrifarra. Adiorik ez... bidaia on, Olatz. Maite zaitugu.

Orobengoatar Maite, Inaxio, Bego, Esther, Marije, Ixiar, Josu, Jaio, Andoni, Igor, Iker eta gainerako ahaideak.

Arrasaten, 2022ko apirilaren 1ean.

OROIGARRIA

Olatz Orobengoa Urkia

2022ko martxoaren 26an hil zen, 51 urte zituela.



Zure oroitzapena utzitako oparirik politena da.

'The flowers powers' eta lagunak.
Arrasaten, 2022ko apirilaren 1ean.

ESKER ONA



Kontxi Erostege Bidaguren

2022ko martxoaren 26an hil zen, 65 urte zituela.



Ze erreza izan den zu maitatzia, baina zaila zu gabe egotia. Gurekin betiko, maite zaitugu!

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Antzuolan, 2022ko apirilaren 1ean.

OROIGARRIA

Olatz Orobengoa Urkia

Ikastolako gurasoa

2022ko martxoaren 26an hil zen, 51 urte zituela.



Une latz hauetan gure besarkada beroena familiari.




Arizmendi Ikastola

Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2022ko apirilaren 1ean.

OROIGARRIA

Olatz Orobengoa Urkia

2022ko martxoaren 26an hil zen.



Eskerrik asko alaitasunaren hazia guran ereiteagatik.

Zure kuadrilla.
Arrasaten, 2022ko apirilaren 1ean.

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guran izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Emakume artisauak**

Kalitatea eta ikusgarritasuna jarri zuten erdigunean Arrasateko emakume artisauen eta ekoizleen azokan parte hartu zutenek.

2. The Factory taldea onena

Bilboko taldeak irabazi zuen Aretxabaletako Fun Dantz txapelketa. Hori horrela, Break On Stage jaialdirako txartela eskuratu zuten.

3. Dantzak, kalean

Bergarako Moises Azpiazu dantza taldeko lagunek erakustaldia egin zuten San Martin plazan, Korrika Kulturalaren baitan.


4. Goriako zozketaren irabazlea

Edurne Ormaetxea aramaioarrak irabazi zituen Oxirondo Banaketaren urdaiazpikoa eta Atxega Ardoak-ek emandako botila ardoak.


ZORION AGURRAK




BERGARA
Maria Maiztegi Arruti
Apirilaren 4an, 10 urte.
Zorionak eta urte
askotarako
familixakuen partetik!
Ondo-ondo pasatu
zure eguna!



OÑATI
Ekain Bartolome Agirregabiria
Apirilaren 4an,
urtebete. Zorionak
gure etxeko printziari!
Ondo-ondo pasatu
eguna, etxeko guztien
partetik. Muxuak,
maitia!



ARRASATE
Sara Zabaloa
Apirilaren 3an, 8 urte.
Zorionak, maitia!
Infinito baino gehiago!



ARRASATE
Ihbar Lete Gardoki
Apirilaren 3an, 4 urte.
Zorionak eta patxo
handi bat familia
osoaren partetik!



ARRASATE
Paule Lizaur Sagasta
Apirilaren 1ean, 5 urte.
Zorionak, Pauletxo!
Ederto pasatu
eguna familia
eta lagun artien!
Ikaragarri
maite zaitzugu!



OÑATI
Maddi Biain Ugarte
Apirilaren 1ean, 6 urte.
Zorionak eta urte
askotarako, Maddi!
Ondo pasatu, lagun
eta familixako
danon partetik!
Patxo handi bat!



OÑATI
Markel Bengoa Igartua
Martxoaren 30ean, 9
urte. Zorionak, Markel!
Jadanik 9 urte!
Ondo-ondo pasatu
zure egunien eta patxo
potolo-potolo bat
etxekoen partetik.



BERGARA
Inge Berraondo Albusua
Martxoaren 30ean, 3
urte. Zorionak gure
txikixari! Patxo eta
besarkada handi bat
zure egunian!




BERGARA
Tiffany Ruiz
Martxoaren 30ean, 33
urte. Zorionak! Egun
ederra igaro dezazula,
etxekoez inguratuta.
Urtea askoan zurekin
ospatu dezagula. Asko
maite zaitugu guztiok.



OÑATI
Haitz Biain Agirrezabalaga
Martxoaren 29an, 4
urte. Zorionak, politt
hori! Asko maite
zaitugu. Muxu pila
bat, familixaren
partetik.




OÑATI
Eneko Osés Arregi
Martxoaren 28an, 7
urte. Zorionak, maitia!
Zazpi urtetzar! Muxu
handi bat familia
danaren partetik.



ARRASATE
Ekain Alvarez Fuentes
Martxoaren 28an, 10
urte. Zorionak, maitia!
Patxo handi bat etxeko
guztien partetik.



ARRASATE
Elene Garcia Gil
Martxoaren 27an, 8
urte. Zorionak, Elene!
Oso ondo pasatu zure
eguna! Asko maite
zaitugu, bitxi!
Patxo pololo bat
etxekoen partetik!



ARRASATE
Xabier Santa Cristina
Martxoaren 26an, 11
urte. Zorionak, Xabier,
etxekoen partetik.



ARRASATE
Aner Olmo Larrea
Martxoaren 24an, 6 urte. Zorionak, Aner!
Oso ondo pasatu zure seigarren urtebetetzean.
Muxu potolo bat parkeko laguneren partetik!



ARRASATE
Telmo Axpe Pacios
Martxoaren 22an, 2 urte. Zorionak, bitxi!
Patxo potoloak etxekoen partetik! Muak!



BERGARA
Juan Sanchez Fernandez
Martxoaren 20an,
43 urte. Zorionak,
txapeldun! 43 urte.
Muxu handi bat etxeko
guztien partetik.
Asko maite zaitugu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak
arte jasotako zorion
agurrak bakarrik
argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera
jasotakoak hurrengo
asteen argitaratuko
ditugu.



BERGARA
Enara Martin Unamuno
Apirilaren 4an, 10 urte.
Zorionak, bihotza!
Ondo pasatu zure
eguna eta muxu pila
bat! Asko maite
zaitugu!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 1

OÑATI 22. Korrika

10:30etik 11:30era, Korrika Txikia; 12:30ean, Korrikarekin bat Elorregin; 16:30etik 18:30era, Gauargi taldearekin erromeria; 17:00etik 18:30era, ekintza berezia gaztelekuan; 18:30ean, Korrika festa gaztelekuan; eta 19:00etan, bertso-triki poteoa.

Oñatin.

ARETXABALETA 22. Korrika

13:36an, Korrika ofiziala; 17:00etan, umeendako tailerrak eta txokolate-jana; 18:00etan, Oihu taldearen kontzertua; eta ostean, Upeide taldearekin kalejira.

Aretxabaletan.

ESKORIATZA 22. Korrika

13:49an, Korrika ofiziala; 19:00etan, kontzertuak; eta 22:30ean, Sei Urte taldea, Inkernun.

Eskoriatzan.

ARETXABALETA Huhezinema

15:00etan eta 17:00etan, sail ofizialeko proiektzioak; 19:00etan, sari banaketa; 20:00etan, luntxa; eta 21:30ean, kontzertua.

Aretxabaletan, 15:00etan.

ARAMAIO Potx magoa

Korrika Kulturalaren baitan.

Kultura etxean, 17:00etan.

OÑATI 'Biarrea. Barreterapia lantegia' tailerra

Elba Ruiz Moralesekin, Jabetze Eskolaren baitan.

Euskaldun Berria gelan, 17:00etan.

ARRASATE 'Yogipuinak' emanaldia

5 urtetik gorako umeendako, eta Liburuaren Egunaren harira. Aurrez eman behar da izena.

Kulturaten, 18:00etan.

ELGETA Herri Korrika

Herriko kaleetan.

Mendizaleen plazatik abiatuta, 18:30ean.

OÑATI Aloña abesbatzaren kontzertua

Pandemia osteko lehen emanaldia.

Santa Ana antzokian, 18:30ean.



GOIENA

OÑATI 'Eresia' antzezlan

Dolua gaitzat hartuta antzerkia eta dantza fusionatzen duen ikuskizuna, Geuretik Sortuak ekimenaren baitan. Belen Cruz, Oier Zufiiga eta Eneko Gil aktoreak oholatza gainean.

Etzi, domeka, Santa Anan, 19:00etan.

BERGARA Musika eskolako Orkestra Sinfonikoa eta Cello Ensemble

XVIII. Apirilean Musika ekimenean.

Seminarixoko karpan, 19:30ean.

ARRASATE Altamirako jaiak

19:00etan, tabernaren irekiera; eta 20:00etan, haurrentako zinema emanaldia. Kronoigoera atzeratu egin dute, eguraldiarengatik.

Altamiran.

OÑATI 'Irungo Harrera Sarea' hitzaldia

Elkarteko kide batek egingo du berba, Hotz Oñatik gonbidatuta.

Zinema aretoan, 19:00etan.

ARAMAIO Bat2tan taldearekin erromeria

Korrika Kulturalaren baitan.

Bizente Goikoetxea plazan, 19:00etan.

OÑATI The Northagirres eta Turbofuckers taldeak

Rock doinuak.

Ikatz tabernan, 21:00etan.

ZAPATUA 2

OÑATI Txori-kantuak ezagutzeko ibilaldia

Markel Olano adituaren eskutik.

Izena emateko: 943-78 28 94 telefonoa edo arantzazu@gipuzkoanatura.eus helbidea. Bost euro pertsonako.

Arantzazuko Parketxean, 10:00etan.

ARRASATE Altamirako jaiak

10:00etan, etxafuegoak; 11:00etan, tortilla lehiaketa eta jolasak; 13:00etan, auzoko jaioberriei omenaldia; 13:15ean, erromeria; 14:30ean, bazkaria; 17:00etan, marrazki lehiaketa; 17:30ean, igelaren jolasa; 18:00etan, txokolate-jana; 20:00etan, Markel Goikolea DJa; eta 22:00etan, su artifizialak.

Altamiran.

OÑATI 'Biarrea. Barreterapia lantegia' tailerra

Elba Ruiz Moralesekin, Jabekuntza Eskolaren baitan.

Euskaldun Berria gelan, 10:00etan.

ANTZUOLA 'Ibilera nordikoa' ikastaroa

Arrola taldekoen eskutik.

Antzuolan, 10:30ean.

ARETXABALETA Autismoari Buruzko Kontzientziaren Eguna

Askotariko ekintzak. Informazio gehiago, 20. orrian.

Aretxabaletan, 11:00etatik aurrera.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria Erguinen

3-12 urte artekoendako, bi hezitzaileen laguntzarekin.

Gazte txokoan, 11:30ean.

BERGARA XVIII. Apirilean Musika

11:30ean, Arrasate Musikaleko abesbatzaren eta Donostiako Eskudero Ganbara abesbatzaren emanaldia; eta 17:30ean,



SUN MAGOA

ELGETA 'Houdini, la magia de la TV' ikuskizuna

Sun magoaren emanaldia. Ilusionismo eta eskapismo truko ikusgarriak egingo ditu. Urez betetako tanga batetik ihes egiten ahaleginduko da.

Sarrerak: hamar euro –aurrez– eta hamabi.

Bihar, zapatua, Espaloian, 19:00etan.

Pucciniren *Madame Butterfly* operaren proiektzioa.

Seminarixoan.

OÑATI Korrika Kulturala

14:30ean, bazkaria; eta 20:30ean, Brocken Legacy eta Calachea taldeen kontzertuak.

Gaztetxean.

ELGETA 'Houdini, la magia de la TV' ikuskizuna

Sun magoaren emanaldia. Sarrerak, hamar euro –aurrez– eta hamabi.

Espaloian, 19:00etan.

ARETXABALETA 2002an jaitako kintoen dantza saioa

Iaz ez zuten dantzarik egin.

Herriko Plazan, 19:00etan.

LEINTZ GATZAGA Bertso-afaria

Oihana Iguaran eta Maialen Akizu bertsolariekin.

Toki-Eder elkartean, 21:00etan.

DOMEKA 3

DEBAGOIENA Mendi martxa:

Eskoriatza-Atxorrotx-Gatzaga

11:30ean, talde argazkia Atxorrotxen; 14:00etan, salda Gatzagan; eta 19:00etan, Mikel Etxabururen poesia errezitaldi musikatua, Zaldibar antzokian.

Leintz Gatzagan eta Eskoriatzan.

BERGARA Txistulari banda

Ipar Nafarroako dantzak emanaldia egingo dute.

Osoko bilkuren aretoan, 13:00etan.

BERGARA XVIII. Apirilean Musika

Hasiberrien abesbatza, pianoa eta perkusioa, 17:30ean eta 18:30ean.

Seminarixoan, 17:30ean.

OÑATI Jardunaldi Nazionalen aurkezpena eta kontzertua

GKSk egingo du berba, eta ostean, Malen Perez de Arenaza oñatiarraren kontzertua.

Gaztetxean, 18:30ean.

OÑATI 'Eresia' antzezlan

Dolua gaitzat hartuta antzerkia eta dantza fusionatzen duen ikuskizuna, Belen Cruz, Oier Zufiiga eta Eneko Gil aktoreekin.

Santa Anan, 19:00etan.

ESKORIATZA Poesia errezitaldi musikatua

Mikel Etxabururen *Ahaztu baino lehen*, ama poema liburuan oinarrituta. Sarrerak, bost euro.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARRASATE 'Semea pixka bat motelago dabil soilik' antzezlan

Ivor Martinic antzerkigileak idatzitako izen bereko lanaren moldaketa. Sarrerak, hamar euro.

Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 4

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

BERGARA Korrika Txikia
Herriko kaleetan.
Bergaran, 15:15ean.

BERGARA XVIII. Apirilean Musika
17:30ean, *Koloretako Munstroa*, entsegu berezia; 18:30ean, piano ikasleak; 19:30ean, helduen talde instrumentala; eta 19:30ean, Bulego taldearekin solasaldia.
Musika eskolan eta Seminarixoan.

ESKORIATZA Musika eskolen topaketa
Soraluzeko, Arrasateko, Oñatiko, Aretxabaletako, Bergarako eta Eskoriatzako musika eskolak.
Kiroledegian, 18:00etan.

MARTITZENA 5

ELGETA Korrika Txikia
Eskolak antolatuta.
Elgetan, 10:00etan.

ARRASATE Korrika txikia
Herriko kaleetan.
Arrasaten, 10:00etan.

ARETXABALETA Korrika txikia
Herriko kaleetan.
Aretxabaletan, 10:30ean.

ANTZUOLA Korrika Txikia
Herriko kaleetan.
Antzuolan, 16:00etan.

BERGARA XVIII. Apirilean Musika
16:45ean, *Entzun eta asmatu!*; 17:00etan eta 18:00etan, *Flauta hobeto ezagutzen*; 18:00etan, *Peñaparda* ikastaroa eta *Biolontxeloarekin jolastu*; eta

18:30ean, piano, gitarra eta dantza ikasleen kontzertua.
Musika eskolan eta Seminarixoan.

ARETXABALETA Udaberriko kontzertua
Leizarra musika eskolakoeekin.
Arkupen, 17:15ean eta 18:30ean.

ARAMAIO 'Birusarekin bizitzea, nola eta noiz arte?'
Fernando Gomez-Busto mediku geriatrak egingo du berba.
Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI 'Frankenstein agurgarria' errezitaldi musikatua
Ana Galarragaren eta Pettiren emanaldia.
Zinema aretoan, 19:00etan.

ARRASATE 'Lezetxiki, neandertalen lurraldea' hitzaldia
Alvaro Arrizabalagak egingo du berba.
Kulturaten, 19:00etan.

EGUAZTENA 6

BERGARA 'El buen patrón' hitzaldia
Pedro Saldañarekin.
Seminarixoan, 10:00etan.

ANTZUOLA XVIII. Apirilean Musika
15:00etan, *Entzun eta asmatu!*; eta herriko piano eta gitarra ikasleen emanaldiak.
Torresoroan.

BERGARA XVIII. Apirilean Musika
18:30ean, dantza, perkusio eta trikiti ikasleak; eta 19:00etan, klarinete eta saxofoi ikasleak.
Bergaran.

ARETXABALETA Musika eskolakoen dantza emanaldiak
Hiru emanalditan –17:00, 18:15 eta 19:30– eta taldeak.
Arkupen.

BERGARA 'Aztarnak' erakusketa
Gipuzkoan bizi den Sofia Hebron uruguaiarraren marrazkiak ikusteko aukera, hilaren 17ra arte.
Askotariko egoera eta parajeetan dauden animaliak dira protagonista.
Aroztegin, 18:00etan.

ARRASATE 'Emozioen garrantzia familian. Nola zaindu seme-alaben emozioak' hitzaldia
Donna Apellanizek egingo du berba.
Aurrez eman behar da izena.
Kulturaten, 18:00etan.

BERGARA 'Herri dinamika' lan-saioa
Ehundurak eskutik.
UNEDen, 18:30ean.

ARRASATE 'Askatu edo moztu. Euskal hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak' solasaldia
Nora Salbotx Alegriak egingo du, Karkabatik Herria zikloaren barruan.
Irati tabernan, 19:00etan.

EGUENA 7

BERGARA Umeendako eta gaztetxoendako tailerra
Korrika Kulturalaren baitan, Jarduneko begiraleekin.
San Martin plazan, 17:00etan.

BERGARA XVIII. Apirilean Musika
18:00etan, *Musika kalera!*; eta 19:00etan, *Martxa kalera-konboak!*
Seminarixoko karpan.
Bergaran.

OÑATI Asier Guridiren inguruko hitzaldi informatiboa
Iheslari oñatiarren kasuari buruz egingo dute berba. Irekia.
Gaztetxean, 18:30ean.

ARRASATE 'Lezetxiki, neandertalen lurraldea' erakusketara bisita gidatua
Gaur, gaztelez. Aurrez eman behar da izena, *Arrasate.eus* atarian.
Kulturaten, 18:30ean.

ARRASATE 'Egun on, capitán' proiektzioa eta hitzaldia
Hiru hilabetez Yosemiteko bailaran eskalada praktikatzen ibili ziren Idoia Rubialek eta Maite Zumarragak egingo dute berba.
Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA Lemak eta Errietan taldeak
Korrika Kulturalaren baitan, Xaxauk antolatuta.
Seminarixoko karpan, 20:30ean.

EGUBAKOITZA 8

ARAMAIO 'Herria kantuz' ekimena
Eskolako umeekin eta Alaia erretiratuen elkarteko kideekin, Korrika Kulturalaren baitan.
Aramaion, 11:00etan.

ARAMAIO Korrika Txikia
Herriko kaleetan.
Aramaion, 14:30ean.

ELGETA Korrika Txikia
Herriko kaleetan.
Elgetan, 15:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIJA ANTZOKIA

Competencia oficial
Astelehena: 19:30.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Código emperador
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

Peter Rabbit 2
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

GORBEIA

iCanta 21
Egubakoitza eta zapatua: 17:30.
Domeka: 12:00, 17:30.

The Batman
Egubakoitza eta zapatua: 18:15, 21:30.
Domeka: 18:20.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

Código emperador
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 21:55.
Domeka: 19:45.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Los tipos malos
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:10.
Domeka: 12:00, 17:00.
Llegaron de noche
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 21:50.
Domeka: 17:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

La cima
Egubakoitza eta zapatua: 21:20.
Domeka: 19:10.
Astelehenetik eguenera: 17:20.

Camera café
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Barraskiloa eta balea
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.

Belle
Domeka: 12:00.

Morbius
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:35, 19:45, 21:40, 22:00.
Domeka: 12:00, 17:30, 19:35, 19:45.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 19:45.

Canallas
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:35, 21:40.
Domeka: 12:00, 17:30, 19:35.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Sonic 2
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 21:55.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Coda
Egubakoitzetik domekara: 19:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

FLORIDA

Uncharted
Zapatua eta domeka: 11:45.

La peor persona del mundo
Egubakoitza eta zapatua: 19:20, 21:45.
Domeka: 19:20.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Código emperador
Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 22:00.
Domeka: 17:40.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Los tipos malos
Egubakoitza: 17:15.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15.

Ei acontecimiento
Egubakoitzetik domekara: 19:35.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Llegaron de noche
Egubakoitzetik domekara: 19:50.
Zapatua: 11:30, 17:30, 21:30.
Domeka: 11:30, 17:30.

Astelehena eta martitzena: 17:30.
Eguaztina: 17:10.
Eguena: 17:20.

A tiempo completo
Egubakoitzetik domekara: 19:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Coda
Egubakoitza: 21:30.
Zapatua: 11:30, 21:30.
Domeka: 11:30, 19:00.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Morbius
Egubakoitza:

17:30, 19:45, 22:00.
Zapatua: 11:45, 17:30, 19:45, 22:00.
Domeka: 11:30, 17:00, 19:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.
Eguaztina: 17:30.

Sonic 2
Egubakoitza: 17:15, 19:00.
Zapatua: 11:45, 17:15, 19:00.
Domeka: 11:45, 17:15.

Astelehenetik eguenera: 17:30.
Para Chiara
Egubakoitza eta zapatua: 17:10, 19:35, 21:55.
Domekatik eguenera: 17:10, 19:35.

Amame
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 121:40.
Domeka: 17:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Desazkondeaz

Politikan, ausardiaz jokatzeari, hein handi batean, gure konfort eremuetatik ateratzen gaituzten erabakien inguruan pedagogia egitea dela iruditzen zait. Horrek esan nahi du ekonomia eta gizarte paradigma berri baterako –askoren begietara utopia dirudiena– oinarriak ezartzen joateko mezu argiak gizarteratzea. Adibidez, desazkondeaz hitz egitea. Kenneth Boulding-ek zera esan zuen: "Mundu finitu baten baitan, hazkunde esponentzial batean sinisten duen hori, edo zoroa da, edo ekonomista da".

Agian, oro har, nahiko eroso gaude, eztabaidaren eremua, betiere, kotxe elektrikoa edo gasolinazkoaren artera mugatzen bada. Baina, agian, ez horrenbeste, eztabaida auto partikularren erabilera mugen inguruan baldin bada. Adibide bat jartzearren.

Azken mende erdian, ikuspuntu materialetik, konfort maila altuak lortu ditugu gure eguneroko bizitzetan. Gure aitona-amonon bizitzekin alderaketa bat egin besterik ez dugu. Akaso ez zuten autorik, akaso ez zuten asteburuetan, aisialdian, ehunka kilometro egiten, ezta jogurt koloretzurik jaten, ezta eguneroko-eguneroko dutxa beroa hartzen ere, baina, seguru asko, lehen itxura batean proletarizatuagoak izanagatik, kontsumoaren ikuspuntu batetik, askeagoak izateaz gain, bizitza jasangarriagoak zituzten.

GOIENA OKM GIDA

"Jendeak ez daki noiz joan podologoarenera"

ALEX AZKARATE PODOLOGOA

Herritarrak kontsultara minez sartu eta normal-normal, inongo eragozpenik gabe, oinez irteten direla ikustea bereziki baloratzen du Azkarate podologoak bere lanean

Jone Olabarria ARRASATE

Orain dela 25 urte ireki zuen kontsulta Arrasaten Alex Azkarate podologoak. Orduan "ezezagun samarra" zen lana dela aitortu duen arren, gaur egun herritarrak podologiaren garrantziaz kontzientziatuta daudela uste du Azkaratek.

Gure gorputzaren zaintzan, atal ahaztuetakoa bat dira oinak?

Negozia zabaldu nuenetik, hasiera-hasieratik izan ditut pazienteak eta oso eskertuta nago horregatik. Ahaztua baino gehiago, jendeak, askotan, ez daki zehazki zein lan egiten ditugun, edo zein kasutan tratatu minen bat podologoarenean; azal kontuekin eta azazkalekin gertatzen da, orokorrean.

Nolatan podologo?

Bartzelonan ikasi nuen, duela hogeita bost urte baino gehiago. Orduan, Sevillan, Madrilan eta Bartzelonan baino ezin zen ikasi. Ordura arte, normalean, erizainek ikastaro bat egiten zuten podologo lanak egiteko. Gure belaunaldi ingurutik aurrera, osatu egin zen profesioa.

Zeintzuk izaten dira gaitz ohikoenak?

Denetik dago, baina, gehienbat, azazkalak, oinetako gogorguneak eta maskurrak konpontzea eta



Alex Azkarate, lanerako tresnekin, Arrasateko Munar plazan duen kontsultan. J.O.

Bi zapata ezberdin, eta igarri barik!

"Duela urtetxo batzuk, adineko emakume bat eta bere zaintzailea etorri ziren kontsultara. Zapatak erantzeko eskatu, eta hara non konturatu nintzen emakumeak bi zapata ezberdin zituela jantzita. Antzerakoak ziren arren, argi ikusten zen ez zirela berdinak; are gehiago, zaintzailearentzat! Haurrekin ere gertatzen zait: umeari plantillak ez diola ezer ere egiten, errebisiora etorri, eta haurrak plantilla lagun batenarekin aldatu duela ikusi!"

plantillak eta kirurgiak egitea pazienteei.

Zer da zure lanaren onena?

Onena da jendeari berehalako konponbide eta hobekuntza eman ahal izatea: minarekin datoz eta minik gabe doaz.

Eta okerrenea?

Okerrenea, aldiz, ezin duzunean diagnostiko zehatzik eman, edo pazienteak ez dituztenean jarraitzeak betetzen.

Askotan gertatzen da kasurik ez egitea? Burugogorrek gara?

15 urteko bati ezin diozu esan, esaterako, ezin dela futboleant aritu. Jakin behar duzu neurtzen. Baina badira belauna oso gaizki edukita ere, eta bost podologoak eta bi traumatologok esan ostean, burugogorrek izan eta mendira joaten jarraitzen dutenak. Edo zapata mota jakin bat ez erabiltzeko esan eta horrekin jarraitzen dutenak. Nik, esaterako, askotan esaten diot amari zapata estuagoak erabili behar dituela, baina alferrik da, dituenekin gustura dabilela esaten dit.

Zure kontsultaz gain, Eibar futbol taldeko podologo ere bazara...

Bai, urte asko daramatzat bertan ere; ni joaten naiz edo jokariak etortzen zaizkit hona. Azken batean, futbolarietaz euren lan-tresnak dira oinak.

Kirolariez gain, zeintzuk dira zure paziente ohikoenak?

Ba, egia esanda, denetik dugu. Gurasoak ere geroz eta gehiago arduratzen dira haurren oinekin eta zapaltzeko moduarekin, eta kontsultara etortzen dira.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

DEBAGOIENEAN
KORRIKA

APRILAREN 1EAN, EGUBAKOITZEAN, 22 DBETAN
LEKUKOA KILOMETROZ KILOMETRO

goiena
Zu hemen zaude.

æk
22. korrika

HITZEKIN